


MINTZAMENA ETA ERREALA

(Hiru irakurgai mintzamenari
buruzko gogoeta batetarako)

udako
euskal
unibertsitatea

IRUÑEA 1984

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAZ

Jabegoa: U.E.U.ko PEDAGOGIA Saila
Lege-gordailua: BI-1612-1984
ISBN: 84-398-2604-4
Inpeimategia: BOAN S.A.

MINTZAMENA ETA ERREALA

(Hiru irakurgai mintzamenari buruzko gogoeta batetarako)

EGILEAK:

Txelis Alvarez Santa Cristina
Fito Rodriguez Bornaetxea
Joxe Martin Apalategi Begiristain

HITZAURREA:

Victor Gomez Pin.

MARRAZKILARIA:

Migel Anjel Lertxundi Argoitia

SARRERA GISA

A.- Filosofia eta jakintza

Filosofia jakite mota guztien gainetik dugula zios - kun Kant-ek Era berean, Filosofiak lanari dagokion intelektoa- ren sakabanakuntza onartzen ez duela, behin eta berriz azpima- rratu beharra dago.

Jakintza, bere osotasunean dugun Filosofiaren eremua.

Eguneroko bizitzan zelatatzen den lanaren banaketak, banaketa intelektuala deritzanean du oinarria. Gaur egun dauden pseudo-unibertsitateak jakite ezberdinen araberan antolaturik eta loturik gabeko elkarjarreran kokaturik ditugu. Filosofia - ren asmoa ez doa ildo honetatik, jakite guztien (zientziak eta letrak delakoak) lotura eta gurutz-bidea izan nahi baitu bai - zik.

B.- Filosofia, Unibertsitatea, Herria

Filosofiaren bidez eraiki izan da Unibertsitatea eta, azken finean, Herria ere bai.

Ez dugu Unibertsitatea zentzu instituzional hutsean ulertu beharrik soilik, ezagutza ez baita beste ekintzen arte- ko ekintza bat, gure "arimaren" eredua baizik. Unibertsitatea, beraz, Herri baten ezagutzaren ikurra da, eta ezagutza esatera koan nahikundea edota jakintzarekiko nahikundea ulertu behar - da, azkenean "Nahikundea, jakintzaren nahikundea" besterik ez dugulako.

Honela, bada, Filosofiaren bidez eraikitako Unibertsitatea, Herri baten desio eta ezagutzaren islada ditugu.

D.- Mintzaira eta Filosofia

Greziera edo latina desager daitezke baina Aristotele-ren pentsamendua bizirik dago. Nik neuk, "El drama de la ciudad ideal" izenburua duen liburuan, "Egyptoaren pribilegioari buruzko" Greziako jakintsua zen Solon-en hitzak aipatzen ditut. Solon-en ustetan nahiz eta ahozko produkzioa onuragarri izan, egyptaren antzera, idatzi egin beharra zegoen. Hauxe da, hain zuzen, hemen egin behar dena, eta beste arrazoiren tartean, hizkuntza batek ematen dizkigun ahalmen guztiak menperatu behar direlako. Horregatik hizkuntza ez da atxakia baizik eta gauza guztiak aitzakiatzat jo behar dira hizkuntza, Mintzaira, Pentzakera..., elikatzeko.

E.- Zergatik euskaraz eta zereginak

Filosofia, beti hizkuntza indoeuroparretan garatu behar zela genuen Heidegger-en tesia.

Euskara, hizkuntza indoeuroparra ez denez, aurrean dugun desafioa garrantzitsu bezain ederra azaltzen zaigu.

Adibidez, Pierre Aubanque-k berak, Filosofiaren munduan prestigio duen bat aipatzeagatik, oso interesatua dago - Aristotele-ren kategoriak euskaraz nola islada daitezkeen jakiteko.

Baina lan serio bat egiteko azpiegituraren beharrean gaude oraindik : Hiztegiak, itzulpenak eta honako lanok horretarako baliotsuak izango direlakoan nago.

VICTOR GOMEZ PIN

FILOSOFIARAKO IRAKUR-GAIAK

Hona hemen egile eta idazlantxo batzu. Zergatik ote? Aipa daitezkeen arrazoi guztien gain, ikuspegi berezi baten az pimarraketa azaltzen zaigu: Filosofia egin orduko mintzairaz - berreskuratze-beharra.

Euskal kulturari dagozkion ezaugarrietako bat hauxe dateke, alegia, arauari ematen zaion garrantzia. Humberto Eco-ren hitzetan gure kultura hipokodifikaziotik hiperkodifikazio-tara(I) garatzen ari dela esan genezake.

Aita Larramendi-ren lanak plazaratu arte (2) ez zuen inork uste orduan beharrezkotzat jotzen zen gramatikazko legeen kutxa baten barruan euskara sartzea posible zitekeenik. Gure jesuita jakintsuak desafioari ekin zion eta harengandik moder-nitatea (arauak eta guzti) hezurretaraino sartu zitzaigun. - Ahozko produkzioan ez ezik legearen itzala euskal kulturan he-datzen hasi zen eta, betiko debozionarioei txanda jarraitu na-hiean edo, hiztegi eta gramatikak ere produzitu ziren. Azken - finean, beti gauza bera. Lan sortzaile gutxi genuen eta nahiko berriz, gauzak nola esan, egin edo bizi egin behar zuten jakin erazteko.

Harez geroztik hona, eta salbuespen miresgarri batzu ezik (literatur arloan bereziki) giza- eta gizagabeko zientzie kiko euskaraz eginiko saiakerek ez dute, tamalez, basamortua - ren argia baino ezagutu.

Bilduma honek aipatutako salbuespen horietako bat - izan nahiko luke; ez bakarra ezta onena ere, jakina, baina salbuespena hala ere tamalez.

Azken bolada honetan hiztegi eta gramatika arautzailei atxeki zaizkie textu-liburuak, eta ondorioz, behin eta berriz, eskuliburu batek, hau zer den, edota nola pentsatzen den horretaz, diosku.

Ez dut honekin legea, hiztegi edo textugintzaren beharrik ez dagoenik esan nahi, ezta gutxigorik ere; baina, pedagogo naizenez, prozedura bakoitzak dakartzan ondorioen azalpena agertzea gustatuko litzaidake. Horretarako Tartu-ko semiologiaz baliatuko naiz (3).

Klasikotzat (eta jatortzat, nahi baduzue) jotzen da Tartuko Lotman-ek kulturari buruzko barneganatzearen prozesuaz dioena : Ikur-sistema baten hurbilketa lortzeko bi bide ditugu, textuen bidezko heziketa eta gramatikaren bidezko hezkuntza.

Bigarren bidearen adibidea "Erromatar zuzenbidea" ezagunaren jokabidean dateke : "Desbideraketa posible guztiak baztertuz, kasu bakoitzarentzako arauak zehatz-mehatz deskribatzen dira" (4). Lehenengoari dagokiona, ordea, jarrera ezberdinen ikasketan datza.

Textuen bidezko heziketak, adierazpenen oinarrian, kultura bera finkatzen du. Gramatikaren bidezkoak, ostera, esan berri dugunez, legea du giltzarri. Gramatikaren bitarteko ira-

kaskuntzari inportantzia gehiegi eskaini diogulakoan nago as - palditxotik. Baita ezformala dena, textuen bidezko kultura,bi lakagabeko altxorra dugula behin baino gehiago esana dut ere.

Euskaraz egina dagoen filosofiak "gramatikaren bidea" aukeratua omen du, baina eskuliburuak eta hiztegiak baldin baditugu ere, ezinbesteko den Mintzairaren berreskurapenak beste biderik ere agintzen digu, apika.

Hiru textu ezberdinok textuen bidezko heziketa lirateke. Kitto.

Fito Rodriguez Bornaetxea

(I) Eco, H. Tratado de semiótica general. Lumen. Barcelona 1977

(2) Garagorri Larramendi, Manuel. El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada. Salamanca. 1729

(3) Lotman, J.M. "La cultura e il suo insegnamento come caratteristica tipologica" Tipologia della Cultura Liburuan. Bonpiani. Milan 1975.

(4) Lotman-ek, Tipologian..... op. cit.

HITZAREN ERREINUA

1984-ko Uztaila. Hiru urte luze eta bete igaro dira Donostiatik ihes egin behar izan nuenetik. Bertan guraso eta senide maiteak, lagun eta ezagun minak abandonatu beharra. Ez nuen suerte txarra izan, halere. Kondizio txarragotan gelditu behar izan zuten beste askok, tamalez : Pio XII enparantza madarikatuan, lehenik, eta kartzela hutsean gero. Hitzaren - erreinuan bizi garenok ongi aski dakigu zein den hitzaren balioa. Pio Dotze Aita Santuak (eta Edipo jaun-andareak barkagaitzala faszista kastratzaile honi leporatu diogun izendapena gatik;) zegien hitzaren balioa hutsaren hurrengora ez bide zen iristen, ez baitzen ez hitzeko gizonik ez ekintzako gizonik - ere. Edo norbaitek hala nahiago baleza honela ere erran genezake: Pio Dotze hitzaz eta ekintzaz ezin gehiagotan baliatu - arren, herri eta jende xumeen menderatzeko baliatu zituen ongi zekitzan hizkuntzak eta jokabide maltzurrak. Musolini-ren kainoiak bedeinkatu izan zituela edota Hitler-i botere nazista - ebasten lagundu ziola, adibide apal ezinagoak baino ez diratekе. Nik ba dut, ordea, hitzeko lagun eta ezagun ainitz; hitzeko bezain ekintzako. Baina ez hitz maltzur eta traizionatzaileko horietakoak, hitz labur, garden eta frogaterrezakoak baizik. Horiek dira sarritan Pio Dotzeren lagunen hatzaparretan eror - tzen diren horietakoak, beren larruan torturarik latzenak pairatu behar izan dituztenak, Pio jaunaren jarraikitzaileen isiltasun konplize lotsagabea lagun eraginkorra izaten dutelarik.- Horiek dira kartzeletara sartzen dituztenak usuenik. Idazten dudan hau hitzeko eta ekintzako gizon-emankumerik ote den bestek erran behar. Baina, neuk bai erran dezaket Belarra laguna

horietakoa dela. Haren laguntzarik gabe ez bait nezakeen libu rutxo hau argitara eman, hasteko. Areago, eta horixe bai dela inportanteago, ez bait nitzakeen estimatzen ditudan lagun mi - nak besarka orain egiten dudan bezala, ez bait nezakeen maite dudan pospolinarekin orain bezala maitasun eta eztabaida egin, ez bait nukeen posible itsas eta mendi bazterrak kurritu eta - dastatzea, ez eta, (zuri Joseba) gereziak belarrondoetan eske- gita, kalez kale paseatu eta nahi dituzun horien puntan jar - tzen zaizula kafetxo bat hartzera eseri terraza eguzkitsu bate tan, adibidez. Bai, Belarragatik ez balitz, harekin batera - aurkituko nintzateke kartzelan, komisartegiko infernutik pasa ondoren. Eta infernua diodala, zera galdetuko nieke zeru eta infernuaren ideologoei, eta bereziki J.M. Lekuona eta J. Anto- nio Artamendi ene garai bateko maisu beldurtiei: 33 intelektua lek zinaturiko gutun lotsagarrian parte hartu zenutelarik eta geroztik isiltasun lasai bezain konplizean zaudetela, ahantzi al duzue niri irakatsitakoa? Ahantzi al duzue zuen jokabide - beldurtia Mikel Salegi hil zutelarik? Zergatik orduan hain - isil erahilketa bat zela salatu behar zen momentuan, eta orain hain ausarta "erotegietan toki aproposagoa" luketenen biolen - tzia gaitzesterakoan? Baina nik hauxe diotsuet : ez euskara - (Juan Mari) ez arrazoia (Arta) ditu gure Herriak behar bezala ezagutuko darabiltzazuen jokabide txepel eta konplizeekin.

Hitzaren eremua mugaezina dateke, mugaezin bezain mu gagabe. Hortik datorkio duen boterea, apika. Norberaren aska- tasuna nahi eta erdiesteko ahalegintzen denak ongi jakin behar du hitzaz baliatzen. Mintzamenak eta hizkuntzak tajutzen bait gaituzte neurri apreziagarri batetan. Ez gara beti gu haren -

jabe, mintzoak (logos-ak) bait dagi gure konszientziaz bestalde, eta are haren gainetik ere behin baino gehiagotan. Hala - ber, Herri baten askatasuna defendatu nahi dugunok kontutan har tu behar dugu oso hitzaren soro labainkor bezain iheskorra. Hi tza landu, ezagutu, tajutu, geuretu, basteenganatu... Baita, orobat, hitza entzuten ikasi, hitzaren mintzo ezkutu eta era - ginkorraz jabetzen utzi, poesia eta maitasunaren mintzoaz jaz- ten eta bustitzen dakikegun halaxe. Eta, nola ez, hitza erabi li, behar aho eta tokitan ezar, zor zaionari zor heinean jaur- tiki, hitza harma bihurtuz, eta harma hitzaren agindu ponderatuaren pean kokatuz. Ezin izan daiteke, egia da, hitzeko emaku me-gizona ekintzako ere ez bada. Ezin egiago, ordea, ekintzako izateko hitzaren erreinukoak ere behar dugula izan. Aldi - bereko mugimendu batetan, erantsiko genuke nahi izanez gero.

Liburutto honen historia luzea da, eta are aberatsa oso ere. Ez hainbeste bertan eskaini daitezkeen gogoetan interesgarritasunagatik (beldur bait gara ez ote den nahiko eskas eta akademiko bihurtu), nola datozen orrialdeek duten haragi - eta hezurrezko historiagatik baizik bereziki. Lehenengo bi - idazlanak duela ia hiru urte jadanik idatzi genituela Fito eta biok. Hirugarrenak historia diferentea duke. Erbestean nagoenetik maiz asaldatzen naute galderok : penarik merezi al du, - gauden egoera ikusita eta odola eta oinazeak inoiz baino bor - titzago kolpatzen gaituztela, liburu bat idazteak? Merezi al du gogoetari emateak, pentsaketa filosofikoari ekiteak? Zein zentzu luke, heriotza eta ezintasunak maizegi asaldatzen gai - tuztela, gogo ausnarketari emateak, eta are hitzarekikoari,mintzamenarekikoari? Edo bestela esan, zer funtzio bete beharko

luke gogoeta filosofikoak geure burua abertzale eta iraultzaile defendatzen dugunon artean? Ezaguna bezain gaizki ulertua dugu Marx-en esaera hori non "filosofariak mundua entelegatzen ahalegindu dira orain arte, garaia da jadanik eraldatzen has - tea" baieztatzen zen. Baina, inork sinesten al du arrazonamen durik gabeko "praxis" burugabean? Ba al dago gizartea aldatze rik, independentzia eta sozialismorako bide urratzerik,munduan zer gertatzen den entelegatu gabe? Esan gabe doa erantzuna. - Orrialdeok, beraz, ez dituzu, irakurle, Ave Fenix haren gisako gogoetak, egungo errealitatean ematen den fenomeno garrantzi - tsu baten erreflexio konkretua baizik : hizkuntzaren beraren - fenomenoa, hain zuzen. Zer da mintzamena? Zeri esker mintzatzen gara? Zerk berezten gaitu animalietatik? Zer ote da inkontzientea? Zergatik amesten dugu, eta hitz egiten dugu amesterakoan? Galdera zerrendak aurrera jo lezake, eta etengabe - gainera. Galderok erantzun edota argitu nahian murgildu ginen aspaldidanik hizkuntzaren filosofiaren munduan. Egia esan,era bateko erantzunik ez da inoiz ez inon aurkitzen, baina galde - tzeko moldeak galdera eta erantzuna berak determinatzen ditu . Proposatu bide ditugun erantzunen azpitik beste galdera sakona gorik ezkutatzen datekeela ez dut dudarik. Egin ditugun galderak erantzuten baino galderen sakoneko zentzua argitzea lortu baldin badugu, lan honek eman dizkigun buruhauste eta nekeza - guztiak ongi aprobetxatuak lirateke.

Txelis Alvarez Santa Cristina

Baionan, 1984 ko Uztaila.

PSIKOANALISIA, MINTZAMENA ETA INTZESTUA

(INKONTZIENTEAREN HIZKUNTZ - EGITURA)

TXELIS ALVAREZ SANTA CRISTINA

INKONTZIENTEAREN HIZKUNTZ - EGITURA

(LOGIKAZ HARAINDIAN ..... ERREALAZ HONAINDIAN)

"Esakuntzaren esentzia ulertzearren, pentsa dezagun idazkera hieroglifikoaz, zeinak irudiztatu egiten baititu deskribatzen dituen gertaerak. Eta beronetatik sortu da idazkera alfabetikoa, irudiztapenaren esentzia galdu gabe.

Hauxe da ikusten duguna, jadanik esplikatu ez bazaigu ere, esakuntz zeinuaren zentzua ulertu egiten dugula ohar - tzerakoan" (Wittgenstein, Tractatus Logicus Philosophicus,4.016 eta 4.02).

"Berrar dezagun, bada, Freud-en obra Traumdeutung-tik hasita, ametsak esaldi baten egitura duela oroit ahal gaitezen edo hobeki, berorren hitzei atxekitzeko, hieroglifiko baten - egitura, hau da, idazkera batena...zeina bai aintzinako Egypto -ko hieroglifikoetan eta bai Txinak oraino gordetzen dituen - idatzezaugarrietan ere, hatzematen baita orobat".
(Lacan. Fonction et Champ de la parole et du langage, in Ecrits 267 or.).

"Edukia (ageria) idazkera hieroglifiko baten modura ematen zaigu, zeinaren zeinuak ideia (ezkutuen) mintzairara - itzuliak beharko diren izan banan-banan. Huts eginen litzateke nabarmenkiro zeinuok, duketen irudiztapenezko balioaren arabera irakurri nahi bagenitza, eta ez dituzten zeinu-erlazioa - ren arabera." (Freud, Traumdeutung, 234 or.)

HITZAURREA

Lanaren xede eta laburpena

Derragun lehen lehenik lantxo honen bitartez Psikoanalisiaren azalpen diferente bat egin nahi dugula, orain arte usuenik entzun eta ikas erazi dizkigunetatik garbiro bereizteko. Egun, salbuespen txalogarri zenbait ezik, Freud-en irakaspenak exaleko, partzial eta aski nahasiak ematen dira nonahi. Eta kasurik hoberenean, gainditutzat jotzen dira. Izan ere, argitara eman berri den "Psikologia Hiztegian" (UZEI) Freud-en lanari eskeintzen zaion tratamendua guztiz partziala, axaleko ez esateagatik, iruditzen zaigu, psikoanalisiaren izateko(izan ahal izateko) baldintzak ez baitira aditzera ematen, azalpena guztiz motz eta eskas geratzen delarik. Psikiatriaren garapen emankorrak batetik eta, azken urteotako experientzia eta ikerkuntza psikoanalitikoak bestetik, perspektiba zabalago eta sakonago eskaintzen dizkigute "iturrietarako itzulketa" serio bezain emankorra egin ahal izateko. Bestalde, Hizkuntzalaritza estrukturalaren arkikundeek garbi asko erakusten digute noraino inkontzientearen egitura eta mintzamenarena berdin eta kide diren. Zer esanik ez, Filosofia Analitikoaren garapenak ere zer ikusi handia dukeela guzti honekin; alor honi, tamalez, oraindik orain ezin azterketa seriorik eskeini ez zaiolarik.

Lantxo hau Lacan irakaslea hil aurretik egina den arren, uste dugu Lacan-en heriotzak bati baino gehiagori pentsa eraziko diola berak irekiriko bidetik egunik egun argi asko eman diezagukeela inkontzientearen (eta beraz, kontzientea-

ren) estrukturaren ikerkuntzan nola mintzamenarenean. Horixe frogatu nahi izan dugu datozen orrialdeotan.

"Inkontzientea hizkuntza bat bezala egituratzen da" askotxotan entzuna eta irakurria dugu arren, ez dugu uste ordea mezu horren zentzu, norainoko eta adierazpen sakonak hatzeman direnik. Sarritan ikusten bait ditugu teoria horren azalpen motelak. Bestalde, ezin uka Lacan-en obrak duen zailtasuna, hiztegi, idazkera nola edukiaren aldetik. Zentzu honetan beraz, ahalik eta sistematiko eta garbiroen azaltzen saiatu gara, nahiz beldur garen ez ote ditugun gauzak zenbaitetan nahasi.

Azalpenak hiru momento nagusi ditu. Lehenik, intzestuaren auzigintzaren deskribapen zehatza Lévi-Strauss-en teoriaren arabera, Lacan-ekin eta hizkuntzalaritza estrukturalarekin dukeen zerikusi eta are diferentziak ageriz, beti ere Freud -en mitoarekin kontrastatuz.

Aurkibidea irakurtzean ikus daitekeenez, intzestotik Edipoaren konplexua igaro gara, konplexu honen egitura sakona argitu nahirik. Edipo aztertzean inkontzientearen errealitatearekin tipo egin dugu. Inkontzientearen funtzionamenduaren berri ematen saiatu gara, bigarrenik.

Baina egitura psikoanalitiko hauen estudiatzeak zera erakusten digu: mintzamenaren egiturekin tipo egin dugu. Hartara, hizkuntzalaritzaren garapenaren berri eman ondotik, Jakobson-en lanak aztertu ditugu geldiro, afasiarekiko zenbat ohar eginez.

Azkenik Freud-engana itzuli gara berriro, ametsaren mintzo edo diskurtsoaren elementuak azalduz eta mintzamenaren elementu radikalekin kontrastatuz.

Dena den, amaitu gabe geratu zaigu lana, ezen astirik ez ezpaziorik ez bait dugu izan aitatu ditugun inplikazio guztien berri zehatzago emateko. Halarik ere, sarreran nahiz amaieran aurkituko da argibiderik.

Diogun, azkenik, lantxo honekin, zirriborri bat bada ere, ikerketa lan luzeago baten lehenengo atal nagusia burutu nahi izan dugula: psikoanalisia (Lacan-ena bederan) eta hizkuntzalaritza estrukturala kontrastatzea. Bigarren atal nagusian hizkuntz-filosofiaren azterketa diakroniko samar bati ekinen diogu, hots, historian zehar -filosofia izeneko historian zehar- hizkuntzaz kezka eta arduratu diren autore eraba kior zenbaiten istudiora, lehenengo atal nagusian aipaturiko kordenada nagusiei lotuz. Zentzu honetan esan behar da hizkuntz-filosofiak (edo hizkuntzaren zientziak) oraino falta duen perspektiba honetan eginiko hizkuntzari buruz ikerketa historiko orokor bezain zehatza egiteko dago oraindik. Presokratikoak, Sofistak, Platon, Aristotele, Estoikoak, Ockham, Port-Royal, Hobbes Locke, Leibniz, Hegel, Nietzsche... Wittgenstein eta segur asko ahazten dugun beste askoren obrak berrirakurri eta berpentsatu beharra lirateke, izan ere. Egiteko horretan gaude aspaldidanik hirugarrenik, eta arestian aipaturiko xede eta egitarauaren ildotik, Filosofia analitikoaren emaitza, hizkuntzarekikoan, berplanteatu eta beraztertu

behar da, Wittgenstein-en obraren inguruan bereziki eta nagusiki, Hegel eta Wittgenstein-ez geuk eginiko lantxoetan apalkiro azaldu dugun bidetik, apika (ikus Filosofia hiztegia UZEI) (0)

a.- Hitzaren hodeiertzea

"La psychanalyse est la découverte d'un lieu, celui de l'inconscient, et d'une dynamique qui se déroule dans ce lieu, et qui se noue tout entière autour du complexe d'OEdipe et plus spécialment de son moment essentiel, la castration: laquelle régle le désir chez la fille comme chez le garçon, en déterminant, pour celle-là, son entrée dans l'OEdipe, et, pour celui-ci, sa sortie.

S'expliquer sur la psychanalyse, c'est donc s'expliquer sur ces deux concepts: l'inconscient et la castration. Et il est nécessaire de les traiter dans cet ordre, car tout discours sur l'OEdipe qui ne commence pas par constituer qu'une nouvelle version du mythe antique. Or notre but est de montrer que l'OEdipe n'est pas le mythe où se dénudent ses lignes de force, et encore moins le drame qu'il determine dans le vécu de chacun, mais une structure selon laquelle s'ordonne le désir dans la mesure ou il constitue un effet du rapport de l'être humain, non pas au social, mais au langage. Que ces effets se dessinent selon des lignes anatomiques, au sens étymologique

du terme, c'est ce qui, loin d'etre contesté, va - s'éclaicir para la suite". (I)

Hona hemen nola ematen dion hasiera bere liburu bati Moustafa Safouan-ek: "Le structuralisme en psychanalyse".Esan gabe doa textu hau irakurtzean berehalaxe hatzematen dugula beronen edukiaren aitatasuna, alegia lerrootan Lacan-en obraren - (teoria eta praktika sakon baten) oihartzuna -transkripzioa ez esateagatik- ezinago nabarmen azaltzen dela hain zuzen ere. Geroxeago Lacan-enagana berarengana jotzeko astirik izanen dugunez, transkriba dezagun beste autore baten aipamen adierazgarria psikoanalisiaren helburu eta xede nagusiez:

> "El psicoanálisis -en el horiz nt lacaniano- tiene un proyecto concreto y bien determinado: a.- intentar acercarse al emerger mismo del hombre en el horizonte de la palabra; b.- Determinar cómo el horizonte de la palabra va a hacer sentir sus efectos sobre la totalidad de la realidad humana (....).
>
> La realidad objetiva no es otra cosa que la realidad propia del sujeto; la realidad objetiva es lo que el sujeto constituye como su entorno mediante: a.-la representación; b.- (condición de a) la estructura del lenguaje (2).

Safouan-en textua 1968 koa dugu, "dibulgazio" lan - bat izan nahi lukeelarik. Bigarrena, berriz, V. Gomez Pin-ena da, 1978koa, hamar urte geroago, beraz, idatzita; funtsean bata eta bestearen presupostuen gakoa berdina dateke: mintzame-

na dela inkontzientearen egitura hatzeman erazten duen erreali tatea, edota, areago, mintzamenaren egituran bertan inkontzien tearena irakurtzen dela, hots, eta Lacan-en proiektoa zehatza- gotuz, mintzamenaren egiturak inkonszientearena isladatzen due la eta beronetan hartzen duela (konfrontatu eta egiaztatzen - duela) bere egia. "L'inconscient est structuré comme un lan gage" esango zigun Lacan-ek berak hainbat urte lehenago. Atze rago jo behar izateke -jotzerik bailegoke, noski- 1953an du- gu jadanik Lacan-en ongi helduriko obra guztiz garrantzitsu - bat inkonszientearen eta mintzamenaren arteko erlazioei buruz: Fonction et camp de la parole et du langage. (3)

Urteekiko aipamenetara jotzen badugu ez da arrazoi - rik gabe. Egun, zientzia mailan -edozein zientzi mailatan- teoria "zaharrak" eta autore "klasikoak" errazki "gainditzen" dira, lasaiki "superatzen" dira. "Hori superatua dago" entzu- ten da maiz asko, edo, eritzi nabartuagorik azaltzearren, "ho- rri dagokionez, gauzak asko aldatu dira" eta antzekoak. Filoso fia eta hizkuntzalaritza aztergai nagusitzat ditudanez, horra non nere harridura ikustean Freud-en obrak UZEI-ko "filosofia hiztegian" tokirik ez duela aurkitzen filosofaritzat hartzen - ez delako, edota tamainakotzat jotzen ez delako. Psikologia - hiztegiak, berriz, psikoanalisiaren ikuspegi guztiz funtzional edo enpirikoa (sakontasun ezakoa) eskaintzen digu, eginkizun - "pedagogikoak" direla gauza apika. Artikulu horren egilea ez da zoritxarrez, -eta ukan, baditu- bere ahaltasun guztiez ba- liatu. Hizkuntzalaritza hiztegian, bestalde, psikoanalisiaren garapenak hizkuntz zientziarekiko ukan duen zerikusia (alderan tzizko fenomenoa psikoanalisiak aspaldidanik ezaguturik duen -

bitartean) ignoratzen da oso. Ikus, bestalde, aurtengo UEUan (1981) psikoanalisiari egin zaion funtsik eta neurrik gabeko kritika. (4)

Guzti honekin esan nahi duguna zera da, alegia, psikoanalisiaren estatuto zientifikoa, batetik, eta beronen ulerkuntza errigurosо baten beharra, bestetik, ez direla aintzat hartu nahi. Psikoanalisiaren estatuto zientifikoa zalantzatan jartzen da, teoria "bitxitzat" jotzen bait da gehienetan edo "sugerentzia interesgarri" dituzkeen teoriatzat gehienez bestetan. Zientzi-estatutoa inoiz ematen zaionean, berriz, zientzia enpirista eta terapeutiko huts eta soiltzat hartu nahi da psikoanalisia, egiazko arazoaren gakoa guztiz desitxuratzen delarik.

b.- Mintzamenaren egiturak inkontzientearena isladatzen du.

Ez da gure asmoa, jakina, psikoanalisiaren apologia bat egitea, baizik eta Freud-en irakurketa sakon bat proposatu nahi izatea, eta Lacan-ek ireki duen bidetik abiatuz, mintzamenarekiko ausnarketa ahalik eta serioen baten egitaraua (nik neuk aurrera eraman nahi dudana aurrerantzean) proposatzea.

Gatozen berriro Lacan-en xede nagusira textu-sintesi inportante bat aipatuz:

"L'inconscient est structuré comme un langage, ceci se rapporte a un champ qui nous est aujourd'hui beaucoup plus accesible qu'au temps de Freud. Je l'illustre

rai par quelque chose qui est materialisé sur un plan assurément scientifique, par ce champ qu'explore, structure, élabore Claude Lévi-Strauss et qu'il a é pinglé du titre Pensée Sauvage.

Avant toute expérience, avant toute déduction individuelle, avant meme que s'y inscrivent les expériences collectives qui ne sont pas rapportables qu'aux besoins sociaux, quelque chose organise ce champ, en inscrit les lignes de force initiales. C'est la fonction que Claude Lévi-Strauss nous montre être la vérité de la fonction totémique, et qui en réduit l'apparence -la fonction classificatoire primaire- .

Des avant que des relations s'etablissent qui soient propement humaines, déjà certains rapports sont déterminés. Ils sont pris dans tout ce que la nature peut offrir comme supports, supports qui se disposent dans les thèmes d'opposition. La nature fournit pour dire le mot, des signifiants, et ces signifiants organisent de façon inagurale les rapports humains, en donnent les structures et les modèlent.

L'important, pour nous, est que nous voyons ici le niveau où-avant toute formation du sujet, d'un sujet qui pense, qui s'y situe- ça compte, c'est compté, et dans ce compté le comptant, déja y est. C'est ensuite seulement que le sujet

> De nous jours, au temps historique où nous sommes de formation d'une science, qu'on peut qualifier d'hu - maine mais qu'il faut bien distinguer de toute psy - cho-sociologie, á savoir, la linguistique, dont le - modèle est le jeu combinatoire opérent dans sa spon- tanéité, tout seul, d'une façon pré-subjective,-c'est cette structure qui donne son statut á l'inconscient. C'est elle, en tout cas, qui nous assure qu'il y a - sous le terme d'inconscient quelque chose de quali - fiable, d'accessible, et d'objectivable" (5).

c.- Gure proiektu

Lehen lehenik, Lacan Lévi-Strauss-en obraz baliatzen da inkontzientearen sakoneko agitura eta beronen esangura aditzera emateko: bai Lacan nola Lévi-Strauss (eta azken hau lehenik eta emankorren) funtzio totemikoaren egia argitzen saiatu dira. Funtzio totemikoak, bestalde, Freud-engan hartzen du bere oinarrizko dignifikazioa. Intzestuaren debekuak gizadiaren konstituzioa markatzen du. Intzestuaren debekuak, bestetik, - Edipoaren konplexuaren mundura irekitzen gaitu. Edipoaren konplexuak inkontzientearen funtzionamendua hizkuntza edo mintzamenaren funtzionamendua bera dugu. Mintzamenaren funtzionamenduan logika bat azaltzen da, logika bat zeinean gauza eta hitz oro diferentzia hutsean (edo erabateko diferentzian) agortzen baita. Prozesu honen egia egiaztatzea, hauxe da gure proiektua.

I.- Lévi-Strauss-en pentsakera: intzestuaren debekuaren atarian

a.- Totem eta Tabu: Historiaren ahal izateko baldintza; ez gertakizun historiko bat.

Freud-ek "Totem und Tabu" idazteari ekiten dionean, 1912an, ez du gertakizun historiko baten egia enpirikoa proposatu edota argitu nahi izan. Derragun, lehenik, Totem eta Tabu liburuan aditzera ematen duen teoriak badituela hainbat antezedente Freud-en beraren obran.

Izan ere, "Drei Abhanlungen zur Sexualyheorie" (Hiru entseiu teoria sexualaz) izeneko obran, 1905an idatzita, intzestuaren debekuak haurraren garapen edo desarroilo sexualean duen garrantzi paragabeaz arduturik zegoen jadanik. Aipaturiko obran, alabaina, haurraren objetu sexualaren hautapenaz ari delarik honako hitz adierazgarriak irakur daitezke:

> "Lo más fácil para el niño será elegir, como objeto sexual a aquellas mismas personas a las que ha amado y ama desde su niñez con una líbido que podríamos calificar de mitigada. Más por la avanzada época en que tiene lugar la maduración sexual se ha llegado al momento en que es necesario alzar, al lado de otros diques sexuales, los que han de oponerse a la tendencia al incesto; ésto es, inculcar al niño aquellos preceptos morales que excluyen de la elección de objeto a las personas queridas durante la niñez y a los parientes consanguíneos. El respeto de estos

límites es, ante todo, una exigencia civilizadora de la sociedad, que tiene que defenderse de la concen - tración, en la familia, de intereses que le son nece sarios para la constitución de unidades sociales más elevadas, y actúa, por tanto en todos, y especial - mente en el adolescente, para desatar o aflojar los lazos contraídos en la niñez con la familia" (6)

Baina textu hau baino adierazgarriago beste hau date ke; textu beroni erantsitako ohar batetan -Totem eta Tabu idatzi ondoren ezarritakoa, dirudienez- ikus daitekeen bezala:

"La inhibición del incesto cuenta entre las adquisiciones éticas realizadas por la Humanidad en el curso de su evolución, y probablemente aparece ya establecida en muchos indivíduos por la fuerza de la herencia orgánica, como tantos otros tabús morales. - Sin embargo, el psicoanálisis nos revela cuán intensamente tiene que luchar aún el indivíduo, en y con cuánta frecuencia sucumbe a ella en sus fantasías o incluso en la realidad" (7).

Freud-ek, genioen lehenago, festa totemikoaren des - kribapena eskeintzen digunean Totem eta Tabu delakoan, ez digu gertaera historiko bat aditzera eman nahi, laneko hipotesi bat baizik, bere sakontasun eta zabaltasun osoa ulertu behar duguna; ezen gertakizun historiko baino Historiaren baldintzatzat proposatzen baitigu, edota, hobeki esatearren, Historiaren - ahal izateko baldintzatzat, V. Gomez Pin-ek dioen bezalaxe "El

reino de las Leyes : Orden Freudiano" deritzon lan irakurgarrian:

> ".... Freud es perfectamente consciente del carácter especulativo o mítico de la hipótesis de salida:"ese estado social primitivo no ha sido observado en parte alguna" nos dice. La única cosa observable es en última instancia, la sociedad totémica, es decir, la humanidad plenamente constituida. Nada más razonable, pues alcanzar el estado anterior equivaldría a observar la pura animalidad, la cual (como la propia muerte) es por definición irrepresentable, de no ser por proyección a partir de la humanidad. Lo que en Totem y Tabú nos describe tiene un carácter fundador pero no porque constituya un acontecimiento histórico, sino porque es la condición de posibilidad de la Historia" (8) (Loc. cit. 56 or.)

Eta lerro batzu geroxeago esaldi batez sintetizatuko du autoreak berak goragoko ideia, logika koherente baten arrazonamenduaren poderioz:

> "... no puede darse en la realidad social aquello en cuya exclusión se funda la realidad social"(9)(Loc.-cit. 56 or.)

"Giza egoera primitibo hori ez da inon hautematurik izan" diosku Freud-ek berak, proposaturiko hipotesiaren enpirizitatearen kontra. Freud-ek festa totemikoaz eta aitaren erahilketaz idatzitako textuari ohar bi eransten dizkio, berak -

dioenez, guztiz beharrezkoak textuaren ulerkuntza errigurosoa lortzearren :

> "La indeterminación, la brevedad y la síntesis de los datos expuestos en las consideraciones que anteceden me han sido impuestas por la naturaleza misma del tema. Sería tan absurdo aspirar a la exactitud de estas materias, como injusto exigir en ellas una certidumbre" (10) Totem y Tabú. Libro de Bolsillo 41 72 or.

b.- Mitoaren deskribapena

Baina, zertan datza Freud-en teoria? Dakusagun: Horda primitiboan aita odolgaiztoak bere semak bidaltzen ditu tributik kanpora, hauek hordako emakumeak gutiziatzen baitzituzten, baina aita tiraniko horren mende zeuden emakume guztiak, emazteak nahiz alabak izan. Behin batean anaiak elkartu egiten dira aitaren kontra. Aita akabatu eta irentsi egin zuten. Honela bazkari totemikoa instituitu zuten: "Gizaldiaren lehenengo festa apika" esanen digu Freud-ek. Areago, "bazkari totemikoa, gizadiaren lehenengo festa totemikoa apika, ekintza erahiltzaile horren lehenengo reprodukzio oroigarri zatekeen , zeina organizazio sozialaren, murrizketa moralen eta erlijioaren abiapuntua bilatu baitzen" (Loc. cit. 185-6 or.).

Beraz, psikoanalisiaren aitak mintzo honi damaion garrantzia ez da nolanahikoa, beroni errimititzen baitio, ez gutxiago ez gehiago, gizartearen beraren (eta berari datxezkion

berezko atributo ororen) konstituzioa, baldintza,"ahal izateko baldintza"¡.

Baina auzia ez zen amaitu. Aita akatu eta irentsi ondotik, beste gertakizun paregabe (prezedenterik gabeko) bat suertatu zen: aita erahil ondoren, guztiz libre aurkitzen ziren emakumeez baliatu ordez, ez zuten kontakto sexualik izan nahi orain eskuragarri zituzketen emakumeekin. Semeek erruztat jo baitzuten beren ekintza, errudun arkitu baitzuten beren burua : Kulpabilitatearen sentimendua jaioa zen. Gertakizun honen "berri" emanen digu Freud-ek berehalaxe:

> "Lo que el padre había impedido anteriormente por el mismo hecho de su existencia, se lo prohibieron luego los hijos a sí mismos... Desautorizaron su acto, prohibiendo la muerte del tótem, sustitución del padre, y renunciaron a coger los frutos de su crimen rehuyendo el contacto sexual con las hembras accesibles ya para ellos. De este modo es como la conciencia de culpabilidad del hijo engendró los dos tabús fundamentales del totemismo, los cuales tenían que coincidir, así, con los deseos reprimidos del complejo de Edipo".
> (Loc. cit. 186-7 or.)

Honaino, labur-labur, intzestuaren debekuaren deskribapena.

Baina, dakigunez, eta Freud-ek berak ezin argiago azalduko digu bere obra osoan zehar, intzestuaren debekuak Edi-

poren konplexua sarrerazten du. Baldin ezertan eta ezertarako fenomeno honek (intzestuaren debekuak) inportantziarik badu Freud-entzat, Ediporen konplexuaren dinamika eta errealitatea konstituitzen dituelako da. Areago ere jo genezake ausnarketa honetan, baina utz dezagun hemen Freud-en aurkinkundea, eta goazen, atalburu honen izenburuak dioen bezalaxe, Claude Lévi-Strauss-en pentsakera aztertzera, zeren eta bere lanik eta orijinaltasun handienak intzestuaren debekuaz egin dituen ikerketak eta interpretazio-teoriak baitira izan. Horretarako hiru obra izan ditugu kontutan: Les structures élémentaires de la parenté; la pensée sauvage; eta Antropologie structurelle.

c.- Lévi-Strauss-en lehen galdera: non hasten da kultura?

Les structures élémentaires de la parenté izeneko oinarrizko liburuan Lévi-Strauss-ek galdera tradizional bezain inportante (neurri gabeko ondoriotakoa) bati ekiten dio: Non amaitzen da Naturaleza? Non hasten da Kultura? Edota, beste era batera esatearren, Zer ote da Kultura eta zer ote da Naturaleza? Ba ote dago bien arteko muga zehatzik, ongi zedarritu riko mugarik?, Filosofari, antropologo eta are gehiago psikologo eta biologo gehienak arduratu dira auzi honetaz eta biziki kezkatu. Filosofiaren eta zientziaren historian zehar hainbat erantzun interesgarri eman ohi zaio arazoari. Arrazonatzeko ahalmena, pentsatzeko ahalmena, sinbolizatzeko ahalmena, mintzatzeko ahalmena... izan dira erantzunik sendoenak. Baina, beti ere, ahalmen horien estruktura guztiz argitu gabe geratu da. Bestalde, ikusten denez, eta ahalmenoi gagozkielarik, batak bestea suposatzen du, eta arrazoimen, pentsamen, sinbolizamen

eta mintzamenaren arteko mugak ere ez dira guztiz garbi ez nabari. Ez baita aski, izan ere, gizakiak pentsatu egiten duela edota mintzatu egiten dela esatea naturalezaren eta kulturaren arteko berezketa guztiz argitzeko. Berezketa horren zergatiak eta estruktura eman behar dira aditzera, hots, arrazoinatze, -pentsatze, sinbolizatze edo mintzatze horren hausak eta beorietaz aditzera ematen duten egiturak, beroietaz aditzera emanen duten ahal izateko baldintzak ere, argitu behar dira eta sakondu.

Zentzu honetan ulertu behar de Lévi-Strauss-en Lana, Freud, Lacan, Jakobson, Wittgenstein eta intelektual handien -ikerketak bezalaxe, ikuspegi, perspektiba eta presupostu diferentetatik izan arren. Azken batez, esatera ausartzen naiz,denak halako konbergentzia unibertsal batetan biltzen dira: denak galdera nagusi honi, modu eta bide diferentetatik den ere, lotzen baitzaizkio, alegia, zer ote da, bada, sujetoa sujeto -bezala konstitutzen duena; eta honek dakartzan galdera eta arazoak: zein ote da objetibitatearen eta subjetibitatearen ahal izateko baldintza, zertan dautza naturaleza eta kultura, sujetoa eta mundua, fenomenoa eta noumenoa, adierazlea eta adierazia, konszientea eta inkonszientea, gauzak eta Erreala....?

d.- Animalia, definizioz, ezin mintza daiteke

Gatozen berriro Lévi-Strauss-engana. Honetzat animaliek ez dute mintzamenik. Egun, antropologo zenbait ahalegindu da hainbat tximu moetari hizkuntza jakin bat irakasten. Lorpenak guztiz eskasak izan dira, besterik dioten arren. Aipa

dezadan, esaterako, Txillardegiren artikulua "Linguistika Hiztegia"-rako animalien "mintzamenaz". Autorea nahiko baiezkor azaltzen zaigu, egunen batetan animaliek hizkuntza (giza hizkuntza) bat hitz egiten ikasiko dutela uste baitu; hala baitirudi artikulua irakurtzean. Lorpenak eskasak izan direla diogu, eta arrazoirik ez dugu falta. Lehen lehenik, datu enpiriko batetan oinarritzen garelako: animalien egitura anatomikoa mintzatzeko guztiz aproposa izan arren, mintzatu, ez dira mintzatzen; orain arte ez baitira, urrik eman ere, horrelakorik erdietsi. Transkriba dezagun, argumento honi nagokiola, Lévi-Strauss-en hitzok:

> "... quand on a démontré qu'aucun obstacle anatomique n'interdit au singe d'articuler les sons du langage, et meme des ensembles syllabiques, on ne peut qu'être frappé par l'absece irrémédiable du langage, et une totale incapacité d'attribuer aux sons émis ou entendus le caractères de signes". (Loc.cit.7 or.) (II).

Baina, hautemate edo oharpen enpiriko horrez bestalde, badago beste ordena bateko argumento serioago eta erriguro soagorik: animaliek, definizioz, ez dute mintzatzerik, ezin dezakete hitz egin, hots, ez dute mintzamenik. Eta zer ote da "definizioz" hori?. Dakusagun.

Lan honetan, hain zuzen ere, horixe frogatu eta erakutsi nahi dugu: mintzamenak animalitasuna baztertzen duela, edo hobeki erranik, gizakiak dukeen animalitasunean hain zuzen

ez dira oinarritzen mintzatzeko dituen ahalmena eta gaitasuna. Animaliek -zenbaitek bederen eta honek nahikotzat jotzen duguez dute organikoki, hots, anatomikoki ezein oztoporik mintzatzen has daitezen; eta halarik ere, askotxotan frogatu (behin eta berriz¡) denez, tximu edo delako animalia horiek hainbat silaba eta hitz "ikastera" (Ikasketaren egitura sakona zertan datzan jakin beharko genuke aurrez aurretik, edota delako ikertzaile horiek ikasketatzat zer ulertzen duten gustatuko litzaiguke jakitea) baino ez dira iritsi. Jakina, garuneko diferentziak aipatuko zaizkigu berehalaxe. Izan ere, inork ez du ukatzen, eta geuk ere guttiago, gizakiok, goi mailako primateetatik egungo emakume-gizonetara igaro den bilakabide luze eta paregabean (misteriotsuan, zergatik ez¡ -horixe baita, oraindik orain zientzialari eta filosofari guztiak harritzen dituen misterioa-) zehar garuneko diferentzia kuantitatiboez bestalde eta gainera, halako diferentzia kualitatibo inportant batzu suertatu direla, zeinei esker egun primaterik geratuenen eta emakume-gizonik "arruntenen" artean ematen den jauzi (jauzi kualitatibo nabaria¡) estrukturala ezin ukatzekoa baita. Eta halaz ere, hau esanik, ez dugu oraindik gauza handirik esan. Guzti hau duela urte asko esana baitzegoen, eta guk baino hobeto esana.

e.- Zein estrukturari esker sortzen eta garatzen da mintzamena?

Auzia besterik da. Lehenengo, azaldatzen gaituen galdera hauxe da: zeri esker eman diren garuneko diferentzia horiek? Bigarren, galdera hau hobeki formulatzearren, garuneko diferentzia horiek zertan dautzan, hots, zein estrukturari

esker, zein erlazio-sistemari esker eman dira diferentziak? Ba ote dago, gizakiaren baitan, diferentzia horiez aditzera emanen duen estrukturarik? Eta halako "guztialdun" egitura misteriotsu hori guztiz hatzematerik ez den arren (horixe da, bestalde, gure eritzi apala, ezen egitura horretaz guztiz eta erabat aditzera ematea definizioz ezinezkoa baita, zeren eta, lantxo honetan zehar ikusiko dugunez, egitura horretan baitautzake gure gizaki-baldintzak, hots gure gizaki-ahal-izateko baldintzak), halako egitura hori definitiboki hatzematerik ez den arren, genioen, arkituko al ditugu halako sistema batzu (hautemate enpiriko, erlazio logiko edo sistema zenbait) egitura horretaz aditzera emanen digutena? Hona hemen galdera nagusia, arrazoaren gakoa.

Eta gure tesia zera da: Psikoanalisiak, inongo pretensio murritzailerik gabe errealitatearekiko, aurkitu du bere praxian fenomeno andana bat zeinak egitura horren ulerkuntza errazten eta sakontzen baitu. Berriz ere diogu, ezein pretensio murritzailerik gabe, hots, ezein pretensio totalizatzailerik, dogmatikorik gabe, "orotaz aditzera ematen duen" ilusio idealista hori gabe¡. Argigarri izanen da hori buruz Freud-ek berak "kuzker Abriss der Psykoanalyse" (Psikoanalisiaren eskema laburra) izeneko obran, 1924an idatzita, dakarkigun textu adierazgarria transkribatzea:

> "La mayor parte de lo que, incluso en obras científicas, se ha opuesto al psicoanálisis reposa en una información insuficiente... Asi, es erróneo acusar al psicoanálisis de pansexualismo y pretender que deri-

va de la sexualidad todo el suceder anímico y lo refiere a ella... Jamás se le ha ocurrido querer explicarlo todo, y ni siquiera ha derivado la neurosis exclusivamente de la sexualidad, sino del conflicto entre las tendencias sexuales y el yo.... El reproche de unilateralidad que se opone al psicoanálisis, el cual, como ciencia de lo inconsciente psíquico, tiene su dominio determinado y limitado, es tan inadecuado como si se dirigiera a la Química". Esquema del psicoanálisis. Loc. cit. 47 or. (12)

f.- Psikoanalisiaren mugak: zientzia bat baino ez da

Maiz entzun dugu, eta "L'Anti-OEdipe" obrak duen zuen arrakastak luze konfirmatzen du dioguna, adibide soil bat baino ez emateagatik, psikoanalisiari leporatzen zaion kritika hau: korronte anti-psikoanalitikoen ustez psikoanalisiak pretendituko zukeena hauxe zatekeen, alegia, gizakiaren psikismoaz erabateko funtzionamenduaren berri eta zergatiak eman nahi izatea, bizitza animikoa hainbat fenomeno ongi ikasi eta ze haztutakotara murriztuz, erreduzituz. Ezin arkitu hau baino argudio kontraesankorragorik psikoanalisiaren kontra ihardutekoi Ezen psikoanalisiari esker ezer ikasi baldin badugu -inongo apologia egiteko beharrik gabe- horixe baita, alegia, mundu edo errealitate animikoa, psikikoa hondo eta etengabeko prozesoa dela, inkontzientearen dinamika eta logika guztiz hatzeman gaitzak diratekeelarik, erabateko zentzuan bederen. Diogun, bestalde, Deleuze eta Guatari-ren obra, aipaturiko L'Anti-OEdipe delakoa, garrantzi handiko obra dela eta inspirazio psikoa-

nalitiko handikoa gainera, bertan dagitzaten kritikak entzungarri eta kontutan hartzekoak baitira psikoanalisiaren egungo garapenerako, beronen oinarriak astindu baino "berregindu" (berrindartu esatera ez nintzateke ausartuko, noski) egiten dituelako, psikoanalisiaren hutsune eta "aintzirak" ongi asko planteatzen dituztelako. Tamalez, ezin hemen obra garrantzitsu honen (Guatari-ren "Rizoma" liburuarena bezala) azterketa kritikorik egin, bego halaz ere aipamena. Interesgarri deritzogu,-nahiz gurekin bat ez datorren, Adolfo Rodriguez Bornaetxearen lizentziaturarako tesia, pedagogo bezala, irakurtzeari, baita halaber Udako Euskal Unibertsitatean aurkezturiko ponentzia; -bertan ikus daiteke psikoanalisiari egin dakiokeen interpretazio partziala, okerra ez bada (I3). Ez genuke puntu hau amaitu nahi Freud-engana berriz ere jo gabe: "psikoanalisiaren eskema laburra" delakoan zientzia honen jitea zientzia enpiriko bezala aztertzeari (edo karakterizatzeari, nahiago bada) ekiten dio Freud-ek; hitzokin:

> "Psikoanalisiaren jitea zientzia enpiriko bezala.-El psicoanálisis no es un sistema como los filosóficos, que parta de unos cuantos conceptos fundamentales -precisamente definidos, intente aprender con ellos la totalidad del universo y, una vez concluso y cerrado, no ofrezca espacio a nuevos hallazgos y mejores conocimientos. Se adhiere más bien a los hechos de su campo de acción, tantea sin dejar el apoyo de la experiencia, se considera siempre inacabado y está siempre dispuesto a rectificar o sustituir sus -teorías. Tolera tan bien como la Física o la Quími-

ca, que sus conceptos superiores sean oscuros y sus hipótesis provisionales, y espera de una labor futura una más precisa determinación de los mismos". Loc. cit. 49 or.

g.- Freud, hizkuntzalaritza estrukturalaren aita

Gatozen berriro gure auzira. Aurrexeago genioen psikoanalisiak Lévi-Strauss-ek eginiko galderari ("Où commence la culture, où finit la nature?") erantzun inportant bat zemaiola inkontzientearen egituran mintzamenaren egiturak berak hatzematen zirela bazioen, eta beraz, mintzamena, gizakiari -eta gizakiari soilik- datxekion ahalmen estruktural "de premier ordre" izanik, inkontzientea jorratuz eta ikertuz mintzamenezko egitura bat topatzen genuela, ordurarte -hots, psikoanalisiaren etorrera arte- horrelakorik ez zelarik deskubritu izan. Freud-ek honela, berrogeitamar urte geroago sortuko zen hizkuntzalaritza estrukturalaren aitatasuna nolabait irabazi du. Geroztik hizkuntzalaritzak egin du urratsik. Freud-en arkikundeak hizkuntzalaritzari zenbaitetaraino lagundu dion ikusteko Lacanen textu bat transkribatzeak mesede handia eginen digu, lantxo honen azken fineko xedea garbiago ikustearren, eta Lévi-Strauss-en intzestuaren debekuarekiko teoriak zertarako aztertu nahi ditugun argiago eta perspektibaz ikus dezagun:

"L'inconscient, à partir de Freud, est une chaîne de signifiants qui quelque part se repète (sur une autre scène, écrit-il) et insiste pour interférer dans les coupures que lui offre le discours effectif et la

cogitation qu'il informe.

> Dans cette formule, qui n'est notre que pour être - conforme aussi bien au texte freudien qu'à l'expé - rience qu'il a ouvert, le terme crucial est le signi fiant, ranimé de la rhétorique antique par la lin - guistique moderne, en une doctrine dont nous ne pou- vons marquer ici les étapes, mais dont les noms de - Ferdinan de Saussure et de Roman Jakobson indiqueront l'aureore et l'actuelle culmination en rappelant que la science pilote du structuralisme en Occident a - ses racines dans la Rusie où a fleuri le formalisme. Genève 1910, Pétrograd 1920 disent assez pourquoi - l'instrument en a manqué à Freud. Mais ce défaut his torique ne rend que plus instructif le fait que les mécanismes décrits para Freud comme ceux du processus primaire, ou l'inconscient trouve son régime, récou- vrent exactement les fonctions que cette école tient pour déterminer les versants les plus radicaux des - effets du langage, nommément la métaphore et la méto nymie, autrement les dimmensions respectivement syn- chronique et diachronique où ils apparaissent dans - le discours" (Lacan. Subversion du sujet et dialecti que du désir, in Ecrits 799-800 or.)

Eta hara non gure harridura -atseginekoa¡- ohar - hauen ondotik Lacan-ek geuk lehenago proposaturiko galdera uni bertsal hura egiten diola bere buruari, filosofari nagusi orok ekiten -eta beronetan konbergitzen- dion galdera alegia: bego,

diosku Lacan-ek, inkontzientearen funtzionamenduan mintzamenez ko egitura bat (egitura, nahiago bada) ematen da ezagutzera... baina zein sujeto konzebituko diogu, zer sujeto moeta,bada?

> "la structure du langage une fois reconnue dans l'inconscient, quelle sorte de sujet pouvons-nous lui - concevoir?"
> (Loc. cit. 800 or.)

h.- Araurik ez, kriterio nagusia

"Les structures élémentaires de la perenté" deritzon liburuan, Lévi-Strauss-ek primateek oztopo anatomikorik ez - izan arren mintzatu egiten ez direla baieztatu ondoren, garrantzi gehiagoko beste zerbait diosku: primateen bizitza soziala ez dela ezein norma edo arau formulatzera prestatzen edo egokitzen: "La vie sociale des singes ne se prete a la formulàtion d'aucune norme" (Loc. cit. 7 or.) Eta geroxeago, bere obra - osoaren laburpen ezinago adierazgarri gisa,araurik(règle) eza honetan oinarrituko du -ez gehiago ez guttiago;- naturaren eta - kulturaren arteko berezketa mugatzeko erizpide edo kriterio nagusia, "seguruena", berak esatera.

> "Tout semble se passer comme si les grands singes,dé jà capables de se dissocier d'un comportement spécifique, ne pouvaient parvenir a rétablir une norme - sur un plan nouveau. La conduite instinctive perd - la netteté et la précision qu'on lui trouve chez la plupart des mammifères; mais la différence est pure-

ment négative, et le domaine abandonné par la nature reste inoccupé.

Cette absence de règles semble apporter le critère - le plus sûr qui permette de distinguer un processus naturel d'un processus culturel" (Loc. cit. 9 or.)

Antropologo ospetsu honen ustez, jarraitzen du esa - ten, zirkulo biziatu edo gurpil zoro batetan erortzen gara kul turaren jatorri bila joaten garenean, (aurrerago argituko dugu puntu hau), zeren eta kulturaren jatorriaz aditzera emanen due naren bila goazelarik (kultura konstituitzen duten erregela - edo arau instituzional delakoak), hizkuntzarekin topo egiten - dugu, mintzamenarekin: jakin, badakigu, lehenago konstatatu du gunez, mintzatzeko gaitasuna dela emakume-gizona animalietatik berezten duen ahalmenik inportanteenetarikoa (garrantzitsuena ez esateagatik, ezen gainontzeko tasun guztiek beronetara erre mititzen baitute, kasu); hots, emakumea emakume eta gizona gi zon konstituitzen duen fenomenoa. Baina, auzia ez dago konpon duta, eta arrazoi honegatik hain zuzen ere, arau instituzional horiez aditzera eman nahi dugunean (edota, nahiago bada, min - tzamenaz beraz aditzera eman nahi dugun bakoitzean) hizkuntza- rekin topo egiten dugu, aditzera eman nahi duguneko horretaz - ari baikara baliatzen. Hona hemen gurpil zoroa, edo beronen as pektu bat.

"C'est, en effet, qu'il y a un cercle vicieux à - chercher dans la nature l'origine des règles institu tionelles qui supposent -bien plus, qui sont déjà-la culture, et dont l'instauration au sein d'un groupe

peut difficilement se concevoir sans l'intervention du langage .....

Acune analyse réelle ne permet donc de saisir le point du passage entre les faits de nature et les faits de culture, et le mécanisme de leur articulation". (Loc. cit. 9-10 or.)

i.- Imajinatua bai, baina ez pentsatua

Hau da, ez dagoela inor naturaren eta kulturaren artean suertatu den jauziaz aditzera emanen duenik, eman dezakeenik. Definizioz gainera¡. Ez dago, beraz, gertakizun guztiz eta erabateko historiko horren berri eskeiniko duenik, eskein ahal izanen duenik. Inor (mintzatzen garen momentutik beretik esanen digu psikoanalisiak) ez baita lekuko izan. Gauzei da - txezkien izenei eta horrek suposatzen duen arazoari dagokienez gauza bera esan daiteke, Ferdinand de Saussure-k ere ongi azpimarkatzen zuen bezala: ezen gauzei izenak iratxekiko zitzaiz - kiekeeneko ekintza "maila (ordre) honetako ekintza pentsa egin daiteke, baina ez da inoiz konstatataturik izan" baieztatzen du hizkuntzalariak. Ikus Cours de linguistique Générale 105 or. Saussure psikoanalista ez zenez, ez zituen hitza ongiegi neurtu eta "un acte de cet ordre peut etre conçu" esanen du. Zen - tzu honetan V. Gomez Pin-en oharra guztiz egokitzat jotzen dugu, kontzebitua (euskarazko "bururatu" hitzaz baliatzera ez gara oraindik ausartzen), konzebitzeak, pentsatzeak kontzienteak izatea suposatzen baitu, eta errigorre hertsian ezin esan daiteke horrelako egintzaz (de cet ordre) kontziente izan gaitez-

keenik. Ikus honi buruz, aipaturiko autorearen liburu bikaina bezain ezezaguna: Ciencia de la Lógica y Lógica del sueño, 57 or. (14).

> "El Cours de Linguistique muestra la ingenuidad de la concepción que ve en la lengua una nomenclatura: en una sociedad ya constituida, sujetos ya constituidos se pondrían de acuerdo para asignar un término a cosas asímismo ya constituidas... Lo apropiado sería decir que si este acto puede ser imaginado lo que no puede precisamente es ser concebido, es decir expuesto en sus condiciones de posibilidad (ahal izateko baldintzak). Es más: no sería concebido aunque fuera constatado; pues cabe constatar lo inconcebible, basta para ello que la jerarquía entre entendimiento e imajinación se invierta en favor de la segunda facultad, sin que por ello lo inconcebible deje de ser inconcebible. Nada sorprendente habría sino en las síntesis monstruosas de ciertos fenómenos". Loc. cit. 57 or. (15).

j.- Intzestuaren debekua : Kulturaren oinarria

Orain, beraz, hobeki konprenituko da Lévi-Strauss-en textuaren azken zatia: "Ezein azterketa errealak permititzen gaitu gertaeren eta kultur gertaeren arteko pasadizuaren punttua hatzematea, ez eta beren artikulazioaren mekanismoa". Jarrai dezagun antropologoaren azterketa deskribatzen, zientzialari honen pentsakera laburtuegi eman beharrean aurkitzen garen arren. Gorago aipaturiko azterketa edo "analyse" erreala-

ren ezean erizpide bila joko du Lévi-Strauss-ek : araua (norme) eta unibertsaltasuna (universalité) izanen dira erizpideak Eta kriterio horiek betetzen dituen fenomeno bakarra, haren ustez, intzestuaren debekua dugu. Ezen intzestuaren debekuak, berak esatera, aurkitzen baititu, ezpairik gabe, eta askaezinezko eran elkarturik bi ezaugarriok (arauak eta unibertsalitatea), zeinetan bi ordena elkarrekiko baztertzaileren (deux ordres exclusifs) atributo kontraesankorrak ezagutu baititugu; intzestuaren debekuak, bestalde -edota horrexegatik beragatik- arau bat konstituitzen du, baina arau bat zeinak, giza araurorren artean, unibertsalitatezko jite bat baitu aldi berean.- (Ikus loc. cit. 10 or.)

Intzestuaren debekua, beraz, arauaren eta unibertsalitatearen erizpideak betetzen dituen fenomeno sozial dugu,eta sozial hori azpimarkatu beharra dago, bera baita egiazko fenomeno sozial lehena, sozialaren (balio zentzu neutro batez esana) oinarria baita, kulturaren oinharria, ezinago aproposa.

Maiz asko entzun dira kritikak, intzestuaren debekua arau unibertsal bat ez dela baieztatuz eta handik eta hemendik hainbat ohar eta hautemate eskainiz zenbait herritan halako ez kontzarekiko debekuak ez direla ezagutzen azpimarkatuz. Lévik berak ez die muzin egin horrelako kritikei. Experientzia handiko antropologo denez, ukatu, ez du ukatzen hainbat ezkontza-moeta toki batzutan zilegi direla, beste zenbaitetan baztertuak direlarik. Areago, hainbat tokitan debekaturik dago keen ezkontza modu bat bestetzutan agindurik dagoke. Baina au

zia ez datza hor, arazoa besterik baita: auzia ez baita jakitea ba ote direnentz taldeak bestetzuk baztertzen dituzten ezkontzak permititzen dituztenak, baizik eta ba ote direnentz taldeak zeinen baitan era guztietako ezkontza-moetak onarturik (hots, debekatu gabe) baitaude. Horixe da, bi hitzetan, Lévi-Strauss-en planteamendua. (Ikus Loc. cit. 10-11 or.)

> "Que la prohibition de l'inceste constitue une règle n'a guere besoin d'être démontré; il suffira de rappeler que l'interdiction du mariage entre proches-parents peut avoir un champ d'application variable selon la façon dont chaque groupe définit ce qu'il entend par proche parent; mais que cette interdiction, sanctionnée par des penalités sans doute variables, et pouvant aller de l'expecution inmédiate des coupables a la réprobation diffuse, parfois seulement a la moquerie, est toujours présente dans n'importe quel groupe social". (Loc. cit. 10 or.)

Intzestua definitu ondotik, falta zaigu, halare, beste zerbait: ontzat eman dezagun intzestuaren debekuaren existentzia unibertsala, baina, zein da fenomeno honen signifikazioa, esangura, adiera?, lerro batzu lehenago zertxobait aurreratu dugu, intzestuaren debekua, alegia, fenomeno sozial ezin apropo sagotzat definituz (karakterizatuz, nahiago badadi). Izan ere, intzestuaren debekuak, Freud-en irakaspenez geroztik -eta egungo eskola psikoanalitikoaren doktrinari atxikiz-, naturaren eta kulturaren arteko pasadizua markatzen du, zubia, zeinari esker morala, erlijioa, eta giza organizazioa posible izan bai

tira, Freud-ek berak esatera. Gorago esandako Freud-en textuez bestalde, badago beste textu inportant bat, 1925an idatzita, zeinean intzestuaren debekua Ediporen konplexuarekin lotzean bion esangura aditzera ematen baitu maisuki:"Einige psychische Folgen des anatomischen Geschlechtunterschieds" (16).

> "Dado que el pene -siguiendo aquí a Ferenczi- debe su catexia narcisista extraordinariamente elevada a su importancia orgánica para la conservación de la especie, cabe interpretar la catástrofe del complejo de Edipo -el abandono del incesto, la institución de la conciencia y la moral- como una victoria de la generación, de la raza sobre el individuo".

k.- Intzestuaren debekua auzitan: hiru objekzio nagusi

Intzestuaren debekua esangurarekiko karakterizatu nahi dugunean, haatik, hainbat problemarekin topatzen gara. Izan ere, debeku honen arkikundeaz geroztik, hainbat teoria sortu da fenomenoa esplikatu nahirik. Strauss-ek hiru objekzio moetatan biltzen ditu teoriaok.

I.- Lehenengoak zentzu honetan saiatu dira esplikatzen intzestuaren debekua, alegia, ezkontza konsangineoak guztiz kaltegarri ziratekeen espeziaren garapenerako. Baina, errealitateak besterik dio: diogun, lehenik, animalietan maiz asko suertatzen direla horrelako "ezkontza konsangineoak", eta halaz ere ez dugu inongo malformaziorik hatzematen ezkontza horiek kausatzat izanen duenik. Gizakiotan, bestalde, era honetako arrazoi eugenikoak (raisons d'eugénique) indarge geratzen dira

hainbat fenomenotara konfrontatzen garenean, zeinek erakusten baitigute zenbait tokitan guztiz debekaturik dagokeen ezkontza konsangineo moeta bat, hura bera beste toki batetan zilegi dagoela eta are agindurik. Beste era batera esatearren, intzestuaren debekua normaliza arazten duten arrazoiak ez dira arrazoi eugenikoengatik, beste mailako arrazoirengatik baizik, geroxeago ikusiko digunez.

2.- Bigarrenik, hainbat jendek uste izan ohi du intzestuaren debekuaren jatorria gizonaren nahiz emakumearen baitan, hots, beroien izaeran (berezko izaeran) legokeen tendentzia edo sentimendu baten ondorioan bilatu beharko genukeela. Hau da, intzestuarekiko horroreak arkituko luke bere arrazoibidea, bere justifikazioa, gizakiaren beraren izaera fisiologiko nahiz psikikoan, gizakiari berez datxekion naturalezaren mezu ezkutuan, are "instintiboan". Baina, berriro ere, errealitateak, giza jokabideak, besterik diosku. Batetik, intzestua, galerazita den arren, gertatu egiten da. Bigarrenik, alderdi edo aspektu fisiologiko-genitalaren zentzuan horrelakorik ez dela inoiz gertatzen,gizakiaren beraren izateko arrazoia zalantzatan suertatuko bailitzateke bestela, lantxo honetan zehar frogatzeko aukera izanen dugunez. Hirugarrenik, gizakiaren naturalezak, berezko dinamika "instintibo" zaintzaile delako horren bidez, zertarako beharko luke berezko galerazpenaz bestalde giza lege bat bilakaraztea intzestuaren debekua?. Zertarako,bada, segurtasuneko neurri gehiagorik? Diogun, bestalde, psikoanalisiak besterik frogatzen zuela, alegia, harreman intzestuosoak ez-bazertuak izan ezik, jarraikiak izaten dira inkontzienteki, eta hau fenomeno unibertsaltzat jotzen du analisiaren zientziak.

Lévi-ren argumentazioak ere puntu honetara jotzen du:

> "mais il y a, derriére l'attitude que nous discutons (intzestuaren debekuak gizakiaren berezko higuin batetan hartuko zukeela bere arrazoibidea), une confusion infiniment plus grave. Si l'horreur de l'inceste résultait de tendences physiologiques ou psychologiques congénitales, pourquoi s'exprimerait-elle sous la forme d'une interdiction a la fois si solenelle et si essentielle qu'on la retrouve, dans toutes les sociétés humaines, auréolée du Meme prestige sacré. Il n'éxiste donc aucune raison de défendre ce qui, sans défense, ne risquerait point d'etre exécuté". (Loc. cit. 21 or.).

3.- Hirugarren ezplikazio moetak intzestuaren debekua jatorri sozial hutseko galerazpena ikusten du, debekuaren materializazio eta gauzatze biologikoak guztiz akzidental, ustegabeko eta bigarren mailakoak izaki. Durkheim eta bere eskola dirateke - explikazio honenaitatasuna bereganatzen dutenak. Lévi-Strauss -ek, haatik, metodologia arazo larria ikusten du hor: soziologismoaren keria, hau da, fenomeno unibertsal batetaz aditzera ematerakoan ezin oinarri dezakegu fenomeno hori sekuentzia historiko partikular hutsetan. Lévi-Strauss-en ustez, Durkheim , Spencer, Lubbock, McLennan... eta beste askok ez dute azkeneko ondorioetaraino eramaten arazoa, hots, intzestuaren debekuaren problema ez da (hori ere bai, noski) bilatzea zeintzu diren - sakoneko eta betiereko (toki orotako) zergatiak zeinen arabera gizarte eta aldi orotan sexuen arteko araudi bat suertatzen -

baita. Hau esan ondoren, hona hemen Lévi-Strauss-ek proposatzen digun analogia, analogia metodologikoa hain zuzen ere.

> "Vouloir procéder d' une autre manière serait commettre la même erreur que le linguiste qui croirait épuiser, par l'histoire du vocabulaire, l'ensemble des lois phonétiques ou morphologiques qui président au développement de la langue". (Loc. cit. 27 or.)

1.- Aliantzaren tasun arbitrarioa: naturaren indeterminazioa

Zeintzu dira, beraz, fenomeno honen zergati sakonak eta betierekoak?. Antropologoak sarrerazten gaituen arrazonamendu-haria zehaztasun handiz ezin eman badezakegu ere, diogun halare, inportanteena. Lévi-Strauss-en ustez, intzestuaren debekuak konsanginitateak konstituitzen duen fenomeno naturalaren eta aliantzaren fenomeno kulturalaren artean suertatzen den pasadizua ematen du aditzera. Konsanginitatetik, beraz, aliantzara; horra hor pasadizu nagusia, kulturarenganako pasadizua. Naturalezan indeterminaziozko printzipio edo hastapen bat dago, eta bat bakarrik, hastapen hori aliantzaren jite arbitrarioan agertzen delarik. Baieztapen honen bi polook azpimarka ditzagun: naturaren indeterminaziozko hastapena, eta aliantzaren (kultur fenomeno bat izaki) jite edo tasun arbitrarioa. Eta honela lot eraz: bigarrenak lehenengoaz ematen du aditzera. Areago, lehenengoa bigarrenean agortu egiten da. Zein da, beraz, aliantzaren funtzioa ekuazio honetan?. Antropologoak esatera, naturalezak aliantza inposatu egiten du: bai

na determinatu gabe; kultura aliantza jasotzen duelarik modalitateak zertu edota definitzearen. "Honela bada debekuaren arauzko jitearen eta unibertsalitatearen arteko lirudikeen kontraesana ebakitzen da" (Loc. cit. 37 or.)

m.- Kulturaren paper nagusia: fenomeno sozialaz aditzera ematea

Eta iristen gara orain puntu inportant batetara. - Arauak, arau gisa -hots, bere modalitateez bestalde-, zer adierazten du? Zein da kulturaren betebeharreko paperarik -rolik- oinarrizkoen eta emankorrena? Galderaoi eginiko erantzunetan etzanen da arazoaren soluzioa, edo hobeki erranik, soluziobidea (k). Punttu honetan hain zuzen ere Lacan-en ikerketak azpimarkatzen hasi beharko ditugu. Beronetan ematen baitira Lévi-Strauss-en eta Lacan-en arteko diferentziarik nabarmenenak eta, zergatik ez, emankorrenak, ezen egun, gure uste apalean , auzia guztiz ebakigabe baitago, eta bi ikerlarion bideetatik abiatuz (batetik nahiz bestetik, "bide guztiek Erromara daramatela" dioen esaera zientziaren bilakaeran inon baino egiago bilakatzen baita). Lehen mailako arazo honen argibideak, orain dik orain (teoria sasi-gainditzaile errazetatik gaindi), hatzeman ahal izanen ditugu. Lévi-Strauss-ek soziala azpimarkatzen du, Lacan-ek aldiz mintzamena, mintzamenarekikoa. Ez da, izan ere, ustegabean izan lantxo honen hasieran M. Safouan-en testua transkribatzea, lerrootan, eta sintesi paregabean, psikoanalisiaren bide jatorrizkoa garbiro eta zehazkiro ematen baita aditzera, lacaniar hodeiertzetik ikusita jakina. Gogora ditzagun azkeneko pasartearen esaldi hori: "or notre but est de mon

trer que L'OEdipe n'est pas le mythe où se dénudent ses lignes de force, et encore moins le drame qu'il détermine dans le vécu de chancun, mais une structure selon laquelle s'ordonne le désir dans la mesure où il constitue un effet du rapport de - l'être humain, non pas au social, mais au langage. Izan ere, Lacan-en originaltasuna hortxe dagoke, mintzamenari lotu bai - tzazaio sozialari, gizartekoari baino.

Gatozen berriro aliantzaren auzira. Zer adierazten du erregelak, eta zein da kulturaren rola nagusia, galdetzen - genuen arestian. Lévi-Strauss-entzat, erregelaren gertatzeak, beronen modalitateetatik guztiz independienteki ikusita, intzestuaren debekuaren esentzia bera konstituitzen du. Honela kulturak ordena bat sarrerazten du: ordenarik ez dagoen tokian - aliantzarik ez dago. Kulturaren rol nagusia hauxe dugu, tal - dea talde bezala asegurtatzea, iraun araztea, izan-eraztea. Beste era batera esateko, eta Lévi-Strauss-ek berak esatera, intzestuaren debekua interbentzio moduren bat dugu, areago bera - da interbentzioa.

> "Le rôle primordial de la culture est d'assurer - l'existence du groupe comme groupe; est donc substituer, dans ce domaine comme dans touts les autres , l'organisation au hasard. La prohibition de l'inceste constitue une certaine forme -et meme des formes très diverses- d'intervention. Mais avant toute autre chose elle est intervention; plus exactement encore, elle est: l'intervention".
> (Loc. cit. 37 or.).

Honaino, oraingoz bederen, Lévi-Strauss-en pentsakera. Bueltatu eginen gara, baina beste alderdi batetik, hizkuntza edo mintzamenarenetik hain zuzen ere; "Anthropologie Structurale" deritzon izenburupean bai baitira kapitulu-artikulu batzu guztiz interesgarri antropologiaren eta hizkuntzalaritzaren zereginez linguistikarekiko. Goazen orain ikustera zer dioen psikoanalisiak, Freud-ek lehenik eta Lacan-ek gero, intzestuaren debekuaz, nola karakterizatzen duten, eta zergatik mintzamena jarriko duten Edipo konplexuaren oinarrian.

II.- Freud eta Lacan: Intzestuaren debekua Ediporen konplexua.

Lehenengo apartadoan, haseran, intzestuaren deskribapena egiten genuen, Freud-en textuetara joz eta festa totemikoaren mitoa azalduz. Azter dezagun, orain, gertuagotik arazoa. Intzestuaren deskribapenaz gainera, besterik ere esaten genuen alegia, Freud-ek mito batera jotzen bazuen berariaz eta kontzientziaz egiten zuela. Gertakizun enpiriko baten berririk ez zigula ematen genioen, Freud-en beraren hainbat textutara jotzen genuelarik. Hipotesi bat zela genioen gainera. Komeni da hemen, haatik, zehaztasun bat egitea: gertakizun enpiriko ezin izan daitekeen bezalaxe (nork eman lezake aditzera, bestalde, horrelako akontezimenduaz?), errigorre hutsean ez dugu hipotesi zientifikoa ere, ezin izan daiteke hipotesi zientifikoa. Zergatik ote? Mintzamenaren jatorriaz ari ginelarik eta Saussure-ren textua aztergai genuelarik, gauzei izenak ezarri zitzaizkieneko egintza aipatzean horrelako egintza (inoiz "gertatu" bazen) pentsa zitekeela baina ez egiazta zioskun hiz

kuntzalaritza estrukturalaren aitak. Eta geuk honako hau zehazten (kritika gisa): horrelako egintza ezin pentsa daiteke; gehienez imajina daiteke, baina ez pentsa (concebir). Gómez Pin-en obrara jotzen genuen punttu honen argibide bila, izan ere. Bada, beste hainbeste esan daiteke intzestuaren arauaren inposaketaz. Inork ez du horrelako ekintza egiaztatu, konstatatu, batetik; eta horrelako gertakizuna (legearen ezarpena) ezin pentsa daiteke, bestetik, imajina daitekeen zerbait baizik -gehienez- ez baita.

Areago, intzestuaren debekua legetzat ezarri zeneko egintza (erabakia) ezin izan daiteke kontziente. Mintzamena erabakiaz sortzen ez den bezalaxe, hots, prozeso kontziente baten bidez, intzestuaren debekua ere ez da erabakiaz sortu eta "onarturik" (asimilaturik) izan. Hona hemen, errigorre logiko hertsian, aurreneko apartadoan aipatzen genuen zirkulo biziatua, gurpil zoroa. Eta punto honi gagozkiola, Gómez Pin-en textu argigarri hau:

> "Si los que dicidieron aplicarla (intzestuaren araua -norma-) eran ya hombres, poseían ya tal norma. Si tan sólo se trataba de animales, ¿qué podía moverles a tal restricción en ausencia de una voluntad exterior?. No cabe decir que les movía el instinto de conservación pués la prohibición del incesto, condición de posibilidad de la existencia humana (lehenago ikusi dugunez zehaztasun gehiagorekin), no lo es de la existencia animal" (El Psicoanálisis;justifi-

cación de Freud" 95 or.) (17).

Freud-ek narraturiko mitoa ez da, beraz, hautemate edo oharpen enpiriko bat, ez da hipotesi zientifikoa. Ez eta prozeso kontziente baten erabakia ere¡

a.- Espeziea eta gizabanakoa elkarren kontra?

Zer erakutsi nahi digu, Freud-ek halako mitoa (berraur kezpen imajinarioa) azaltzean? Lehen ikusi digu nola norma honen ezarpenak ez zuela kontzerbaziorako (iraupenarako) instintora jotzen, ez zuela horrelakorik helburutzat. Eta hau esanda, halere, korapilo ederrean sartu gara, terminologia egoki baten ezean. Zeren eta zer ulertu behar dugu espezietzat?, giza espezie terminora jo bageneza konpon al lezake horrek ezer? Lévi-Strauss-en pentsamendua aztertzean, intzestuaren debekua arrazoi eugenikoengatik ez zela ulertu behar, hots, iraupenerako instinto baten gisa genioen. Baina, bestetik, Freud-ek behin baino gehiagotan karakterizatzen du "espeziearen garaitzapena gizabanakoarekiko" suposatu duen fenomenotzat. Terminologia problema baino gehiago dateke. Arazoaren bihotzean sartu gara. Nola ulertu behar da hau: instinto bat ez izan, espeziea irauteko instintorik ez izan, eta bestalde, espeziearen garaitzpena izan indibiduoaren gainetik. Edota zer ulertu behar dugu espezietzat, giza espezietzat? Arazo honen formulaketak toki jakin bezain ilun batetara garamatza berriro: zerk bereizten du animaliarekikoa gizakiarekikotik, non hasten da kultura eta non amitzen natura, eta hau gizakiaren baitan beronetan. Areago, animaltasunaz hitz egin al daiteke gizon

nahiz emakumearekiko, hots, ba al dago animalitasunik gizakiarengan, beronen baitan? Puntu hau azpimarkatzen badut arrazoi batengatik da, hain zuzen ere: ez baitut argumentazio-urrats hau argiegi ikusten; ene uste apalean, orain arte aipatu ditudan autoreek ez dute puntu hau guztiz garbi kontsideratu. Biologiaren garapen emankor batek ez liguke argi eskasa emango.

Goragoko galderari jarraituz, diogun Freud-ek mitoa ebokatzerakoan superbizipenaren eta legearen arteko konplizitatea eman nahi digula aditzera; honako hau eransten digularik, giza gainbizipenaren eta barneraturiko legearen arteko konplizitatea. "Giza" adjetiboaren gehitzeaz nahiko esan berri dugu, "barneraturiko" horren zehazteaz diogun zerbait. Psikoanalisiak irakasten duenez legea lege izateko, izan ahal izateko (hau da bere ahal izateko baldintza), barneratua behar du izan, interiorizatua, giza lege izateko, eta errigorre hertsian mintzatzearren, lege hutsa izateko. Zertan datza barnerapen prozeso edo joanari hau? Gogora dakargun Freud-ek berak dioena festa totemikoaren mitoaren "hipotesia" deskribatzean: semeek jadanik libre zuten emakumeen komertzio sexualari uko egin zioten, "honela bada, sortu zituen semearen kulpabilitatezko kontzientziak totemismoaren bi tabu funtsezkoak (animal totemikoarekiko begirunea, eta intzestuaren debekua)" (18) Legearen barneratzea posible egiten duena psikismoaren instantzia guztiz garrantzitsu bat da: Niaren Ideala edo Super-Nia, Freud-ek izendatu zuen bezala.

b.- Kastrazioa : lege moralaren sorrera

Zein da, beraz, aitaren erahilketaren esangura. Esangura bikoitza izanen da. Batetik, aitaren hiltzeak atsegin bat suposatzen du eta adierazten, atsegin animal bat, kanpotikako muga (aita biolento eta jeloskorrak ezarritakoa) hausten den neurrian. Baina, aitaren kontrako konfabulazioak dakarren emakumeen komertzio sexualaren askatasunari uko egiten zaion neurrian -lehen zegoen debekua berrezarriz aitaren erahilketak bere esangura jasotzen du: kastrazioa ur gainera irtetzen da, nolabait esatearren, kastrazioa emerjitzen da. Honela bada, aitaren hiltzeak (animal baten aitarenak) geure animaltasunaren hiltzea adierazten du eta suposatzen, sinbolizatzen. Animaltasuna eta gizatasuna ongi bereizturik daude orain. Batetik, animaltasunaren aldetik, aitaren hiltzea; bestetik, gizatasunarenetik, kastrazioa.

Lévi-Strauss-en aliantzaren azterketak "lehen mailako funtzio sailkatzailea" ikusten zuen intzestuaren debekuak inplikatzen zuen ahaidetasunarekiko egituran. Esan gabe doa, gorago behin eta berriz azpimarkatu dugunez, ahaidetasunarekiko estruktura hori ez dela beti zentzu biologiko batez ulertu behar; biologikoa guztiz baztertu behar ez dugun arren, erantsiko genuke. Azken batez, estruktura sinbolikoak nolabaiteko estruktura biologikoan hartzen du oinharri (1). Bestalde, orain ikusi dugu nola intzestuaren debekuak kastrazioaren errealitatera irekitzen gaitu. Kastrazioa gizakiaren automuga konstitutiboa dugu. Zentzu honetan ulertu behar dugu aurreko orrialdean

(1) Ikus honi buruz Nietzsche-ren intuizio paregabea. Das Philosophenbuch.

giza gainbizipenaren eta barneturiko legearen arteko dialektika, dialektika konplizea. Lege moralaren eraikitzea langa edo barrera baten eraikitzea dugu, naturarekiko eta gizarekikoa bereizten duena, bion artean muga eta oztopo egiten duen langa hain zuzen ere. Areago, eta aurrerantzean kontutan oso hartu behar dugun puntua denez, naturarekikoaz aditzera emateko gizarekikoaren bidez beharko dugu egin, ez alderantziz. Guztiz adierazgarri dirateke guzti honi buruz Gómez Pin-en lerrook:

> "La restauración de la primacía del padre constituye la base sobre la que reposa la sociedad totémica y con ella la sociedad en general: la primacía del padre... muerto. O sea, erección de la ley moral como barrera que esciende lo natural de lo humano y que permite la interpretación de lo primero a partir de lo segundo. Debe insistirse asímismo en que sin esta bifurcación no cabe hablar de naturaleza, como no cabe hablar de sociedad. La naturaleza no procede -o por lo menos nadie puede afirmarlo apodícticamente- al acontecimiento del cual se escindió de la cultura, del lenguaje humano. (Diogun bidenabar "naturaleza" kontzeptua bera kontzeptu dela, hizkuntza dela gizakiak (hitz) egin duen zerbait. Gurpilzoro ezagunean sartzen gara berriro. Zentzu honetan ulertu behar da "edo bederen inork ezin baiezta dezake apodiktikoki" delakoa)" ("El reino de las leyes. Orden Freudiano" 59 or.)

c.- Kastraziotik Ediporen konplexura

Kastrazioak Ediporen konplexura garamatza zuzen zuzenean. Ediporen konplexuak sujetoaren egituraren berri ematen digu, areago subjetibitate/objetibitate dialektikaren berri. - Psikoanalisiaren bidez, hobeki esatearren, psikoanalisiaren - praktikaren bitartez (hots, praktika analitikoaren mende jar - tzearen bidez), Ediporen konplexua ber-biziaraziko da pazien - tearen baitan (psikoanalisia zientzia enpiriko hutsekin identi fikatzen ez den arren, ez du enpiriarik falta) transferentzia deritzon prozesoaren bidetik, hizketa enpirikoak estruktura - adierazle bat agerreraziko digu. Amets, lapsus, txiste... eta abarren estrukturak inkontzientearen estrukturaren berri ema - nen digu. Ediporen konplexoaren egitura mintzamenaren egitura bezala agerreraziko zaigu. Puntu horretara iritsita, galde - raok eginen ditugu: zein legeri erantzuten dio mintzoak, min - tzo kontzienteak, diskurtsoak (kontzientziaren diskurtsoak?)zein legeri, bestetik, erantzuten dio mintzo hautsiak (edo mintzoaren hausturak, nahiago badi), inkon zientearen mintzoak?

Hona hemen gure proiektuaren eginkizuna, eta beronen artikulazio logikoa. Intzestuaren debekuak kastrazioaren kon - tzeptura eraman gaitu. Kastrazioaren kontzeptuaren eskutik - Ediporen konplexuaren bihotzera goaz, inkontzientearen ur-gainera irtetzera. Edipoaren estruktura mintzamenezko egitura - bat bezala agerreraziko da. Mintzamena izanen dugu, azkenik,- kontziente/inkontziente dialektika bortitza bezain aberats eta emankorarren berri emanen diguna, dialektika hau Errealitatea-

ren konstituzioaren dialektika bera baino ez delarik. Diogun, azkenik, proiektuaren azken helburua ongi ikustearren; egungo hizkuntzalaritza generatiboak (Chomsky-rengandik sortu zen hura, nahiz, jakina denez, 1957tik hona "gramatika transformatibo-sortzailaren" baitan gauzak dexente aldatu diren), ez dituela aintzat hartu Psikoanalisiaren irakaspenak (arkikundeak) - mintzamenaren munduari dagokionez. Semiologia berriak, aldiz, kontuago izan ditu, Frantziako Eskolak (honela deitzea zilegi bada) bereziki (Julia Kristeva, Philippe Sollers, Roland Barthes, Jacques Derrida, Oswal Ducrot, Trzvtan Todorov....).Izan ere, "egitura" edo "estruktura" nozioak mintzamenaren (eta hizkuntza bakoitzaren) munduarekiko ba duke gaur egun ere zer esanik, zer argitzerik. Eta egiteko honetan hizkuntzaren soziologia egoki batek ez lituzke gauzak gutxi argituko. Horretara - iritsiko gara.

Gatozen berriro kastrazioaren auzira. Debekua barneratzen zen. Baina, barneratze horrek ez al du aitarekiko identifikazioa besterik adierazten?. Izan ere, aitaren kontzeptuak (ez aitaren errealitate fisikoa, aita biologikoa, Kasuj) seme-alabaren eta amaren arteko bereizketa adierazten digu. Seme-alabak amarekin funtzionatzeari uko egiten dio, errenunziatzen du, aitarekin identifikatuz. Aita, azken batez, langa barrera hutsa da; baina barrera betea, seme-alabak ez duen betetasunez beterik. Seme-alabak drama bat bizi baitu sujeto (sujeto indibidual, batetik, eta gizartearen sujeto, bestetik) bezala konstituitzeko ordaindu beharreko prezioa: kastrazioaren prezioa, kastrazioaren drama. Drama honek sujetoak beronen -

baitan bizi-jasaten duen zatiketa adierazten du nagusiki. Hau a, zatiketa hau guztiz berezko du gizakiak, sujetoak, bere iza erari datxekion zerbait (datxekion hori, beharko genuke esan). Ezen sujetoa lege balitz soilik, amaren errenuntzioak sujetoaren betetasuna erakarriko bailuke, drama desagertuko litzate - keelarik. Bestalde, legerik ez balego, super-nirik ez baleuka sujetoak ez luke kontzientzia moralik ez kulpabilitatezko sentemendu inkontzienterik, eta beraz, amarekin fusionatuko litza teke. Sujetoaren dramak beraz konflikto bat adierazten du, - instantzien artean suertatzen den konflikto bat (kontziente na hiz inkonszientearenak) (19). Freud-en ondoko textu honek argi izpirik emanen digu honi buruz.

> "Pero el super-yo no es simplemente un residuo de - las primeras elecciones de objeto del ello, sino tam bién una enérgica formación reactiva contra las mismas. Su relación con el yo no se limita a la advertencia: "Así -como el padre- debes ser", sino que - comprende también la prohibición: "Así -como el pa - dre- no debes ser" : no debes hacer todo lo que el - hace, pues hay algo que le está exclusivamente reser vado. Esta doble faz del ideal del yo depende de su anterior participación en la represión del complejo de Edipo, e incluso debe su génesis a tal represión. Este proceso no fue nada sencillo. Habiendo reconocido en los padres, especialmente en el padre, el - obstáculo puesto a la realización de los deseos inte grados en dicho complejo, tuvo que robustecerse el - yo para llevar a cabo su represión creando en sí mis

> mo tal obstáculo. La energía necesaria para ello tuvo que tomarla prestada del padre, préstamo que trae consigo importantísimas consecuencias. El super -yo conservará el carácter del padre, y cuanto mayores - fueron la intensidad del complejo de Edipo y la rapidez de su represión (bajo las influencias de la autoridad, la religión, la enseñanza y las lecturas) más severamente reinará después sobre el yo como conciencia moral, o quizá como sentimiento inconsciente de - culpabilidad" ("Das Ich und das Es" (Nia eta Zera delakoa)) (20).

d.- Topika berria

Zer esan nahi da guzti honekin? Hauxe esan nahi da, alegia, inkontzientearen edukia ez dela harrapakeria hutsa, aitaren hiltze eta amarekin bat egitea, hain zuzen ere; inkont - zientearen edukiak besterik ere erakusten digu: aitaren harrapakeriaz gainera, eta agian horrexegatik beragatik , beste instantzia bat hatzematen da, Niaren Ideala edo Super-Nia (Freudek bat egineratzen baititu biak) alegia. Honela bada, "Topika Berriaren" zentzua argituz doakigu. Kontziente eta inkontziente terminoek, edo, hobeki esatearren, beraiek aditzera ematen duten dialektikak, beste dialektika zehatzago bati uzten diote tokia, beren garrantzia horregatio galdu gabe, Nia, Super-nia edo Niaren ideala eta zera delakoen dialektika edo Topika Be - rria. Guztiz interesgarri deritzogu Gómez Pin-ek proposatzen duen topika honen interpretazioari, "hainbat texturen letra -

bortxatzen duen" arren, batez ere "mistiko ez den mintzo (diskurtso) bat ahal izanerazten" duelako, inkontzienteari buruzko "arrazoiez oinarrituriko mintzoa, alegia". Tamalez, espazioaren ezean batetik, eta gure proiektuari guztiz lotuta ez denez autorearen lanera jotzea ez dugu besterik proposatzen. (21)

Utz dezagun oraingoz Super-niaren dinamika Niarekiko eta itzul gaitezen lehen aitatzen genuen aitaren harrapakeriari darion dinamikara. Kastraziorik gabe gizabanakorik ez gizarterik ez zegoela genioen lehenago. Beste era batera formulatuko dugu arazoa orain. Aitaren erahiltzerik gabe eta amarekin bat egin nahi izaterik gabe sujetoa ez da sujeto bezala konstituitzen, bilakatzen. Baina, bestalde, sujetoak horrelakorik gaurkotuko balu (kontzientzian gaurkotuko eta gauzatuko) sujetoak sujeto izateari utziko luke eta gizarteak ere gizarte izateari. Desioa (dẽsir) inkontzientean kokatzen da derrigorrez, aitaren hil nahi izate horrek (= amarekin bat egin nahi izate horrek , desioaren bi mazela berezgaitzak) inkontzientean kokatu eta - etzan behar du. Hau da, "inkontzientean gertakizuna etengabe suertatzen da (ez dio egiaztatzeari uzten), zeina baztertu balitz giza ordena baten emergentziaren ahal izateko baldintza - bilakatuko bailitzateke, hau da: "gizartearen ahal izateko baldintza eta gizabanakoaren ahal izateko baldintza aldi berean" (22).

e.- Edipoa bere kontzeptuan

Halarik ere, eskema hau ankaz gora suertatzen zaigu, kontzepzio biologikoari konfrontatzen gatzaizkionean. Sarri -

tan aipatu dugu hau, baina zehatz dezagun orain baieztapen honen zera. Biologiaren eremuan aita akatuko balitz eta amare - kin bat egingo balitz, sujetoak ez luke sujeto izateari utziko ez eta gizarteak gizarte izateari. Zer adierazten du, bada, - aita hitzak, ama hitzak, seme-alabak hitzak, zer esan nahi dute terminook. Dakusagun, beraz, "Edipoa bere kontzeptuan", - hauxe baita El Reino de las leyes aipaturiko liburuaren kapitulu guztiz nuklear baten izenburua. (Loc. cit. 63-74 or.). Diogun, ohar gisa, gaztelaniaz nahiz frantsesez, "hijo"/"fils" - zentzu neutro batez erabiltzen direla; ez naiz esatera ausartuko erabilpen neutro hori zilegi denentz, baina bai oharrerazi-ko bederen euskaraz "seme" hitzak konotazio oso konkretuak dituela, alegia, arra adierazten duela eta ez emea. "Alaba" terminoak, bestalde, emea ematen du aditzera, ez besterik. Erdaraz idazten ez dudanez, ez naiz erdararen arazoetan sartuko - oraingoz, baina euskarari dagokionez zera erranen dugu: seme - hitzari zentzu neutro bat (hots, bereiztasunik gabea, arra na - hiz emea adieraziko zukeelarik) eman nahi izateari guztiz kaltegarri deritzot. Arrazoi bat dugu horretarako, euskarak, euskara biziak (hots, egun mintzatzen den euskarak) mendez mende, euskalkiz euskalki, hizketaz hizketa honotazio hori(semea-arra alaba-emea) gorde duelako eta iraunerazi. Euskarak hiztegi na hiz estruktura mailan makina mailegu hartu duen arren, hizkuntza heldu baten (izan ote daiteke heldua ez den hizkuntzarik?) gorputza gorde du eta garatu, bai baitira zenbait muga hizkuntzak ezin apur litzakeenak hizkuntza kolokan jarri gabe. Seme eta alaba hitzek gorde dituzten eremu eta zehaztasun semantikoak muga horietariko direlateke. Sexu genitalaren gaindiko"hijo"/"fils" delakoaren funtzioa adierazi nahiko dugunean, beti

ere, "seme-alaba" idatziko dugu. Ohartxo hau egin ondoren, goazen bada Edipoa bere kontzeptuan aztertzera.

f.- Bilogikoak sozialari uzten dio tokia

Gizarte "primitiboen" azterketak zera hau frogatzen digu, inzestoaren debekuari dagokionez, eta jeneralean, ahaidetasunarekiko normatibitateari dagokionez, normatibatzeko eri pideak ez direla biologikoak, sinbolikoak baizik, sozialak gizartezkoak. Ezaguna da, batetik, adopzioak jokatzen duen papera gizarte horietan. Ahaidetasunezko harremanak, erlazioak, adopzioak eraginik diren arren, intzestuaren debekuak irauten du, normatibitatea mantentzen da. Lévi-Strauss-ek, puntu honi dagokiola, Hose eta McDougall-en ikerketa-lan baten zita transkrib tzendu:

> "Quant aux sactions sociales, elles sont si peu fondées sur des considérations physiologiques que, chez les Kenyah et les Kayan de Bornéo, qui condamment le mariage avec la mere, la soeur, la fille, la soeur de pere ou de la mere, et la fille du frere ou de la soeur, "dans le cas des femmes qui se trouvent vis-á-vis du sujet dans la même relation de parenté, mais par adoption, ces interdictions, et les chatiments que les sanctionnent, sont -si c'est possible- encore plus severement appliquées". (Les structures élémentaires.... 16 or.).

Adierazgarriago bide dugu hirugarren kapitulua irekitzen duen pasartea:

"Si la racine de la prohibition de l'inceste est dans la nature, ce n'est pas jamais, cependant, que par son terme, c'est-a-dire comme règle sociale, que nous pouvons l'appréhender. D'un groupe a l'autre elle témoigne d'une extreme diversité, tant en ce qui concerne sa forme que son champ d'application. Très restreinte dans notre société, elle raffine les degrés de parenté les plus éloignés dans certaines tribus nor-américaines. Inutiles d'ajouter que, dans ce dernier cas, elle frappe moins la consaguinité réelle, souvent imposible a établir, quand meme elle n'existe pas, que le phénomene purement social par lequel deux individus sans parenté véritable se trouvent rangés dans la classe des "frères", ou des "soeurs", des "parents" ou des "enfants" " (Loc. cit.34 or.).

Baina indibiduo batek ez dio "aita" deitzen egiazko (sortu duen, hobeki esateagatik) aitari soilik, ez eta aitatzakoari soilik, baizik eta bere amarekin ezkon zitezkeen (tribuaren araudiaren arabera) guztiei. Berdin "amari" dagokionez; baita halaber "anaiari" eta "nebari" dagokionez edo "arreba" eta "ahizpari". Esan gabe doa Freud-ek oso kontutan duela aspektu hau, zeina ezplizitoki aitatzen baitu behin baino gehiagotan bere obran zehar, eta bereziki Totem eta Tabu delakoan. Ediporen kontzeptuan sartuz goaz dagoenekoz. Aitak, beraz, eta hasteko, niri galerazita zaidan horrekin bat egin daitekeen oro, legearen arabera, ematen du aditzera. Bestalde, primitibo totemikoak bere totemarekin identifikatzen du. Totema bere

identitatea bilakatzen delarik, bere izena, ama biologikoak - transmititzen diona, baina transmisio honetan agortzen ez dena ama izen hori daramaten guztiak baitira. Nire izena, beraz, - bitan banaturik (eszinditurik) dago ("bitan bederen" azpimarka tuko du Gómez Pin-ek; Loc. cit. 65 or.) : ni eta ama biologi - koa. Eta nire izena neure identitatea denez, neure identita - tea bera nigandik dago bereizturik, ama izena zatiturik dagoen adina zatitan. Legez, aitak nere identitate propiotik bereiz- turik dagoen polora du sarrera. Hau da, eta kasu, aitak, nik neure buruarekin dudan identitatera, neuri galerazita zaidan - arren (horrexegatik beragatik ez ote), du sarrera. "En ley, padre tiene acceso al polo de mi propia identidad de mí escin- dido. El padre tiene acceso a la unidad conmigo mismo a mí ve dada. Padre es la propia veda y el goze por otro de mi unidad conmigo mismo, de la plenitud de mi ser (nire izatearen beteta suna)" (Loc. cit. 65 or.) Ezin uka terminologia honi darion hegeliar kutsua. Izan ere, horixe baita autore honen xedea : inkontzientearen kategoriak "Logikaren Zientziaren"-ren katego goriekin ekartzea, elkar-irakurketa bat posibilitatuz eta fro- gatuz. Ez gara geu lantxo honetan proiektu honetaz mintzatuko (nahiz, lanaren xedeak berak proiektu horren oihartzunik jaso duen eta barreiatu) ezpaziorik ezean; baina gera bedi aipame- na behintzat.

g.- Sexualitatea eta instintua elkarren kontra

Aita, beraz, nire gabeziaren (bereizketa, haustura,- kastrazio, desioaren) beharrezko baldintza dut, "baldintza de rrigorrezko eta nahikoa", Leibniz-en esaeraz baliatzearren. -

Baina, aitaren funtzioak tribu totemikoetatik hona aldakuntza inportant bat ezagutu du: aita, jatorriz beste totemaren zabalerarekin koinziditzen duena, progenitorearengan partikulariza tuko da. Aita kontzeptua beraz espezieari subordinatu zaio, - bere mende jarri da, animalizatu egin da. Ondorioa ez da zaila: giza aita (zentzurik beteenean, eta hertsienean) abandonaturik suertatzen da, espeziearen aitaren onerako, espeziearen beraren onerako ez ote . Ordena biologikoak, honela, desioa - ren instrumentalizazio eta posibilitatzea eragiten ditu.

> "El orden biológico, posibilita y quizá hace inevitable una instrumentalización del deseo. Aunque entre el orden biológico y el orden del deseo existiera - una complicidad originaria, ello no sería óbice para que el concepto del deseo pueda ser depurado de toda relación a lo biológico; el concepto al menos, si no se hallan como tales al servicio de la especie que - tiende a autoconservarse. Posibilitan un orden que nos atrevemos a llamar social, e incluso propiamente sexual, desde el momento en que Freud se negó a circunscribir lo sexual a la dimensión genital, es de - cir, a su instrumentalización por lo específico"(Loc. cit. 67 or.)

Esan gabe doa Freud-en ustetan, eta berorrez geroztik psikoanalisia aintzat hartu duen ororen ustez, sexualitatea eta instintua elkarren kontra daudela, kontrajarriak. Sexualitateak desioa ematen baitu aditzera, sujetuaren identitateak beharrezko duen amarekin-bat-ez-egite hori baita desioa -

subertitu nahi duena, amarekin bat eginez, desioa beteaz. Baldin iraupenerako instinturik badago, amarekin bat ez egitearena dateke horietariko bat. Sexualitateak, aldiz, instintuaren kontra jotzen du. Instintu ororen kontra? Iraupenerako instintu ororen kontra bederen bai. Desioa, lehenago genionez, inkontzientean suertatzen da. Kontzienteak baztertu egiten du desioa, erreprimitu egiten du.

Sexualitatea egoera edipikoaren proiekzioa da, beraz. Baina Edipoak mintzamena esijitzen du, hizkuntzaren ordena, estruktura. Ezin hizkuntzaz baizik Ediporen berri eman. Zein dugu mintzamenaren ordena? Edota, orrialde batzu lehenago galdetzen genuenez, zein legeri erantzuten dio mintzoak, eta zeini mintzo hautsiak? Psikoanalizatuaren mintzoaren azterketa sakon batek ("De quelle oreille convient-il écouter" Serge Leclaire-ren "Psychanalyser" liburuaren kapitulu bikainak argiro erakusten duenez) lagunduko gaitu -laguntza hobeagorik ba ote eginkizun honetan-.

III.- Mintzamenaren egitura baten bila: Lacan, Lévi-Strauss, Jakobson, Benveniste

> "Et comment même un psychanalyste d'aujourd'hui ne s'y sentirait-il pas venu, à toucher à la parole, quand son expérience en reçoit son instrument, son cadre, son matériel et jusqu'au bruit de fons de ses incertitudes?... au-dela de cette parole, c'est toute une structure de langage que l'expérience psycha-

> nalytique découvre dans l'inconscient... Nous désignons par lettre ce support matériel que le discours concret emprunte au langage. Cette simple définition suppose que le langage ne se confond pas avec les diverses fonctions somatiques et psiquiques qui le desservent chez le sujet parlant... Le sujet aussi bien, s'il peut paraître serf du langage, l'est plus encore d'un discours dans le mouvement universel duquel sa place est déjà inscrite a sa naissance ne serait-ce que sous la forme de son nom prope" Lacan. L'instance de la lettre dans l'inconscient, in Ecrits, 495 or.

a.- Hitzaren efektoak

Hona hamen nola Lacan-ek karakterizatzen duen psikoanalistaren egizkizunik beharrezkoenetarikoa. "Letraren instantzia inkontzientean" ematen dio izenburutzat Sorbonan 1957an emandako hitzaldiari (filosofia ikasle talde batek eskaturikoa), eta honela zehazten du berehalaxe : "edo Freud-ez geroztiko arrazoia". Hauxe dugu Lacan-en proiektua. Mintzamena ez da zerbait abstraktoa, bizitzarik gabea, ondorio, efekto, emankortasun, dinamika, mugimendurik gabea. Mintzaira hizketa da (parole), mintzoa (discours), Bestearen mintzoa egitura adierazleak (significante) bideraturik eta izkutatu-estalirik. Psikoanalista nola psikoanalizatua mintzairaz baliatzen dira, ez dute beste bitartekorik ez beste tresnarik, lan honen hasieran genioen gurpil zoroan eroriak ziratekeen (bata zein bestea) -

-aditzera eman nahi duteneko berorretaz baliatzen baitira- pazientearen mintzoak, lapsus, amets, txiste eta abarren bidez, hutsune batzu, zulo batzu erakutsiko ez balitu, pazientearen - mintzoak beste instantzia baten mintzoa agerreraziko ez balu , urgaineraziko. Zulo, hutsune horiek hots egiten baitigute, - oharterazten bai gaituzte kontzientziak dagien mintzoari beste mintzo (eta, beraz, beste belarriak behar) bat dario, zeina lehenengoaz aditzera emanen baitio, eta beroni esker soilik lehenengoa ulertuko eta kokatuko. Inkontzientea hizkuntza bat bezala egituratzen dela esateak zera eman nahi du aditzera, in - kontzientea, hain zuzen ere, hizketa (parole)-ren efektoak sujetoarengan direla, eta dimentsio horretan sujetoa sujeto beza la determinatzen da. Sujetoaren baitan suertatzen diren hizketa horren efektoak ditugu beraz inkontzientearen eremuari da - txekion edukia.

> "L'inconscient, ce sont les effets de la parole sur - le sujet, c'est la dimension où se détermine dans le développement des effets de la parole en suite de - quoi l'inconscient est structuré comme un langage".- (Lacan. Les quatre concepts fondamentales de la psychanalyse, 137 or.)

b.- Adierazlearen nagusitasuna

Orain, sujeto honek, hizketaren efektoen garapenean determinatzen delarik, zer funtzio betetzen du? Adierazlearen funtzioa, hain zuzen ere; sujetua markaturik baitago, menekota sun edo dependentzia adierazle batek markaturik, bideraturik,-

zuzendurik, beterik. Psikoanalisiak, sujetoaren konstituzioaren berri eman nahirik, lantxo honen hasieran genionez, sujetoaren berri eman nahi du, baina Freud-ek instauraturiko iraultza epistemologikoari bere ondorio guztiak atereaz, hots, sujetoaren iraultza eginez, sujetoaren subertsioa (la subversion du sujet) gauzatu nahirik eta egiaztatu. Eta zertan datza iraulketa hau adierazle / adierazi dialektikaren iraulketa ez bada? Izan ere, hortxe kokatzen da Freud-en aurkikunderik eman korrena, Lacan-ek explizitatu, ageri-agerian ipini, sakondu eta desarroilatu duena, alegia, orain arte (Freud arte) adierazle/adierazi dikotomian adieraziaren nagusigoa azpimarkatzen bazen, hots, adieraziari lehentasuna emanaz erabakitzen bazen auzia, Freud-ez geroz gauzak goitik behera aldatuko dira, adierazleari eman baizaio nagusitasuna, adierazlearen afuntzioak gailenduko baitu.

> "La psychanalyse n'est ni une Weltanschauung (muduikuskera), ni une philosophie qui prétend donner la clé de l'univers. Elle est commandée par une visée particuliere, qui est historiquement définie par l'élaboration de la notion de sujet. Elle pose cette notion de façon nouvelle, en reconduisant le sujet a sa dépendence signifiante (....) La psychanalyse, donc, nous rappelle que les faits de la psychologie humaine ne sauraient se concevoir en labsence de la fonction du sujet défini comme l'effet du signifiant"(Lacan, Loc. cit. 73, 188 or.)

Hizketaren (mintzaira beraren) funtzio eta efekto adierazlea, beraz. Sujetoa funtzio adierazle honek zerturik, determinaturik. Adierazlearen nagusigoa azpimarkatzen da. Sujetoaren konstituzioak, honela, ezingo luke funtzio (eta oinharri) hau guttiets (méconnaître).

Freud-en sujetoaren iraulketa aitatzen genuen gorago. Zein da iraulketa honen esangura, esanahia? Zein dugu subersio honen norainokoa? Adierazle/adierazi delako dialektikan adierazleari lehentasuna ematean, inkontzientearen lehentasuna azpimarkatzen da. Ez pentsa, haatik, lehentasun honek beste poloaren ukapena inplikatzen duenik, ez bailitzateke dialektikarik izanen bestela. Inkontzienteak ez dio kontzientearen ukapenik, ez du kontzientzia ukatzen. Inkontzientearen lehentasunak besterik dio: zirkulazio adierazle batek kontzientearen ildoak bustitzen dituela eta betetzen. Itzuliko gara puntu honetara geroago. Azpimarka dezagun orain arestian esandakoa, sujetoaren iraulketak ohizko eskemak apurtu egiten dituela. Or durarteko filosofian sujetoaren subjetibitatea "ezaguerazko sujetoan" oinarritzen zen. Objetibitatea ezin hatzeman zitekeen sujetoak "ezarritakoari" tokirik eman gabe. Sujetoa goratzen zen, baina ezaguerazko sujeto bezala. Freud-en iraultzak aurrerago, eta hondorago beraz, -hondoa eta azala ezin eta non dire inork ez dakikeelarik-, jotzen du. Freud-ez geroz sujetoak zatiturik, berariturik arkituko du bere burua; areago, zatikea hori, haustura hori sujetoaren konstitutibotzat ezagutaraziko da; sujetoaren identitateak sujetoaren beraren haustuan hartuko du oin, identitatea ez-identitate bezala agertuko

da, ez identitatearen ukapena, baizik eta ez-identitatearen na gusigoa, diferentzia hutsaren dialektika bortitzean. Ikusten denez kategoria hegeliarrak "nahi gabe" datozkigu ahora.

Hona hemen Moustafa Safouan-ek dagien karakterizazioa Freud-en iraulketari buruz sujetoarekiko:

> "Il importe que nous prenions içi la mesure exacte - de ce que la vue freudienne implique d'une contestation de la réalité jamais égalée par aucun systeme - philosophique (gu geu, halare, ez ginateke horrelako rik esatera ausartuko, ezta beharrik ere, Freud-i - zor zaion tokia emateko ez baita neurrigabeko apologiara jo beharrik, hain zuzen ere). Cette contestation ne s'arrête pas à la double subjectivation à la quelle Freud soumet la réalité, en faisant fonctio - nner lesorganes sensoriels à la fois comme "tamis" - et comme "écrans"; elle ne s'arrête pas non plus à l'assignation de la mesure de la réalité au sujet,au sens du sujet de la connaissance, ou à la noese -solution de confort qui viendrait a apprivoiser cette réalité plutôt qu'a la contester.
>
> Le ressort de la contestation gît dans la toute-puissance (hemen ere kalifikatiboak neurriz kanpora jotzen du, gure ustez) de la représentation, en tant - que Freud, anoue l'affirmation de la suprématie principielle du processus primaire, arrache la représentation à la fonction de connaissance qui était tradi

tionnellement la sienne, pour en faire le pâle incube de la relation au monde" (Le structuralisme en psychanalyse, 36 or.)

c.- Mintzamena eta inkontzientea: Ametsaren hizkuntzaren mintzoa

Inkontzientearen arkikundeak zera inplikatzen du: "Ba al daki sujetoak zer egiten duen mintzatzen denean" galderari Freud-ek ezetz ihardesten digu. Sujetoak ezin baitu aldi berean bere burua adierazi eta bere adierazpeneko egintza bera adierazi, mintzamenaren mailan beti baitago zerbait kontzientziatik landa dagoena, non desioaren funtzioa koka baitaiteke (Loc. cit. 32 or.) Kontzientzia eta inkontzientea, beraz, ez dira "compartimentos estancos" deritzenak, aitzitik ere, elkar suposatzen dute, inplikatzen dute. Bestalde, inkontzientean desioaren dinamika kokatzen da eta garatzen. Ametsaren hizkuntzak desio honen aditzera ematen digu. Zehatzago esatearren, ametsa desioaren burutzapena (réalisation du désir). Baina lehenik, burutzapen honek ez du desioaren egia (aitaren erahiltze eta amarekin bat egin nahi ezatea) ezagutzen, ez du desioaren berraurkezpena (Vorstellung/répresentation) ezagutzen, sujetoak guztiz ignoratzen baitu, areago, haluzinapen honi beroni esker, eta ez bestela, ezagutu ahal izanen da desioaren errepresentazioa. Baina, ezagutza hau "gero" suertatuko da, "après coup", "con posterioridad", "Nachtraglichkeit", Freudek dioen bezala, Desioaren burutzapen haluzinatzailea, batetik eta desioaren egia jakinaren azpian, bestetik. Bi alderdiotan kokatzen da prozesu primarioa, Safouanek aipaturiko textuan

"processus primaire", Lacan-en terminologiaz baliatuz, izendatzen zuena. (Loc. cit. 32 or. et hur.)

Inkontzientearen mintzoak dagi. "Zalantzatan nago,- beraz mintzoak dagi". Ezin lantxo honetan Descartes-en "zalantza metodikoaz" ari. Diogun, halare, Lacan eta Gomez Pin-ek - sakonki ekin diotela auzi honi Freud-en eskutik, "ni" kartesiarraren inplikazioak (eta kontradikzioak) maisuki aztertuz.(23) Baina non/zer mintzatzen da inkon zientean, nork/zerk adierazten du bere burua? Ametsan, beste instantzia batek hitz egingo du, Besteak (L'Autre/Lo otro) egingo du hitz, aideraziko du bere burua. "Bestea" diogu ez "bestea(k)". Dans le rêve - c'est L'Autre qui parle esanen digu Lacan-ek behin eta berriz. Orain, eta hemen datza azpimarkagarriena gure proiektuarekiko, ametsaren hizkuntzak, psikoanalizatuaren mintzoak mintzamena - ren legeen arabera funtzionatzen du. Zeintzu dira legeok? Horixe da aurrerantzean argitzen ahaleginduko garena.

d.- Adierazle/adierazi deituaren dialektika. Zeinuaren arbitrarietatearen auzia

Itzul gaitezen bada adierazle/adierazi dialektikara.- Adierazlearen nagusitasuna, lehentasuna azpimarkatzen genuen . Zerbait gehiago ere ikustarazten genuen, alegia, adierazlearen nagusigoak adierazlea oin-harritzat hartzea adierazten duela.- Jo dezagun aurrera, baieztapenok argituz eta sakonduz, diogun, lehenik, orain arte esandako guztiarekin lotura bat agerreraztearren, jerarkia aldakuntza (iraulketa) hau inkontzientean - suertatzen dela, areago, inkontzientearen dinamikari berari da

gokiola, datxekiola, berezko zaiola. Jerarkia diogu, baina no la ulertu behar da hau? Zer adierazten dute "adierazle/adiera zi" termino, "errealitate" hauek?.

$\frac{S}{s}$ algoritmoa dugu, jakina denez, Hizkuntzalaritza mo dernoak (zientifikoak) aztergai nagusitzat jo duen paradigma.- Ferdinand de Saussure-rekin hasi eta gaur arte etengabe (hain bat "Chomskyarrek" besterik dioen arren) garatu da hizkuntzari tza. Dialektika honetan oinarritzen da zeinu linguistikoa. - Zeinua, Saussure-ez geroztik eta berak esatera, "le total ré - sultant de l'asocitation d'un signifiant et d'un signifié"bai- ta, adierazle eta adierazi bana elkartzeari dagokion baterakun tza, hain zuzen ere. Adierazlea zeinuaren imajina akustikoa - dateke; adierazia, aldiz, zeinuak adierazitako kontzeptua duke gu. Diogun bidenabar bereizketa beretsuan, grosso modo, oina- rritzen duela kontzientziaren mintzoaren funtzionamendua Freud -ek: hitz-berraurkezpenak (Wortvorstellungen) batetik eta, - gauza-berraurkezpenak (Dinvorstellungen) bestetik, Izan ere, - Freud-ek ongi bereizturik utzi nahi ditu hitz-berraurkezpenak eta gauza-berraurkezpenak osatzen (eta aditzera ematen) duten eremu diferenteak. Mintzo kontzientea diskurtso inkontziente- tik bereizten bada, kontzientzian gorago esandako bereizketa - aurrez aurretik ematen delako da, inkontzientean hitz-errepre- sentazioak eta gauza-errepresentapenak ez baitira bereizten. - Geroago itzuliko gara puntu honetara. Bego oraingoz bederen - aipamena. Zeinu linguistikoa, lehentxeago genionez, beraz, - adierazleak eta adieraziak elkar baturik osatzen dutena dugu . Laguna diogunean, honela, adierazlea/laguna/imajina akustikoa

genuke; adierazia "laguna" kontzeptua, aldiz. Zeinua aitatzerakoan "zeinuaren arbitrarietatearen" auzia datorkigu berehalaxe gogora (24).

e.- Hizkuntzaren artikulazio bikoitza

Adierazlea eta adierazia bereiztuko ditugu. Baina zerk bereiztuta? Ez da kasualidadez hain zuzen, algoritmoa irudiztatzerakoan S-ren eta s-ren artean langa (barrera) bat ezartzen genuela, ezen bereizturik baldin badaude, adierazkuntzari, esangurari jarkitzen zaion barrera batek bereiztuta daudelako lehenik. $\frac{S}{s}$ algoritmoak adierazlearen funtzio hutsa baino ez du adierazten.

Algoritmoak, beraz, adierazlearen funtzio hutsa denez, adierazlearen egitura bera agerreraziko digu: artikulapena, hau da, adierazlearen estruktura artikulazioan datza, hizkuntzalaritza makina biderretan frogatu eta egiaztatu duenez. Dakusagun zertan datzan artikulazio hau: Martinet dukegu alor honetan auzia hobekien eta garbiroen azaldu diguna. "La linguistique synchronique" eta "Eléments de linguistique générale" izeneko obra preziagarrietan sakonki aztertzen du gaia.

f.- Zeinu linguistikoa. Artikulazio sintaktiko eta fonologikoa

Martinet-entzat, deskribaketa linguistikoaren osagaiak aztertzean, ohizko erizpideen kontra jokatuz, mintzamenaren errealitatea posible bada fenomeno guztiz funtsezko bati esker da: artikulazio bikoitza, mintzamenaren (eta beraz, hiz-

kuntza ororen) artikulazio bikoitzaren fenomenoa. Martinet-ek ongi jasotzen du hizkuntzalaritza modernoan emandako bi pauso inportanteenak (eta sakonenak): Saussure-k batetik, hatzematuriko I.- artikulazio sintaktikoa; eta bestetik, Jakobson-ek - aurkituriko artikulazio fonologikoa. Saussure-ri esker, eta - geroztik hizkuntzalaritza estrukturalaren oin-harria bilakatu eta mantendu dena, hizkuntza sistema bat bezala ulertzen dugu, hatzematen dugu. Eta sistema bat ezen bere elementuak orok elkar suposatzen dutelako, areago, ezein elementuk, bere horretan harturik, baliorik ez duelako hain zuzen ere. Hizkuntzaren mintzoan elementu bakoitzak hartzen du bere balioa besteelementuekiko dukeen diferentziagatik. Orain, Martinet-ek Saussure-ren arkikunde hau mailegatuko du "aukera" edo "hautaketa" nazioari indar berri bat emanaz: "choix" izeneko nozioa. Hizkuntza bat deskribatzea (gure terminoak erabiltzearren... hizkuntza baten ahal izateko baldintzak hatzematea) hiztunak daraBiltzan aukeren multzoa deskribatzea da, hiztunkideak berrezagut dezakeelarik. "Nik zuri liburu bat eman dizut" badiot, - diskurtso-zati hau elementu andana batetan banatzen da, sei - elementutan kasu honetan. (Ez gara hemen sei ala gehiago ez - ote daitezkeenentz zilegi litezkeenentz, alegia). "Nik" aukeratu beharrean, "hark" aukera nezakeen, edo "guk", "haiek",eta abar. Edota, hobeki esatearren, "Nik" aukeratu dut, "hark", - "guk" eta "haiek" aukeratu ez ditudalako, aukeratze hori guztiz zilegi eta ahalgarri bazitzaidan ere eta jakinaren gainean egon, ni neu eta esaldi hori zuzendu diodan hiztunkidea ere. - Prozedura bera egin genezake gainontzeko diskurtso-zatiaren - elementuekin. Honaino artikulazio sintaktikoari (edo "lehen -

artikulazioari") dagokiona. Bigarrenari dagokionez, diogun lehen lehenik Jakobson-ek egindako fonemen deskonposaketan oinarritzen dela. Ordurarte, fonemak ezin bereiz, ezin bana zitez keela uste ohi genuen, atomoa ezin bereiz zitekeela uste ohi zen bezalaxe, besterik frogatu arte mende honen hasieran. Ez gara luzatuko hemen arkikunde honen garrantziaz eta beronen inplikazioaz hizkuntzalaritza eta hizkuntzalaritza ez diren beste zientzia askorekiko (psikoanalisiarekiko gure kasuan). Diogun dena den zientziari askok fonemaren deskonposaketa horiatomoarenak izan duen garrantzi bezanbatekoa eritzi diola. Martinet-ek unitate distintibo edo bereizleen aukerez hitz eginen digu kasu honetan. Lehenago "nik" eta ez "hark"... aukeratu badut, unitate adierazkorren aukera batetan oinarritu naizelako izan da. Orain, "nik"ren "n" aukeratu badut ez da esangura ko borondate zuzenagatik ezan, baizik eta "nik""hark"-tik bereizteko eskatzen duen "n/h" aldaketagatik, aldaketa honek, -noski, esangurarekiko aldaketa erakarriko du, zeharki eraka rria.

Prozesu honetan Martinet-ek artikulazio bat ikusiko du, bigarren artikulazioa. Aukera minimoak suertatzen direlako, "n"-rena gertatu den bezalaxe, batetik, eta fonemen aukeraok segmento handiagoen (goragoko mailakoena) oinarria direla ko, bestetik. Hauxe dugu artikulazio fonologikoa. Saussureren sistema kontzeptua errebisaturik aurkitzen da beraz, eta , horrexegatik beragatik, indarturik eta sakondurik.

g.- "Letraren instantzia inkontzientean"

"Or la structure du signifiant est, comme on le dit communément du langage, qu'il soit articulé.

Ceci veut dire que ses unités.... sont soumises à - la double condition de se réduire à des éléments différentiels derniers (fonema deskonposaketa) et de les composer selon les lois d'un ordre fermé (artikulazio sintaktikoaren aukerak).

Ces éléments, découverte décisive de la linguistique sont les phonemes où il ne faut pas chercher aucune constance phonétique dans la variabilité modulatoire où s'applique ce terme, mais le systeme sychronique des couplages différentiels, nécessaires au discernement des vocables dans une langue donnée. Par quoi l'on voit qu'un élément essentiel de la parole elle-meme était prédestiné à se couler dans les caracteres mobiles qui... présentifient valablement - ce que nous appelons la letre à savoir la structure essentiellement localisée du signifiant.

Avec la seconde propiété du signifiant de se composer selon les lois d'un ordre fermé, s'affirme la - necessité du subtrat topologique dont le terme de - chaine signifiante dont j'use d'ordinnaire donne - une approximation: anneaux dont le collier se sce - lle dans l'anneau d'un autre collier fait d'anneaux" (Lacan. "L'instance de la lettre dans l'inconscient" in Ecrits 501-502 or.)

Komeni da texto hau sarreratzeaz gainera gehixeago aztertzea. Lehen lehenik Lacan-ek signifiant-aren egitura - eta mintzamenarena (langage) bat etorrerazten ditu, identifikatzen ditu. Eta beraz, mintzamenaren egitura artikulazioan datzanez, adierazlearena ere artikulazio bikoitz horretan - etzanen da halaber. Artikulazio bikoitz honen zentzua, tex - tuari eginiko sarreran argi utzi dugunez, honela ulertu behar da: mintzaira bezala, adierazlea ere "azken elementu diferentzialetan" banatuko da, bereiztuko da. Jakobson-ek hatzematuriko fonemak hain zuzen ere. Bestalde, mintzaira bezala orain ere, adierazlearen unitateak ordena hertsi eta itxi (euskaraz, jakina denez, hertsi-k bi zentzu dituzke: "gogor", "erriguroso"... eta "itxi", atea "ixten" den bazalaxe) baten le - geen arabera konposatzen dira.

Baina badago besterik Lacan-en ustez. Hirugarren - pasartean, fonemen deskonposaketaren karakterizazio zehatza - (eta zuzena) eskeintzen digu, Jakobson-en arkikundea fonemen bereizkuntza fisiko (hots, fonetiko hutsa, "aldakortasun modulatorioa") hutsera mugatu izan balitz, gauzak ez zukeen ukan duen txalapartarik izan. Egun, Jakobson en garaian bezalaxe, edozein espektrografok aixe hatzematen diguna. Hizkuntzalari ospetsu honek arkitu zuena besterik dugu, alegia, fonemak bereiz daitezkeela elkarketa adierazkorren sistema sinkroniko - baten poderioz, elkarketa adierazkor diferentzialak izaki. Ez gara hemen hasiko, elkarketa honek proposatzen dituen fonemen oposizioen sailkapena guztiz egoki den ala ez, ezen sailkapen hori kritikagarri bada ere eta are oposizioaren kontzeptua -

ere, arkikundea mamian, funtsean mantentzen da eta agerrerazten du bere emankortasuna. Kritika hauek, direna diren, Gómez Pin-en Ciencia de la Lógica, Lógica del Sueño lanean aurki daitezke, bertan Javier Etxeberria-ren lan interesgarri bat azaltzen delarik, fonemen oposizioen sailkapenari dagokiola (25). Autoreon kritikari onerizten diot. Kritika honen azalpen zabalik egin nuen joan den urteko Udako Euskal Unibertsitatean (1980) mintegi batetan. Esan gabe doa kritika honetan datzala linguistika estrukturalari egin dakiokeen oharra, hizkuntzalaritza honek dukeen "totalismoaren" kontrako zen tzuan.

> "Trascender el lenguaje y sin embargo seguir insertos en la lógica... promesa hegeliana frente al totalitarismo linguístico, para el cual fuera del fonema queda simplemente el caos" (Loc. cit. 93 or.).

h.- Elementuren predestinazioaz

Eta jarraitzen du Lacan-ek: "horregatik ikusten da hizketan beronetan guztiz esentziala den elementu bat predestinatua zegoela ezaugarri mugikorrei jarioa izateko, zeinek (ezaugarri mugikor hauek) "letra" deritzoguna baliagarriki aurkeztarazten baitute, hots adierazlearen egitura esentzialki kokatuta". Predestinatuta hitza azpimarkatu egin dugu. Ja kobson eta Saussure-ren ohiartzuna entzuten da pasarte hauozenki irakurtzean. Inkontzientean bezala, mintzamenean ere predisposizioak uste dugun baino ugariago dirateke. Puntu hau garbiro ikusteko transkriba ditzagun bi hizkuntzalari eza

gun horien texto bana:

> "El significante elegido por la lengua tampoco po - dría ser reemplazado por otro. Este hecho, que parece envolver una contradicción (eta gure ustez bai darakarrela kontraesan bat, zeinuaren arbitrarietatea zalantzatan -mugatan- jartzen delarik, Benvenis te, Lacan eta Pin-ek -nork bere ikuspegitik- frogatu dutenez), podría llamarse familiarmente la carta forzada. Se dice a la lengua "elige", pero añadiendo: "será ese signo y no algún otro". Saussure.(26)

> "Mais le probleme essentiel pour l'analyse du dis - cours est celui du code commun a l'émetteur et au - receveur et sousjancent à lécange des messages. Tou te communication serait impossible en l'absence - d'un certain répertoire de "possibilités préconçues ou de "représentations préfabriquées", comme disent les ingénieurs de communications et notamment Mac - Kay (....) D'après Mackay le mot-clé de la théorie de la communication, c'est la notion des possibilités préconçues; la linguistique dit la même chose . L'ingénieur admet que l'émetteur et le receveur d'un message préfabriquées, et, de la même manière, la - linguistique saussurienne parle de la langue qui - rend possible l'échange de parole entre les interlo cuteurs. Un tel "ensemble de possibilités déjà pré vues et préparées" implique l'existence d'un code , et ce code est conçu par la théorie de la communica tion comme une "transformation convenue, habituelle

ment terme a terme et réversible" par le moyen de - laquelle un ensemble donné d'unités d'information - est converti en une séquence de phonemes et viceversa". Jakobson (27).

i.- Kate adierazlearen egitura

Lacan-en textura bueltatuz, beraz, laugarren pasartea aztertzea falta zaigu. Psikoanalistaren ustez artikulazio sintaktikoak substrato topologiko baten beharra baiezta - tzen digu, sustrato topologiko horren hurbiltzea "kate adie - razlean" genukeelarik. Zeinu linguistikoa, bada, kate adie - razlearen egituran oinarritzen da. Interesatzen zaiguna ez - baita zeinua bere horretan hiztegi batetan ager zitekeen beza la, baizik eta zeinuak aditzera ematen duen kate adierazlea , esangurarekiko debatea honela zeinutik kate adierazlera igaro tzen da. Kate adierazleak "zentzu efekto" bat sortzen du, - adierazleak irrist egiten duelarik adieraziaren gainean, edo hobeki esatearren adierazia labaintzen da etengabe adierazlearen azpitik. "La notion d'un glissement incessant du signifié sous le signifiant s'impose donc" esanen digu behin eta berriz Lacan-ek (L'instance... 502 or.)

Dakusagun orain arte adierazlearen estruktura honek deskribatzen duena. Estruktura honek zera de_kubritzen digu, alegia, hiztunak duen gaitasuna adierazteko (aditzera eman - eta adierazkuntza eskeini zentzu bikoitzean) ez kate adierazleak "dioena", guztiz beste zerbait baizik. Genero literario

guztiek landu dute, eta denak baliatu, funtzio hau, gaitasun hau: metonimia . Metonimia baita, metaforarekin batera, funtzio adierazlearen izena. Metonimia eta metafora "sont les deux versants du champ effectif que le signifiant constitue" esanen digu Lacan-ek orrialde batzu geroago (loc.cit. 505-506 or.). Diogun bidenabar maiz asko metonimia eta sinekdoke konfunditzen direla, ia sinonimotzat hartuz. Sinekdoke guretzat metonimiaren kasu partikular bat baizik ez da.

j.- Freud-en prozesu primarioaren mekanismoak eta Lacan/kobson-en hizkuntzaren efektorik bortitzenak

> "Les mécanismes décrits par Freud comme deux processus primaire, où l'inconscient trouve son régime , recouvrent exactement les fonctions que cette école (estrukturalismo linguistikoa; ikus zita osoa lantxo honetan, 24 or.) tient pour déterminer les versants les plus radicaux des effets du langage, nommément la métaphore et la métonymie, autrement dit les effets de substitution et de combination du signifiant dans les dimmensions retrospectivement syncronique et diachronique où ils apparaisent dans le discours" Loc. cit. in Ecrits 799-800 or.)

Hemen datza hain zuzen ere, lantxo honetan zehar makina bat bidez azpimarkatu duguna: inkontzientea mintzamena bezala egituratzen dela alegia. Falta zaigu orain determinatzea zein zentzutan ulertu behar den "les versants les plus -

radicaux des effets du langage..." kalifikazioa metonimia - eta metafora aipatzean. Puntu hau argitu ondoren besterik - ere gertatuko zaigu eginkizun: Inkontzientearen baitan koka- tu eta suertatzen den lehen mailako prozesu edo joanari prima rioaren mekanismoak aztertzea, adierazlearen "substituzio" - eta "konbinazio" oinarrizko operazioaz (eragiketak) ametsen - hizkuntzak dagitzanak berak ote direnetz galdetuz.

k.- Hizkuntzaren alderdi bi eta afasia moeta bi

Ba dago Jakobson-en lan bat, duen garrantziagatik - aipatzeak merezi duena, aipatzeaz gainera goratzea, bertan - ikus baitaiteke orrialde mugatuetan (hogeiren bat edo eskas), mintzamenaren azterketa bikaina eta guztiz egokia, bestalde, - gure beharretarako: "Deux aspects du langage et deux types - d'aphasies" (28). Bertan hizkuntzalariak afasien "hizkuntz - oztopo edo eragozoenak" ikertzeari ikiten dio. Baina, zerga- tik afasikoen hizkuntza (edo mintzamena) eta ez hiztun "nor - mal" batena? Oztopoetan, hots, hizkuntzaren atzera jotze ho - rretan mintzamenaren funtzionamendua (gabeziaren poderioz, ho nela mintzatzea zilegi bazait) biziago, primariago, esponta - neoago dukegulako... inkontzienteago(¡).... ametsetan, txis - teetan, lapsusetan bezalaxe. Freud-ek histerikoen traumak - ikertzean gizon-emakume orok dukegun trauma hatzeman zuen ha- laxe, neurotikoen diskurtsoa aztertzean gizaki orori datxe - kion diskurtsoaren legeak hatzeman zituen Jakobson-ek. Jakob son bera mintza bekigu:

> "Il y a un niveau de phénomenes d'aphasie où un remarquable accord a été obtenu au cours des vingts dernières années entre les psyquiatres et les linguistes qui se sont attaqués a ces questions: il s'agit de la désintégration du systême phonique. Cette dissolution présente un ordre temporel d'une grande régularité. La régression aphasique s'est révélée être un miroir de l'acquisition par l'enfant de sons du langage, elle nous montre le développement de l'enfant a l'envers. Plus encore, une comparaison du langage enfantin et de l'aphasie nous permet d'établir plusieurs lois d'implication. Cette recherche sur l'ordre des acquisitions et des pertes et sur les lois générales d'implication ne doit pas etre limitée au systeme phonologique, mais doit etre étendue au systéme grammatical" (Loc.cit. 45 or.)

Izan ere, Jakobson-ek ongi dioenez, eta zientziaren metodologiaren historiak sarritan frogatu duenez, afasiaren erregresioari esker haurraren mintzamenaren garapena argi asko ikus daiteke. Fenomeno baten eskasia edo gabeziak adierazgarriago erakuts diezaguke beronen funtzionamendua eta esangura, fenomeno horren aberastasunak baino. Diogun bidenabar Erich H. Lenneberg-en "mintzairaren oinarri biologikoak" obra guztiz aztergarria datekeela guzti honi buruz, bibliografia aberats eta on bat eskeintzen digularik autoreak.

Jakobson hizkuntzaren "ezaugarri edo jite bikoitzaz" mintzatuko zaigu gero. Esan gabe doa jite bikoitz honetaz

ari delarik geuk lehenago aitaturiko Martinet-en "artikulazio bikoitzaz" ari zaigula. Jakobson, halare, "artikulazio" kontzeptuari lotu baino "hautaketa" (selection) eta "konbinaketa" (combination/combinaison) nozioei atxikitzen zaie. Hitz egiteak, Jakobson-entzat, zenbait entitate linguistikoren hautaketa inplikatzen du eta beraien konbinaketa konplexitate ge - hiagoko unitatean. Egia esan, Jakobson eta Martinet-en kontzeptuen artean hitz diferentziaz gainera mamiarekikoa ere badagokeela. Dena den, gure proiekturako ez du honek inportantzia handiegirik.

> "Tout signe linguistique inplique deux modes d'arrengement.
>
> I.- La combinasion. Tout signe est composé de signes constituants et/ou apparaît en combinasion avec des autres signes. Cela signifie que toute unité - simples et/ou trouve son prope contexte dans une - unité plus complexe. D'où il se suit que tout - assemblage effectif d'unités linguistiques les re - lie dans une unité supérieure: combinasion et con - texture sont les deux faces d'une meme opération.
>
> 2.- La sélection. La sélection entre des termes alternatifs implique la possibilité de substituer - l'un des termes a l'autre, équivalent du premier - sous un aspect et différent sous un autre. En fait sélection et substitution sont les deux faces d'une meme opération" (Loc. cit. 48 or.)

Baina, textu hau ulertu (eta aztertu) beharra dago. Lerrook ukaezinezko garrantzi intralinguistikoaz bestalde (ez txikiena, apika) badukete besterik, beste mezurik. Lehen mailako irakurketa batek maila sakonago bateko irakurketa posibilitatu beharko digu. Dakusagun: Jakobson, lehen lehenik zeinu linguistikoaren "unibertsalaren" bila dabilkigu, eta dirudienez, berak esatera, aurkitu egin du. Ezin bestela uler - "zeinu linguistiko orok bi tajukera moeta inplikatzen ditu" - esaera. Honela beraz, geroago azalduko dizkigun tajukera - (arrangement) bi horiek zeinu linguistiko orok ezagutuko ditu eta beteko. Hau da, ez direla nola halako hizkuntz-zeinuaren ezaugarri edo jite aipagarriak, "hizkuntz-zeinu orok inplikatzen" dituenak baizik. Zer esan nahi dugu honekin? Esan nahi duguna zera da, alegia, lan honetan zehar mintzamenaren legeen bila gabiltza, lege horiek inkontzientearen diskurtsoak betetzen ote dituenentz egiaztatu nahirik; eta beraz, "konbinazio" eta "hautapen" lege biok egiaztatzen badira mintzamenaren lege unibertsalak bezala, batetik, eta inkontzientearen - mintzoarenak bezala ere, bestetik, "inkon zientea mintzamena bezala egituraturik dagoela" genioen hura, beraz, frogatuko - zaigu eta beronen egia argiro agertuko.

Zer ote da "konbinazio" eta "hautapen" zeinu linguistikoaren bi jiteon atzetik dagoena? Zer ulertu behar da konbinaziotzat eta hautapentzat, eremu intralinguistikoaz gain - di? garbi gera bedi, alderdi barne-linguistikoa ez dugula - gutxiesten ez eta beronen efektoak, aitzitik ere, efekto - hauek hain norainoko luze eta sakoneko diren non eremu lin -

guistiko hutsak "giza"-rekiko alorraren berri ematen baitigu, berau aditzera ematen ere "Deux aspects du langage et deux - types d'aphasies" idazlanean Jakobson-ek adierazi nahi duena zera da: afasia moeta inportant bi ("antzekotasunaren desordena"/"trouble de la similarité"; eta "ondokotasunaren desordena"/"trouble de la contiguité") aztertu ondoren, frogatzea desordena hauek direla afasiko guztietan suertatzen direnak gutxiago edo gehiagoko neurrian, batetik, eta bestetik, -orain dator garrantzitsuena- afasia hauetan eriak galtzen dituen - gaitasunak "hautapenerako" gaitasuna metaforarako ahalmena - egiaztatzen da, eta "konbinazioarako" gauzatasuna metonimiarako ahalmena ¡¡¡ Gogora har bedi berriro ere lehenago aitatzen genuen Lacan-en textua, orain bai guztiz argi eta adierazgarri gertatuko baitzaigu. Dakusagun prozesua gertuagotik.

I.- Antzekotasunaren desordena. Afasiko hauentzat kontextua, testuingurua, guztiz beharrezko faktorea da. Estimulo baten aurrean, hots testuinguru baten aurrean (esaldi bat amaitu gabe, hitz zati bat, galderak, elkarrizketak...) - afasiko hauek ez dute ezein oztoporik esaldi hori amaitu, hitza bukatu, galderari erantzun eta elkarrziketa batetan parte hartzeko... estimulatuak dauden bitartean, testuinguru batetan kokatzen diren bitartean hain zuzen ere. Baina, estimulorik ezean idarge azaltzen zaigu afasikoa (antzekotasunaren desordenak eraginikoa, jakina), ez baita gai esaldi bat esateko bere kabuz. Euri egiten duela ez badu ikusten ezingo du esan "euria ari du" edo antzekorik (loc. cit. 50 or.). Areago,eta orain hizkuntzalariak Freud-en ikerketara joko du, afasikoak sortuko dituen esaldiak elipsiez beterikoak izanen dira, hitz

-gakoak hitz abstrakto anaforikoek ordezturik gertatuko direlarik. Honela, bada, "gauza", "trasto" eta antzekoak erabiliko ditu egiazko izenen ordez. Areago, eta geuk, Jakobson-ek ematen ez dion garrantzia eman nahiko genioke puntu honi, Jakobson-ek kasu kurioso bat azaltzen digu: eri bati itsaorratz (edo iparrorratz) bat erakutsi zitzaion irudi baten bidez zer zen esan zezan. Hona hemen eriak eman zuen ihardespena: "Bai zera da... badakit zer den, baina ezin oroitu hitz teknikoa... ... Bai... direkzioa, norabidea... norabidea markatzeko..... imantaturiko orratz batek Iparra markatzen du". Idazten du - dan honek ez daki afasiko den ala ez, baina ezin uka lezake - gaixo afasiko ez den askori (denoi ez ote) horrelakorik gertatzen zaiola maiz asko. Hau da, eta ez dugu uste gehiegi suposatzea denik, denok bide gara afasiko, neurri aprezigaitz batetan den ere. Honek gogora dakarkit Freud-ek ausnartzen duena sexualitatearen "perbertsioei buruz": denok gara neurri batetan nahiz bestean perberso; izan ere, masokismo, sadismo - eta fetitxismoaren konponenteak jokabide "normal" deritzona - ren zutabeak dira, neurriak neurri noski. Geuk egin ditugun obserbazioek, mintzamenaren desordenari gagozkiola, berdintsu erakusten digute, nahiz sistematikoak ez izan. Ikerketa gisa proposatzen dugu hipotesi hau. Gehiago ere proposa genezake hipotesi honen ildotik (afasiak inkonszientearen funtzionamenduarekin dukeen zerikusi handiaren zentzuan, hain zuzen), baina goazen aurrera.

Jakobson-en azterketaren deskribapena laburtuz (gehiegitxo ez ote), goazen ikustera gorago aipaturiko jokabideak -hizkuntzari gagozkiola- zer ematen duen aditzera. Eta

hemen datza gakoa. Ezen gaixoak "ezagutzen (gogoratzen) ez - duen hitza (zeinu linguistikoa), beste baten bidez adieraziko du. Eta prozedura hau haurrak ere erabiltzen duen prozedura dugu.

> "L'interprétation d'un signe linguistique au moyen d'autres signes de la meme langue, homogènes sous - certains rapports, est une opération metalinguistique qui joue aussi un rôle essentiel dans l'apprentissage du langage par l'enfant" (Loc. cit. 54 or.)

"Homogénes sous certains rapports" diosku autoreak. Erlaziook zertan dautzan falta zaigu determinatzea. Hizkuntzalaria Goldestein ikerlariaren lanaz luze eta zabal baliatzen da artikuluan, afasiaren berri ematerakoan. Puntu honetaz, Goldestein-ek dagien karakterizazioa transkribitzen digu. Eta geuk ere:

> "(Afasiko hauek) saisissent les mots dans leur signification littérale mais ne parviennent pas a comprendre le caractère métaphorique de ces mêmes mots"

Lerrook beren buruz mintzo zaizkigu. Hau da, antzekotasunaren desordenak eragiten duen eriak hitzak, zeinu linguistikoak, hitzez hitz (mot a mot, Lacan-en mintzairaz baliatzearren, loc. cit. 506 or.) ulertzen ditu, itzultzen ditu. - Baina, ez al da fenomeno hau metonimiak adierazten diguna? - Eriak, beraz, metaforarako gaitasunik ez du baina metonimiarakoa mantendu eta gordetzen du.

"Des deux figures de style polaires, la métaphore - et la métonymie, cette dernière est largement employée par les aphasiques dont les capacités de sélection ont été affectées. Fourchette est substitué à couteau, table à lampe, fumée à pipe, manger à girl"

Textu hau irakurtzean ez genuke zerbait azpimarkatu gabe pasatzen utzi behar: estilo figura bi horiek "polaires", polarrak, muturrekoak, kontrajarriak dira karakterizatuak. - Hor datza, gure ustez, beraien garrantzia. Edo, beste era batera, bi figuraotan agortzen da hizkuntzaren errekurtsoa, figura guztiak biotan agortzen direlarik. Geroxeago ikusiko dugu nola Jakobson-entzat, bestalde, aztertzen ari garen afasia bi moeta edo tipook ere polarrak diren. Ondorioak ezin gehiago itxaron. Mintzamenaren funtzionamendua metafora eta metonimiarako gaitasunean agortzen dela, hain zuzen.

2.- Ondotasunaren desordena aztertzea falta zaigu . Ez gara zehaztasun handitan sartuko. Era honetako afasikoentzat perpausen eraikitzea, hizkuntz-unitate sinpleak konbinatuz, guztiz nekez gertatzen zaie. Arau sintaktikoak ezezagunak zaizkie, esaldiak sortu baino, hitzak pilatu baino ez dute egiten. Jakobson, Hughlings Jakson-en lanetan oinarritzen da behin baino gehiagotan afasikoen oztopoak aztertzean. Bigarren moeta honetako afasikoak, izan ere, agramatismo deritzoneko defektoak afektaturik izanen dira, beren mintzoa ia - telegrafikoa izanen delarik. Afasiko hauek, beraz, metaforara joko dute, metonimiaz ezin baliatuz. Hemen ere Jakobson-ek

Jakson-en ikerketaren berri ematean, pasarte garrantzitsu bat datziko digu, baina, geure ustez bederen, ondorio guztiak atera gabe, gorago genioen zentzuan hain zuzen ere:

> ""longue vue" au lieu de "microscope", "feu" au lieu de lumiére de gaz" sont des exemples typiques de telles expressions quasi métaphoriques, comme les a - baptisées Jakson, puisque par oppsition aux métaphores réthoriques ou poétiques, elles ne présenten aucun transfert délibéré de sens" (Loc. cit. 58 or.).

Bego Jakobson-ek dagigun bereizketa formala afasikoen metafora moetaz, baina "ia-metaforikoak" direla azpimarkatu baino, besterik azpimarkatu eta agerrerazi nahi genukegeuk: (afasiko hauen) esaera quasi-metaforikook ez dute zentzuarekiko ezein transfert deliberaturik (aproposik) aurkezten". Hots, metafora horietara jotzearen prozesua ez da deliberaturiko, berariaz eginiko, hots kontzienteki eginiko prozesua. Textu honek galdera franko plantearazten digu. Afasiko en quasi-metafora hauen sorkuntza mekanismo inkontziente bati esker ote, eta berak eraginik? Zertzu harremanak afasikoen hizkuntz-desordenen eta inkontzientearen traumen artean, zeintzu, nola noiz eta noraino? Areago, afasia moeta hau ez al da, neurri txipinean den arren, hiztun orotan gertatzen? - Eta, beraz, ez al genezake esan, afasia moeta honetan nola - bestean, afasiaok agertzen dizkiguten desordenak hizkuntza - "normalaren" ordena garantizatzen dutela, mintzamenaren ahalizateko baldintzak berak bilakatzen direlarik alegia? Honahemen ikerketarako eremu preziagaitz eta emankorra.

Tamalez, afasikoen desordenei buruzko ikerketa sakonagorik baharko genukeela egin (eta dagoeneko aginik dagoenetik jaso eta interpretatu), azterketa sistematiko eta zehatzago bat bultzatuz. Nik neuk ez dut, zoritxarrez, ezperientzia handirik. Baina, hizkuntza klase makina eman eta oharpen - franko eginez gero, gorago egin dudan hipotesia (besteren batek askoz lehenago egina izatea ere litekeena da) ez zait disparate iruditzen. Espaziorik ez astirik ez dudanez, ezin aldera ditzaket hemen lehenago aipaturiko Eric H. Lenneberg-en teoriak honi buruz Jakobson-ek jaso eta proposatzen dituenekin. Bego aipamena, hurrengo egiteko baten egitarauaren konstatazioatzat.

1.- Mintzamena agortzen deneko hura

Jakobson-en artikuluak badu bostgarren atalik, "Les poles métaphorique et métonimique" deritzona. Bertan antzekotasunaren eta ondokotasunaren desordenak aztertu ondoren ondorio bila doakigu autorea. Orrialde batzu lehenago ondoio - hauek aurrez ikusten genituen, zeinu linguistikoaren ezauga - rriak aztertzen genbiltzalarik, "hautapena" eta "konbinazio " ezaugarri unibertsaltzat jotzen zituela hizkuntzalariak. Bada ikusi berri dugu nola hautapenerako gaitasunean metaforak egiteko gaitasuna oinarritzen dela, eta konbinaziorako gauzatasunean metonimiarako ahalmena bestalde. Orain, beste alde batetik, eta Martinet-en artikulazio bikoitza azaltzen genuela, - mintzamenaren (eta beraz hizkuntz-zeinuaren) funtzionamendua azken batez bi prozesutara muga daiteke: prozesu sintagmati -

koa eta prozesu paradigmatikoa. Jakobson-ek prozesu sintagmatikoa eta metonimiarako gaitasuna berdin eraziko ditu, eta era berean prozesu paradigmatikoa eta metaforaren funtziona mendua. Zentzu honetan ulertu behar da boskarren atalean diona :

> "Le développement d'un discours peut se faire le long de deux signes semantiques différentes: un theme (topic) en amène un autre soit par similarité soit par contiguité. Le mieux serait sans doute de parler de proces métaphorique dans le premier cas et de proces métonymique dans le second, puisqu'ils trouvent leur expression la plus condensée, l'un dans la métaphore, l'autre dans la métonymie". (Loc cit. 61 or.)

Ohar bat egiteak, halare, ez luke batere kalterik egingo. Sintagmatiko eta paradigmatiko kontzeptuak oso kontrobertituak ditugu hizkuntzalaritzan, bai bakoitzaren definizio aldetik baita halaber haien arteko harremanez. Eskola distribuzionalistarentzat sintagmatikoa da nagusitzen dena, Europako funtzionalistentzat (Martinet eta Jakobson, nahiz hauen artean diferentzia nabarmenak egon), aldiz, paradigmatikoari eman behar zaio lehentsuna. Diogun Jakobson-entzat prozesu biok batera suertatzen direla, anitz kanpotikako efektoren poderioz (modelo kulturalak, nortasuna, estiloa....) bata besteari nagusitzen zaiola, eta alderantziz. Egoki xamar deritzogu Oswal Ducrot-ek dagien azalpena auzi honi buruz "Dictionnaire encyclopédique des sciences du langage" hiztegian -

-Tzvetan Todorov-ekin batera idatzita- "Syntagme et paradigme" izeneko kapituluan bereziki (139-147). Kapituluaren amaieran ohar gisa aipaturiko sintagmatiko = metonimia; paradigmatiko= metafora identifikazioak azpimarkatu ondoren, Jakobson-i dagokiola, zera dio: (29)

> "Voir surtout Essais de linguistique générale, chap. II (komentatzen ari garena hain zuzen). La difficulté de ce texte tient à ce que la relation constitutive du paradigme y apparaît tantôt comme la relation de sélection (et on a bien alors le "paradigme" au sens étroit de linguistes), tantot comme la relation de similarité (et "paradigme" peut signifier - alors "catégorie" en un sens extremement large)". - (Loc. cit. 146 or.)

Ohar honen sugerentzia aztertzeak luze joko luke. - Gatozen Jakobson-en artikulura, eta gorago aipaturiko pasarteak nola jarraitzen duen dakusagun :

> "Dans l'áphasie l'un ou l'autre de ces deux procédés est amoindri ou totalement bloqué -fait qui en soit rend l'áphasie particulièrement éclairante pour le linguiste. Dans le comportement verbal normal,- les deux procédés sont continuellement a l'oeuvre, mais une observation attentive montre que sous l'influence des modéles culturels, de la personalité et du style, tantôt l'un tantôt l'autre procédé a la - préférence" (Loc. cit. 6 or.)

m.- Afasia, neurosia bezala, gizaki orori datxekio

Textu honek ez du mamirik falta. Gorago baieztatu badigu prozesu metaforiko eta metonimikoa diskurtsoaren hari semantiko nagusiak zirela (haien unibertsalitatea inplizitoki ere baieztatuz), orain prozesu hauen funtzionamendua afasi - koen "gabezien" (carencias) funtzionamenduarekin lotzen digu. Baina, bada besterik ere, geuk lehenago eginiko hipotesi-proposamenarekin zer ikusi txikia ez duena, alegia, hizkuntzalariak esatera, hiztun arrunt edo normala bi prozedurez baliatzen dela, nahiz bi prozeduraon artean bat besteari nagusituko zaion, nagusiketa hau modelo naturalek eta estiloak eragin da delarik. Hemen ere hainbat galderak asaldatzen gaitu. - Hiztun arruntak bi prozedurak erabiltzen baditu, arrunta de - nez, ezingo da gaitasun hauetaz perfekzio osoz baliatu, eta - beraz, afasikoei gertatzen zaiena, neurri askoz txipiago eta "aintzat" ez hartzeko moduan (hizkuntz ber-heziketa bati dagokionez, noski), berari ere, indibiduo normalari ere gertatuko zaio. Hauxe da bederen nik neuk ateratzen dudan konklusioa.- Bestalde, zergatik eta nola(nola hau Jakobson-ek digu argiegi adierazten) suertatzen zaio hiztun normalari prozedura batez besteaz baino gehiago baliatzea? Modelo kulturalei, nortasunari edo estiloari errekurritzea besterik gabe eta zergatiak zehatzago zertu gabe ihes egitea iruditzen zaigu. Zehatzago formula dezagun arazoa. Zer dagoke modelo kultural, nortasun edo estilo delakoetan honelako aukera egiteko? Jakobson-ek ez digu ihardespenik eskeintzen.

n.- Inkon zientearen mintzoaren legeak mintzamenarenak ere.

Berriro ere Freud.

Artikuloaren amaierara goaz. Eta Freud-engana itzultzen gara. Ez guk nahita, Jakobson-ek berak bideraturik. Gure lantxo honetan proiektuaren zirkulazizazioa ematen genuen aditzera. Mintzamenaren lege nagusiak, lege unibertsalak hatzeman ondotik -horixe da orain arte egin duguna, besteak beste- ea mintzamenaren legeok inkonszientearen diskurtsoan egiaztatzen ote ziren aztertu behar genuela genioen. Bada, hartara iritsi gara, Lacan-en eskutik batetik eta Jakobson-en besotik bestetik, Freud-en behatzak zuzendurik.

> "La compétition entre les deux procédés, méthonymique et métaphorique, est manifeste dans tout le processus sumbolique, qu'il soit intrasubjectif ou social. C'est ainsi que dans une étude sur la structure des reves, la question décisive est de savoir si les symboles et les séquences temporelles utilisés sont fondés sur la contiguité("déplacement" métonymique et "condensation" synecdochique freudiens) ou sur la similarité ("identification" et "symbolisme" freudiens)" (loc. cit. 66 or.)

Lerrook irakurtzean Jakobson-en teoria aztertzera eraman gaituen Lacan-en idazlanean esandakoak datozkigu burura. Bi autoreon arrazonatzeko prozedura antzeko da, baina textuak konfrontatzerakoan zenbait diferentzia aurki dezakegu. Geroago geldiroago ikusiko dugunez, Lacan-entzat Freud-en kondensazio (Ver dichtung) kontzeptua metaforari lotua dago; le-

kuzaldaketa (déplacement/desplazamiento/Verschiebung), aldiz, metonimiari dagoelarik atxikirik. (Ikus Lacan, 511 or.). Jakobson-entzat, aldiz ere, lekuazaldatzea metonimiari lotuta dago bai, baina kondensazioa sinekdokeari atxikia dirudike. Nicolas Ruwet ere, Essais hauek itzuli zituena, konturatu zen horretaz eta Jakobson berari jakinarazi, zainari hizkuntzalariak erantzun baitzion kondensazio kontzeptuak Freud-engan nahasketa sortzen duela batzutan bai sinekdokearen kasuak bai metaforarenak ere betetzen baititu. Diogun, halare, eta dara magun proiektuaren funztioan, diferentzia honek, terminologiko hutsa ez izan arren, ez duela ezertarako afektatzen gure martxa. Jakobson-en bidetik, beraz Freud-engana joan gara. Bertan gera gaitezen orain.

ñ.- Ametsaren mintzoa

Freud-ek, Die Traumdeutung (Ametsen interpretazioa) deitu lanean -ia ezpairik gabe autore honen obrarik gorena-, ametsen estrukturaren berri (berri guztiz berria, bestalde)eman nahi digu. Bi dira aipatu beharreko alderdiak, gure proiektuari dagokionez bederen, ametsak desioen betetzeak direla batetik, eta desiook mekanismo dinamika guztiz berezi baten bidez suertatzen direla bestetik: kondentsazio eta desplazamendu fenomeno (eragiketa) nuklearren bidez, alegia. Ez ditugu, jakina, beste elementu eta osagai inportante asko aipatzen, zentsura, errepresio, transferentzia... bezalakoak, hauen aztertze sistematikoak luzegi joko lukeelako, eta gure azalpenaren mamia eta ardatza aldatzen ez dituelako.

Ametsa desio baten (desioaren) betetzea dugu, bete nahi izatea, hobeki esatearren. Desio honen hautsiezinezko lotura (beronengan hartzen baitu zentzurik eta izaterik) Edipo deitu konplexoarekin izan da lan honen bigarren kapitulu edo atalaren xedea. Desio honen jite eta izaeraren aztertzeak inkonszientearen errealitate, esangura eta egiara gintzaraman.- Areago, ametsen egiturak besterik ere diosku: ametsek zentzurik dutela esateak adierazten du zentzu horrek mintzamenaren egitura bera eduki behar duela, zentzu hori "zentzu/konszientе" bezala ager ahal izateko "zeinu" bezala behar duela agertu, hizkuntz-zeinu bezala alegia. Zeinu hori, izan ere, ez - da imajina piktoriko bat. Zeinu horrek hieroglifiko baten antza du, "rebus" bat da. Honela ulertu behar da, hain zuzen - ere, Freud-en hitzok "Elaborazio onirikoa" deritzon kapitulu garrantzitsuan idatziak: ametsen eduki ezkutuaren eta ageri - koaren diferentzia nuklearra azpimarkatu ondoren, ideia ezkutuok eduki agerian nola (hots zein mekanismoren bidez) suertatzen dira azaltzera esplikatzen digu: (30)

> "En cambio el contenido manifiesto nos es dado como un jeroglífico (Bilderratsel/rébus/hieroglifiko), - para cuya solución habremos de traducir cada uno de sus signos al lenguaje de las ideas latentes. Incurriríamos, desde luego, en un error si quisiéramos leer tales signos dándoles el valor de imágenes pictóricas y no el de caracteres de una escritura jeroglífica" (Freud. Die Traumdentung. 235 or.) (31)

Hitzok erran ondoren Freud "kondentsazioaren egitekoa" eta "desplazamenduaren prozesua" operazioak deskribatzera doa. Diogun laburki zertan dautzan inkonszientearen eragiketaok.

I.- Kondentsazio (Verdichtung). Praktika analitikoak erakusten duenez, ideia ezkutuak guztiz aberatsak eta zabalak dira, baina, halaz ere, ametsaren bidez dugun eduki ageriaren pobretasun eta laburtasuna nabariak dira. Zer gertatu da, bada? Ideia ezkutuak kondentsatu egin dira, eta biziki-kondentsatu ere bai. Hain da egia kondentsazio hau non,Freud-ek berak esatera, kondentsazioaren neurria neurgaitz baita , determinagaitz. Kondentsazio prozesu honek badu alderdi azpimarkagarria. Eduki ageriaren elementu guztiak superdetermi-natuak ditugu eta ideia ezkutuetan hamaika era eta modutan-berreaurkeztuak, errepresentatuak (loc. cit. 239 or./125 or.) Superdeterminaturik ez ezik egitura bereizi batek karakterizaturik: ametsaren mintzo ageriak funtzionamendu kuriosorik badu:

> "Los productos verbales del sueño son muy semejantes a los de la paranoia, que aparecen también en-la histeria y en las representaciones obsesivas. -Los juegos verbales en los que los niños tratan las palabras como objetos, inventando nuevos idiomas y artificiales palabras compuestas, constituyen en este punto la fuente común para el sueño y para la -psiconeurosis.... Asímismo es digna de mención la -emergencia en el sueño de una palabra que carece de

> sentido pero que despojada del que le es propio reú ne otras diversas significaciones, con respecto a - las cuales se conduce como una palabra "falta de - sentido"" (loc. cit. 254 or.) (32)

Textu mamitsu honek gorago aipaturiko Jakobson eta Lacan-en interpretazioen arrastobidera garamatza. Baita Nicolas Ruwet-ek oharturiko interpretazioon arteko diferentziarena. Jakobson-ek arrazoi bide du Freud-en kondentsazioaren - kontzeptuak "metafora" nahiz "sinekdoke" kasoak jasotzen di - tuela esatean. (Essais....66 or.) Dena den, orduan ere esan genuen modura, zehaztasun honek ez du Lacan-en interpretazioaren muina ez ardatza inbalidatzen. Zentzu honetan, hain zu - zen, ulertu behar da Lacan-en textu argigarri hau:

> "La Verdichtung, cést la structure de surimposition des signifiants où prend son champ la métaphore, et dont le nom pour condenser en lui même la Dichtung (poesie) indique la connaturalité du mécanisme a la poésie, jusqu'au point où il enveloppe la fonction propement traditionelle de celle-ci" (L'instance... 511 or.)

2.- Desplazamendua (Verschiebung). Ametsen kondentsazio fenomenoak, bestalde, beste fenomeno baten berri ema - ten du: eduki ageriaren elementu nagusiak, haatik, ez dira - ideia ezkutuetan hain nagusi, areago guztiz garrantzigabeak - ere izan daitezke. Eta alderantziz ere, eduki agerian guztiz xume denak inportantzia handia ukan dezake ideia ezkutuekiko.

(Loc. cit. 255 or./145 or.) . Honela, bada, intentsitate - psikikoen transferentzia eta desplazamendu bat suertatzen da.

Intentsitate psikikoen desplazamendu eta transferentzia (transferentzia honek, jakina, ez du ezer ikusirik - zer ikusi zuen- zuzenik esan nahi dugu- "transfert" deritzon pazientearen eta psikoanalistaren arteko erlazio ezagunarekin) honek hizkuntzalaritza estrukturalak metonimiari mintzamenaren estruktura unibertsala ematen zion auziarekiko zer esan handia du.

> "La Verschiebung ou déplacement, c'est plus près du terme allemand ce virement de la signification que la métonymie démontre et qui, des son apparition - dans Freud, est présenté comme le moyen de l'inconscient le plus propre a déjouer la censure" (Lacan - loc. cit. 511 or.).

Eragiketaok, beraz, argiro erakutsi dute ametsaren mintzoaren egitura eta mintzamenarena berarena berdintsuak direla azken batetan. Bidaia honaino egin ondotik, idazlanaren hasieran proposaturikoa argiago dateke orain.

Gure propiektuak amaiera jo du. Lan honetan zehar argitu nahi izan duguna, edo bederen horretara ahalegindu, zera izan da: Batetik, inzestoaren esangura sakona agerrerazi eta ikus eraztea nola bere estruktura Edipo konplexuaren egitura bera den. Bestetik, Ediporen konplexua aztertzean, inkontzientearen mundura ireki gara, inkontziente honen zutabe

eta oin-harriak argitu nahirik. Azterbide honetan mintzamena ren egiturarekin topo egin dugu, hirugarrenik. Inkontzientea mintzamena bezala egituraturik dagoela egiaztatu zaigu ausnarketa honetan zehar. Areago, egitura horren esangura eta adierazpen funtsezkoak ere aditzera eman nahi izan dugu. Ezpairik gabe hau guzti hau hobeki eta zabalgoki azter zitekeen, baina lan honen jitea mugaturik denez, honela egin behar..... eta inoiz edo amaitu behar. Dena den, hasieran esan dudanez, orrialdeokin zera hau baino ez dugu egin nahi izan: ikerketa lan sakonago baten abiapuntu eta ausnarbideak proposatu, koherentzia eman eta oinarriak ezarri.

Ez genuke, halare, lantxo honi erabateko amaiera eman zenbait ohar aurretik egin baino lehen. Mintzamenaren soziologia baten eginkizunak animatu gaitu egiteko honetan. Orain arte, eta batez ere gauden Herrian ikusita, mintzamenarekiko azterketa orok besterik izan ditu eginkizun eta xede . Elebitasunaren auzigintzan guztiz murgildurik -eta hau, zorionez, kasurik hoberenean- hizkuntz-aztertzaileak ahalegindu dira elebitasunaren arazoa ikertzen ikuspegi guztiz praktikoetatik : euskalkien soziologia, euskararen eta erdararen arteko eragin eta elkarrekiko interferentziak, haurrengan (eta haur ez direnengan) somatzen diren oztopo eta eragozpen bereziak euskararen nahiz erdararen erabilpenerako eta ikasketarako, euskararen erabilpenaren faktore soziologikoak, hizkuntz-politika "egoki" baten aspektu soziologikoak... komunikabideen eragina hizkuntza baten garapenerako, euskal gizartearen jokabide eta borrokabide euskararen garaitzapenerako (edo ezarpe-

nerako, nahiago bada) eta abar dirateke usuen eta maizenik ikertu diren eremuak. Esan gabe doa, guztiz onerizten diodala jokabide honi. Izan ere, urtetan zehar, praktika kultural baten bidez -hitzaldiak eta eskola ematetik kaleetako ormak eta airea sloganez jantzeraino- jokabide honi geu ere ekin diogu. Eta oraindik ekiten ari. Baina, garaia iritsi da hiz kuntz soziologiaren beste zenbait aspektu berri azaltzeko, edo bederen bilatzen eta ikertzen hasteko.

Lan honetan zehar proposatzen saiatu garena zera liteke: Baldin intzestuaren egia bere unibertsaltasunean badatza -eta hala uste dugu-, eta bestetik, inkontziente/Ediporen konplexua mintzamenaren molde arketipikoa bada, mintzamenaren agiturak -afasikoenak aztertzeak erakutsi digun bezala- adierazlearen nagusitasuna azpimarkatzen duela ikusita (ikusi besterik ez dago egungo semiologiaren garapen izugarria), hizkuntz-soziologia batek bide honetatik jo beharko luke: orrialde batzu lehenago genioen zentzuan, Freud-ek egin zuen antzera (neurosiaren konponente unibertsala gizabanako bakoitzarengan nola gizarte eta giza-talde orotan, neurriz neurri, jakina), uste dugu denok dukegula konponente afasiko bat gure hizkuntzaz baliatzen garenean. Areago, eta hobeki esatearren, mintzamenaren egitura bera afasiko dateke; Ediporen konplexua bezala, hiztun normal batek "erraz" gainditzen jakinen duelarik. Jakina, hau guzti hau hipotesi bat besterik ez da, baina hipotesi bezala, halere, ez du koherentziarik falta geure ustez. Hizkuntzaren zientzia batek urratu beharko lukeen bide berria hauxe liteke.

O H A R R A K

(0).- Ikus honi buruz "Hegelianismoa" eta "Neopositibismoa eta Filosofia Analitikoa: Wittgenstein", izeneko kapituluak UBI-ko "Filosofia" textuliburuetan. Lehenengoa, Jose Antonio Amutxastegi irakaslearekin batera egina elkarlanean; bigarrena, Mikel Azurmendiren kolaborazioarekin. Elkar argitaletxea. 1983 eta 1984.

Ikus ere "la condición humana: condenados a hablar (El reino de las palabra)" izeneko lana, aurten aurkeztera emanen dudan tesinaren erdal laburpena: "Wittgenstein-en Tractactus Logicus-Philosophicus-en euskal itzulpena eta Wittgenstein-en adierazpenaren teoria Aristotele eta Frege-ren eskutik".

(1).- Moustafa Safouan, Le structuralisme en psychanalyse. Ed. Minuit, 17 or.

(2).- V. Gómez Pin, Ciencia de la Lógica y Lógica del Sueño. Ed. Taurus 1978, 40-41 or. Liburu honen irakurketa nekeza eta zaila suertatzen bada ere, inkonszientearen egiturаren eta hizkuntzaren estrukturaren arteko harremanen mundu labainkorraz jabetzeko egin den libururik handienetakoa, nahiz proiektu zabalago baten aurreproiektua izan. Hizkuntzalaritza estrukturalistari egin bide zaion kritikari zorrotzenetakoa, beronen barne-logikatik beretik egina.

(3).- Fonction et Chmp de la parole et du langage. Erroman Lacan-ek aurkezturiko txostena, 1953an. Ecrits izeneko idazlan bilduman argitara emana berriro 1966an, Ed. Seuil, 237-322 or. Lacan-en pentsamenduaren originaltsun eta inkontzientearen hizkuntz-egitura funtsezkoaz jabetzeko idazlanik argigarriena. Esan bezala, autore honen obra zaila da osoirakurtzen nola entelegatzen, bai idazkeran darabilen estilo pisutsuagatik zein beste autorek darakusaten ohizko sistematizazio baten ezagatik, apika.

(4).- Aitortu beharra dago Filosofia Hiztegiaren proiektuaz eztabaidatzerakoan, eta Freud-en pentsamenduari artikulu luze bateko tratamendu narea zor zitzaiola proposatugenuelarik, partaide guztiek oro kontra egin zigutela, Freud-en lanak ez baitzukeen aparteko tokirik filosofi pentsamenduaren historian. Bestalde, eta UEU (1981)-n psikoanalisiari eginiko kritikari gagozkiola, irakurleak aurkitu ahal izanen du Fito Rodriguez Bornaetxea-k bertan aurkezturiko txostena liburuxka honetan. Azkenik, Psikologia Hiztegirako "Psikologia sakona" izenburupean Freud-en pentsamenduaren berri eskaintzen digun autorea Enrique Freijo irakaslea dugu, zeina, gure ustetan, ez baita arazoaren gakoan batere murgildu. Ikus "Psikologia Hiztegia" UZEI, Elkar argitaletxeak emana, 1981an. Ikus halaber gure lan honetako 22 orrialdea.

(5).- Lacan, Les quatre concepts fondamentaux dela psychanalyse, Ed. Seuil, 1973, 23-24 or. Ikus halaber Jacques Alain Miller-ek,Lacan-i buruz eginiko opuskulua Encyclopedia

Universalis delakoarentzat eta "Ornicar?" izeneko aldizkariak ere argitara emana. 1979an idatzia eta Ornicar?-en 1981-eko iraileko alean agerturik.

(6).- Drei Abhanlungen zur Sexualtheorie. Alemanierazko jatorrizko texturik lortu ez dugunez, gaztelaniazko L. López-Ballesteros y Torres-en itzulpenaz baliatu gara. Tres ensayos sobre teoría sexual. Alianza Ed., LB 386, 89-90 or.

(7).- Idem, 74. oharra.

(8).- V. Gómez Pin, El reino de las leyes: Orden Freudiano, Ed. Siglo XXI, 1981, 56 or.

(9).- Idem, 56 or.

(10).- Totem und Tabu. Gaztelaniazko itzulpenaren arabera. Alianza Ed., LB 41, 72 or.

(11).- 1703an jadanik Leibniz-ek gisako oharra aurreratzen zuen bere "Nouveaux Essais sur l'Entendement Humain" ramatuan.

(12).- Kurzer Abriss der Psykoanalyse, 1924. Alemanierazko jatorrizko textuaren ezean, López Ballesteros-ek egiriko gaztelaniazko itzulpenaz baliatu naiz. Esquema del Psicoanálisis, Alianza Ed., LB 534, 47 or.

(13).- Lan hau idatzi orduko irakasle honen ponen - tziaren berri izan genuen. Hortik sortu zen lanok batera argitaratzeko asmoa. Psikoanalisiaz dioenera mugatuz, zera azpimarkatu behar dugu, besteak beste: ezin lepora dakioke Lacan-en pentsamenduari berorrek esan ez duen zerbait, kritika errezarako argudio abila bilakaraziz. Hartara, halako bate - tan autore honek zera dio: "Praktikan ere, psikoanalisiari - beste kritika batzu egin zaizkio. Lacan-ek hitzaren bidez inkonszientea azter, ezagut, eta zuzen (?) daitekeela dio, hi - tzak eta inkonszienteak egitura berdina dutenez". Ez dugu uste egileak inolako texturik eman ahal izanen digunik "hitza - ren bidez inkonszientea zuzen daitekeela" Lacan-ek baiezta - tzen digunekorik. Bestalde, Lacan-en baieztapen ezagunak, - Freud-i berari hartua azken batean, non "inkonszientea hizkuntza baten modura egituraturik dago" -ela esaten zaigun, ez digu F. Rodriguez Bornaetxea-k arinegi aterarazi dion konklusioa ondorioztatzea permititzen, ez eta, nik dakidalarik, Lacan-en obra osoak ere. Ez baita, Lacan-en ustez, hitza soila inkonszientearen egituraz jabetzen lagunduko gaituen bakarra.

Ikus ere G. Deleuze eta F. Guatari-ren L'Anti-OEdipe, Ed. Minuit, 1972.

(14).- Ferdinan de Saussure, Cours de Linguistique Générale, Ed. Payot, 1965, 105 or. Jakina denez, Saussure-ren kurtsoa 1916an eman zuten haren ikasle aintzinatuek argitara: Charles Bally eta Albert Sechehaye bereziki. Aipatu problematikaz azalpen sakonxeagorik egina dugu "La condición humana: condenados a hablar (El reino de la palabra)" eta "Wittgens - tein-en adierazpenaren teoria Aristotele eta Frege-ren esku-

tik" delako idazlanetan.

(15).- V. Gómez Pin-ek dagien kritikaren egokitasunaren lekuko, besteak beste, Amado Alonso filologo eta hizkuntzalari bikainak egindako gaztelaniazko itzulpenean honela ematen du "un acte de cet ordre peut etre conçu" esaldia: "un acto de este orden... lo podemos imaginar, pero jamás ha sido comprobado" (Ed. Losada, 1973, 136 or.). Ikusten denez, bada Amado Alonso ere oharturik zen terminologiaren zehaztasun ezagatik. Itzulpena 1945an zuen jadanik egina.

(16).- Freud, Einige psychische Folgen des anatomischen Geslechtunterschieds (Zenbait ondorio psikiko sexu diferentzia anatomikoak direla medio). Alemanierazko jatorrizko textuaren ezean, gaztelaniazko itzulpenaz baliatu gara. "Introducción al narcisismo y otros ensayos" liburuan argitaratzen emana, Alianza Ed., LB 444, 78 or.

(17).- V. Gómez Pin, El psicoanálisis; justificación de Freud, Ed. Montesinos, 1981, 95 or.

(18).- Totem und Tabu. Ikus gaztelaniazko itzulpena, Alianza Ed. LB 41, 187 or.

(19).- Ikus honi buruz V. Gómez Pin, El Psicoanálisis...., 95-97 or.

(20).- Das Ich und das Es, S. Fischer Verlag, Frankfurt am Main, 1960, 188 or. Gaztelaniazko itzulpena: Alianza Ed., LB 475, 26-27 or.

(21).- Idem, 99-101 or.

(22).- Idem, 87 or.

(23).- Ikus honi buruz Lacan, Les quatre concepts.. ... 36-37 eta 45 or.

(24).- Zeinuaren arbitrarietateaz eta kontzeptu honen inplikazioez ikus lehenik Saussure, Cours... 101 et seg. (gaz. itzul. 127 eta seg.); ikus halaber Eugenio Coserieu, - L'arbitraire du signe, in Tradición y novedad en la ciencia - del lenguaje, Ed. Gredos, 1977, 9-62 or. Aipatu gure tesina lanean ere kapitulu oso bat eskaini diogu gai honi. Diogun , bestalde, hizkuntzarekiko edozein problematikari buruz guztiz gomendagarri dela O. Ducrot eta T. Teodorov autore ezagunek - eginiko "Dictionnaire des sciences du langage", Ed. Seuil, - 1972.

(25).- Javier Echeverría, Problemas metodológicos - en la concepción del fonema de Jakobson, in Ciencia de la Lógica y Lógica del sueño, 99-123 or. Egilearen sugerentziak - eta arrazonamendua guztiz interesgarri dirateke, nahiz, tamalez, gaiak tratamendu luzeago eta zehatzago eskatzen duen eta autorearen kritikaren ondorio inportanteak guztiz landu gabe geratu diren.

(26).- Saussure, Cours... 135 or. (gazt. itzul. 169 or.)

(27).- Ikus Jakobson, Essais de Linguistique Générale (Nicolas Ruwet frantses hizkuntzalariak itzulirik), 31 eta 90 or. Ed. Minuit.

(28).- Jakobson, Essais de Linguistique Générale, - 43-67 or.

Ikus halaber "Langage infantin et aphasie" Jakobson -en lan inportantea, J.P. Boons eta R. Zigouris-ek frantsesera emana, Ed. Minuit, 1969. Bertan biltzen baitira autorea - ren lanik preziatuenak haurren mintzairaz eta afasiaren pro - blematikaz. Interesgarri oso da, jadanik aipatzen dugunez, - Eric H. Lenneberg-en Biological Foundations of Language lan - meritagarria aztertzea. Gaztelaniazko itzulpenaz baliatu gara: Fundamentos biológicos del lenguaje, Alianza Universidad, 1975. Liburu honen euskal laburpen eta moldaera egin geni - tuen 1980. urtean, baina, zoritxarrez, hainbat eskuren ar - tean igaro ondotik, galdu egin zen.

(29).- O. Ducrot eta T. Teodorov, Dictionnaire des sciences du langage, 139-147 or.

(30).- Freud, Die Traumdeutung, 235 or. Idazlan ho nen lehenengo orrialdean eman ditugun hiru autore horien aipa menek erakusten dutenez, "inkonszientea mintzaira baten modura egituraturik dago" delako baieztapena argituz doa. "la - condición humana: condenados a hablar" izeneko lanean geldiro aztertu ditugu Wittgenstein eta Freud-en mintzamenarekiko ka-

rakterizazioak. Izan ere, adierazgarri oso da Saussure, Wittgenstein eta Freud gisako autore hain diferenteek -eta presupostu arrunt desberdinetatik abiatuz, helburu desberdin nabariak izaki, bestalde- mintzamenaren egituraz hain deskribapen parekagarriak egitea. Kontutan har bedi hiru egile handiok -ia urte beretsuan eman zituztela ezagutzera beren lanak (1916 1918 eta 1899an nork bereak), elkarren berri, dirudienez, ez zutelarik.

(31).- Die Traumdeutung, S. Fischer Verlag, Frankfurt am Maim, 1942, 235 or. Gaztelaniazko itzulpena L. López Ballesteros y Torres-ena da. La interpretación de los sueños Alianza Ed., LB 34-35-36, 1966. Aipatu textuaren erreferentzia: 35 t., 119 or.

(32).- Idem, 35 t., 144 or. gaztelaniazko itzulpenerako; 254 or. alemanierazko ediziorako.

AURKIBIDEA

- Hitzaren erreinua . . . . . 7 or.

- Hitzaurrea . . . . . 13 or.
  - Lanaren xede eta laburpena . . . . . 13 or.
  - Hitzaren hodeiertzea . . . . . 16 or.
  - Mintzamenaren egiturak inkontzientearena isladatzen du . . . . . 19 or.
  - Gure proiektua . . . . . 21 or.

- Lévi-Strauss-en pentsakera: intzestuaren debekuaren atarian . . . . . 22 or.
  - Totem eta Tabu: Historiaren ahal izateko baldintza . . . . . 22 or.
  - Mitoaren deskribapena . . . . . 25 or.
  - Non hasten da kultura? . . . . . 27 or.
  - Animalia, definizioz ezin mintza daiteke . . 28 or.
  - Zein estrukturari esker sortzen da mintzamena? . . . . . 30 or.
  - Psikoanalisiaren mugak . . . . . 32 or.
  - Freud, hizkuntzalaritza estrukturalaren aita 34 or.
  - Araurik eza, erizpide nagusia . . . . . 36 or.
  - Imajinatua bai, baina ez pentsatua . . . . . 38 or.
  - Intzestuaren debekua: kulturaren oinarria. . 39 or.
  - Intzestuaren debekua auzitan . . . . . 42 or.
  - Alantzaren tasun arbitrarioa . . . . . 45 or.
  - Kulturaren paper nagusia . . . . . 46 or.

- Freud eta Lacan: inzestoaren debekua eta Ediporen konplexoa . . . . . 48 or.
  - Espeziea eta gizabanakoa: elkarren kontra ote? . . . . . 50 or.
  - Kastrazioa: lege moralaren sorrera . . . . . 52 or.
  - Kastraziotik Ediporen konplexura . . . . . 54 or.
  - Topika berria . . . . . 57 or.
  - Edipoa bere kontzeptuan . . . . . 58 or.
  - Biologikoak sozialari uzten dio tokia . . . . 60 or.
  - Sexualitatea eta instintua elkarren kontra . . . . . 62 or.

- Mintzamenaren egitura baten bila: inkonszientearen hizkuntz-egitura . . . . . 64 or.
  - Hitzaren efektuak . . . . . 65 or.
  - Adierazlearen nagusitasuna . . . . . 66 or.
  - Ametsaren hizkuntzaren mintzoa . . . . . 70 or.
  - Adierazlea eta adierazia . . . . . 71 or.
  - Hizkuntzaren artikulazio bikoitza . . . . . 73 or.
  - Hizkuntz zeinua . . . . . 73 or.
  - "Letraren instantzia inkontzientean" . . . . . 76 or.
  - Elementuen predestinazioaz . . . . . 78 or.
  - Kate adierazlearen egitura . . . . . 80 or.
  - Mintzamenaren efektuen mazelarik bortitzenak . . . . . 81 or.
  - Mintzamenaren alderdi bi eta afasiko moeta bi . 82 or.
    I.- Antzekotasunaren desordena . . . . . 86 or.
    2.- Ondokotasunaren desordena . . . . . 89 or.

- Mintzamena agortzen deneko hura . . . . . 91 or.
- Afasia gizaki orori datxekio . . . . . 94 or.
- Inkontzientearen mintzoaren legeak . . . . . 95 or.
- Ametsaren mintzoa . . . . . 96 or.
    1.- kondentsazioa . . . . . 98 or.
    2.- Lekuzaldaketa . . . . . 99 or.

- Oharrak . . . . . 103 or.

IKURRA ETA PHYSIS GAURKO GIZARTEAN EDO GARAI BATEN DESGASTAPENA

(bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, ... ERREAL)

"Zazpi, zenbaki mitiko-sinbolikoa zen jadanik egyptotar, babilonio, persa, hebreo, grekoentzat: zazpi egunetan egin - zen kreazioa eta zazpi ziren Greziako jakintsuak; zazpi mundu ko miresgarritasunak; zazpi itsasoak, zazpi infernuko zirku - loak, zazpi dira Jesukristoaren agoniako hitzak, sakramentuak Izpiritu Santuaren dohainak, bekatu kapitalak; zazpi dira ko- loreak, eskala musikaleko notak, asteko egunak...."

Txillardegik "Haizeaz bestaldetik" nobelaren hitzau rrean.

"Zazpiak bat"
Euskal Herriko Esaldia.

BAT .-

Bizi garen gizartean, dudarik gabe, izpiritu positi boa oso nabarmena da. Ekintza guztiek emaitzak eman behar di tuztela lotsarik gabe esango genuke, eta gainera, horrela, - proposamen bat "mass-media"-ren erizpideekin oso ados dagoela esango litzateke.

Ez nuke negatiboa izan nahi baina, egia esan, hain- besteko pragmatismoa aspergarria da, eta pentsatzen dut ez ka

sualidadez bakarrik, baizik eta gaur erabiltzen diren ikerketak egiteko eta pentsatzeko erak beti leku berberatik ibiltzen bait dira, eta hortaz, irtenbide gabeko kale bat dirudi.

Dena dela egiten ari naizena edo, hobeto esan, egin nahi dudana, ez da, noski, irtenbide berri bat bilatu filosofiaren ekinbideari. Alderantziz, hau betiko ideia da. Filosofiaren kontzeptuak erabili gure bizitza ulergarriago egin nahiean.

Hala eta guztiz, eta hori egiteko espreski, egin beharko genukeena, agian, gaur modan dauden erak, esanahiak eta abar ahaztu eta Filosofiaren bizitzari berriro begiratu. Hitz bitan, filosofia birjaio.

Eta...beno, birbizkundearen bidetik baldin bagabiltza bere hiztegia erabiltzea egokia izango litzateke eta horrela "Dibertimento" bat egin behar dugula esango genuke.

Bai, lotsarik gabe, dibertimentoa ikurra eta fisis delakoe hitzegiterakoan. Nahiz eta episteme lotuz (I). Berriro ere betiko bidetik abiatzen gara zeren eta lehendabiziko greziarrek atari eta oturuntza onak egin bait zituzten filosofiari buruz hitzegiteko eta askotan guk ezagutzen ditugunketa afamatuenak solas eta elkarrizketetan agertuko ziratekeen edo ardoaren bisutzaren eraginez zebiltzakeen efebo onbaten ondoan.

Orduan, bai. Errenaisantzan bezala, filosofiaren - kondairan zehar dakusagunez... DIBERTIMENTO EGIN BEHAR.

Baina.... ez bakarrik hitz polit bat erabiltzeaga - tik baizik eta "Seduzitzeko" modu bat erabili behar dugulako.

Nahiz eta harrigarria irudi, hasieran esan bait dugu gaurko gizartea efikaziaren bila joaten ohi dela eta, ondorioz, gainontzeko arrazoi guztien gainetik, azkenean, nahi - eta nahiez konklusio BATera iritsi behar dutela....

... Konturatzen bagara gure giza egituran egiten diren lan guztiak "produkzio" aren mundura murgiltzen direla... Orduan...ondorio mekanikoen kontra, gure lehendabiziko erizpide bezala, seduzitu egin nahi nuke produkzioaren aurka lantxo honetan (Seduzio hori, zentzu etimologiko batetan harturik).

Jean Baudrillard-ek esaten digunez (2) "Seduzioa beti eta toki orotan produkzioaren kontra dago", eta, jakina, - hau uler daiteke ikusten badugu PRO-DUCERE hitzak, etimologikoki, azaldu, ihardun edo gauzak egitea adierazten duela. Halaz ere, ez nuke hemendik ez gauza garbirik, ez kontzeptu bat konklusio gisa atera nahi, produkzioaren bilakaeran erabiltzeko; alderantziz, hortik bereziki irten nahi dut poterearen filosofia hausteko.

Produkzioaren epistemak edo epistemek, beti argitasunaz jokatu ohi du. Produkzioaren munduan gauza guz - tiak garbi daude, edo hala dirudi. Dena mekaniko, kuantiko -

eta argia da.

Baina, hots, gertatzen zaizkigun gauzak ez daude - hain garbi eta linguistika, psikologia eta antropologia pit - tin bat nahasten baldin baditugu, lehen geneukan argitasuna - itzal bihurtzen zaigu; beti erabili izan dugun semiologia pi- kutara joaten da.

Beraz, goazen dibertimentu egitera, goazen seduzi - tzera, argitasun faltsugarria kentzera antzerkietan bezala), eta hermeneutika has bedi.

BI .-

Hasierako filosofietan jadanik, antinomia aurkitzen dugu:

.- Zer egin behar da, doxa edo epistemea?,zioten - PRE-Sokratikoek.

.- Zer harreman dute gure pentsamenduak eta bizi - tzen dugun bizitzak?

Platon-en leize-zuloaren mitoak erantzun bat eskai- ni zuen galdera hori konpontzeko, baina, doxa edo epistemeaz hitzegiterakoan ikurrak erabili behar zirela garbi geratu zen. Adibidez, Enpedokles-en lau sustraiak: Zeus, Hera, Edoneo, - eta Nestis edo sua, haizea, lurra eta ura, denak ikurrak zi - ren, ez lurrean agertu ziratekeen lehendabiziko elementuak - edota garrantzitsuenak aditzera emateko, baizik eta zer-nola- ko harremanak zeuzkaten gauzak beren artean jakiteko.

Eta hala nola lehendabiziko pentsakeraren aztarnetatik kezka hori etorri zaigu, hau da, zer erlazio moeta dauzkate guk pentsatzen ditugun gauzak eta errealitateak? Eta geuk errealitatea aztertzeko erabiltzen ditugun tresnak eta errealitatea bera?

Bi arlo hauen arteko mugan kokatzen da ikurra eta erreferentearen arazoa, eta berau ongi ulertzeko, historia-ikerketa egiteko, hortik abiatu beharra dago.

Zentzu hortan, Foucault-en lanak "jakintzaren arkeologi" bat lortzeko oso aproposak dira.

Arlo hauen barrura sartzeko Michel Foucault-ek berak Nazioarteko VII. Filosofia batzarrean, Royaument-en , 1964an, azaldu zuen ponentzia erabiliko dugu. (3)

Ikuspegi hortatik bi episteme moeta bereizi behar ditugu, hots, episteme klasikoa deritzona eta XIX. mendeko epistemea.

Episteme modu ezberdin horien bitartez era eta molde ezberdinak ikusiko genituzke ikurra eta erreferentearen arteko harremanak ulertzeko.

Aldez aurretik esan beharko genuke ezein hizkuntzak ez duela adierazten, doi-doi eta zehatz-mehatz, esan nahi duena.

Hau greziarrentzat beste antinomia bat zen: allegoria ala hyponoia, hau da, esaten dena edota esan litekeena.

Bestalde, esan genezake, adierazpenean ez ditugula hitzak bakarrik. Hau, gutxi gora behera, greziarren semainon -a litzateke.

Hortaz, akats hauek nola konpondu dira mendeetan zehar?.

Episteme klasiko delako horrek antzekotasunera jo - zuen eta horrela zehaztu egin zituen antz moeta guztiak gau - zen arteko harremanak ulertzeko. XVI. mendean mundua ulertzeko modu ezberdin batzuk eskaini zituzten (consensus bat izateko munduarekin): convenentia, sympatheia, emulatio, signatura eta analogia antzekotasun kriterio ez berdinak ziren baina denak hermeneutikaren ulerkuntza horien barnean sarturik.

Aitzitik XIX. mendeko epistemeak azpiko egitura bilatzen zuen; Freud, Nietzsche eta Marx-ek errealitatea ulertzeko erabili zituzten prozedurak hortik ibili ziren. Une - hartako kakoa ez bait zen antzekotasun mekanikoa bilatzea(gauza bakoitza bere aldetik erakusteko) baizik eta, ideien gor - putz baten bidez ikusi eta ulertzeko errealitate osoa. Garai hartan ikurra ulertzeko era aldatu egin zuten. Horrela ikurraren mamia eta hermeneutika osoa aldatu egin zen.

Marx, Soziologian(gizartelogian?); Freud, psikolo - gian; eta Nietzsche, etikan. Bakoitzak bere arloan eta bere -

ikergailuekin errealitatea modu berri batez interpretatzen du. Azkenean beste interpretapenen bidez ulerkuntza (interpreta - zioa) egiten dute beti. Allegoria eta hyponiaren oinarrian - eraikia dago haien "kontzeptuen gorputza" eta hortik abiatzen dira.

Klasikoen jakintza eta XIX. mendeko iraultzaren pentsamendua hobeto ulertzeko, hau da, beraien antzak eta kon - traesanak aztertzeko, Trias-ek (4) zer dioen ikus genezake.

Aintzinakoen jakindurian azpimarratzen dena diskurtso eta ikurra dira; esanahia eta gauza bera ahaztuz. Grafikoki:

DISKURTSOA	(+)	/	ESANAHIA	(-)
IKURRA	(+)	/	GAUZA BERA	(-)

Alderantziz, beste episteme moetan adierazpena da - ahaztu egiten dena. Ikuspegia berriro gauzara doa eta sakontzeko egitura ikusi nahi du. Beraz horrela izango litzateke.

DISKURTSOA	(-)	/	ESANAHIA	(+)
IKURRA	(-)	/	GAUZA BERA	(+)

Bereizketak hauek dira, baina bietan sofisma delako bat azaltzen zaigu. Bai klasikoen epistemean eta XIX. mendeko zientzian ere hitz eta esanahiaren arteko erlazioak, ikur eta erreferentearen arteko harremanak egiazko kriterioak beza

laxe agertzen zaizkigu. Hau da kezka hau. Bi sistema moeta horiek interpretapenerako molde jakinak inposatzen dituzte, ez dute arbitrario direnik onartu nahi.

Eta ez Platon-ek, ez XVI. mendeko filosofoek, ez eta Marx, Nietzsche edo Freud-ek ere ez dituzte ikurrak interpretatzen interpretapenak baizik. Interpretandum-a beraz in interpretans-a dateke, eta zentzu honetan ere, hitzek, berez, edukirik ez dutenez, jakintsuen bortxakeriaz, ulerkuntza berezi bat inposatzen da. Hortaz Nietzsche-k dioskuna gogoratzekoa litzateke.

Ondorioz, betiko epistemearengan (klasikoa eta XIX. mendekoa) behar dugu gure hermeneutika eraiki, baina ez zentzu hegeliar batetan, baizik eta ikur eta errealitatearen mugak onartuz. Produkziotik kanpo ibiliz, gure hitzak isuriz... "doxa" estetiko bat seduzitzeko esanez, eta, azken finean, semantika mekanismoaren ardatza puskatzeko egin behar dugu diskurtsoa: mintzoa, logos...

...Bigarren zatitxo honen amaiera gisa, errealitate eta hitzaren arloak bereiztuta gera daitezen eta horrela doxaren bidea argiagoa gera dadin.

HIRU.-

Nahiz eta orain arte ikusi dugun epistemearen haustura unea hiru zientzia moetak ikutu duten, hau da Marx, Niet-

zsche eta Freud-ek sorrerazitakoak, badirudi, azken hau beste ak baino modagoan dagoela.

Marx garbiegi izategatik eta Nietzsche ilunegiaga - tik den orduko, desagertzen da, ia ia une berean, eta, nola - jakin gabe, eszisioak izanagatik, hamaika tranpa eta hamaika kritika hartuagatik, gero eta sendoago (horrelakorik esan bali teke) agertzen da geroztik.

Gainera, Nietzschek, gutxienez, kritikak egiten zizkion bere buruari, eta Foucault-ek berak, hori onartzen du (5) baita Marx-ek ere, kritika pilo bat jaso du leku guztietatik (badirudi azken aldi honetan Marx-en aurka egotea modan dagoe la ere) baina Freud-ekin ez da gauza bera gertatzen, alderantziz baizik, XX. mendeko aztia bihurturik edo, hobeto esan, - XX. mendeko gizartearen aita azaltzen zaigu.

Psikoanalisia dugu gaur berriro modan, eta guri(sasi-mintegi hauetatik) ikurra eta gizartearen arteko harrema - nak ulertzeko gehien interesatzen zaiguna ere.

Bide hortatik jarraituz, psikoanalisiaren barruan - aztertzeko interesanteena Lacan izango litzateke, ez modan da - goelako bakarrik, baizik eta ikur inkonszientearen erlazioak gehien ikertzen dituena delako.

Bai, hala da. Gaurko psikoanalisia ortodoxoa Lacan da, heterodoxiaren barruan kokatua.

Lacan-ekin, Freud-en eskola denbora onenetan bezala bilakatzen da eta Lacan-ekin hitza eta inkonszientearen arteko harremanak argitzen dira teori-gorputz bat hartuz, zeren - eta, Lacan-entzat inkonszientea hizkuntza bezala egituratua - bait dago (6).

Jacques Marie Lacan-ek beti koherente nahi du izan, eta Freud-en kontzeptuak azkeneraino landu ditu. Horrela - ulertzen da psikoanalisi Elkarte guztietatik bidalia izatea, edota berak sortutakoetatik atera izana.

1953 urtean, Paris-eko Psikoanalisi Elkartetik, lehendakari izan eta gero, joan egiten da.

1954ean, Nazioarteko Psikoanalisi Batzordea Londres -en bildu zen eta Lacan-i sarrera debekatu zitzaion. Urte berean Lacan, Lagache eta abarrek Frantziako Psikoanalisi Elkartea sortzen dute.

1963 urtean, Lacan, batzorde horretatik bidali egiten dute.

1964ean, Lacan-ek Paris-eko Freud-en eskola fonda - tzen du.

1980 hasieran, eskola hau desegingo du. Urte be - rean "Cause Freudienne" elkartea eraikitzen da Lacan-en inguruan.

Ez al dizue guzti honek Adler-en kontra eta Joung-en aurka Freud-ek izan zituen eztabaidak gogorarazten?

Gaur bertan, Psikoanalisia ulertu edo kritikatu nahi izanez gero, Lacan-engana jo beharra dago. Eta bere ekarpen garrantzitsuena, pentsakeraren eta zeinuaren arteko erlazioak filosofiaren arlora ematea izan da. Hau da, hain zuzen desarroilatzen ari garen gaia.

Inkonszientea eta hizkuntza Lacan-en teorian, isomorfoak bailiren azaltzen zaizkigu. Honela ulertuko dugu nola hitzaren bidez inkonszientearen ikerketa eta teoria agertzen diren.

Gauzak honela, berak darabilen zientzia oso lotuta lekioke semiologia edo linguistikari, baina Jakobson-ekin haserretu zenetik linguistikaren ordez, "linguisteria" deritzo Lacan-ek.

Halaz eta guztiz ere, argi geratzen da Lacan-ek, Freud-ek zerabilen epistemea azpimarkatzen zuela, bere zentzu semantikoan ulertuz eta Foucault-ek aipatzen zituen kritikak kontutan hartuz (arestian aipatu duguna) (7). Gainera gure ikuspegitik hartuz gero berak "psikoanalisi garbia" deritzon horrek, gure kritikaren ateko bideak erakitzen ditu.

Psikoanalisiak, XX. mendearen hermeneutika egiteko ekarpen teoriko garrantzitsu bat izan behar luke. Baina, se-

mantika bezala eraikitzen da, eta honetan, ikur eta erreferen tearen arteko erlazioak, metodologi berdinaz finkatzen ditu, eta erreferentearen jarioa laburtzerakoan, "gauza bera" gal - tzen du beti, "bere baitango gauzak" ihes egiten baitio.

HIRUgarren kapitulu honetan, aipatu berri dugun hau hiru kritika-unetan desarroilatzen da:

I.- Franckfurt-ko Eskolakoek Psikoanalisiaren sujetoa desagertu egin dela diote. Teoria hori defendatzen dutenentzat, Freud-en teoria (ideien azterketa moeta bezala) gorputz teoriko sozial batetan kokatua zegoen, eta garai hartako arazoei erantzun bat eman nahi zien.

Ez psikoanalisiak eta are gutxiago "psikoanalisi - garbia"k ezin dezake gizartea erakutsi. Marcuse eta Fromm-ek bereziki, hau diote:

"Ez da psikoanalisiaren errua gaurko prozesuan bo - rrokatzeko sasoirik ez izatea" (8).

Frantziako giza-psikoanalisiaren kritikak bide hortatik doaz, kapitalismo monopolistaren gizartearen barruan - aita (Freud-en kontzeptu bezala) ez dela agertzen esanez; familia monogamiko zeritzan hura pikutara joan delako. Gerard Mendel, Christian Vogt eta abar luze batek kritika bera egingo diote (9).

2.- Foucault-en kezketatik (lehen aipatuak) Edipoaren arazoa sortzen da, nahiz eta Deleuze eta Guattari-k beren aldetik landua izan.

Deluze-ren Elkarrizketetan eta konkretuki"Anti-edipoan" (10) Freud-en teoria aztertzen da zentzu kliniko eta - zientifiko batetan Edipoaren kritikara iristeko.

Psikiatra hauentzat Freud-en teorian ikusten diren gauza guztiak Edipoaren hirukiara laburtzen dira eta hor ba - rruan bere esanahi osoa galtzen dute.

Aita, ama eta Edipo kontzeptuek teori tresna bezala erabiliz gero gogamenezko ikur guztiak ulertzeko balio dute - eta honela ezin daiteke errealitatea ikus, zeren eta egitura hori leku guztietan azaltzen bait zaigu.

Errealitatearen isurtze, bizitzaren jariotze, erotasunaren iragatea, psikoanalisiatik aldegiten zaizkigu; aldiz, Edipo agertzen zaigu kantoi guztietan.

Eta praktikan ere, psikoanalisiaren tresnek ez da - maiote irtenbiderik eskizofreniari, ez eta edozein psikosis - moetari. Honela dio, behintzat, Laborne-ko klinikaren ezpe - rientziak.

Psikoanalisiak hiruki baten barruan hesitzen gaitu,- Edipoaren hirukian alegia, eta honela semantika modu bat beza

la finkatzen da. Berorrek ematen zizkigun kontzeptuak beren artean esplikatzen dira eta iragate horretan errealitatearen erreferentziak galtzen ditu iragatearen zentzu hori onartzen ez duelarik, bestalde.

3.- Praktikan ere, psikoanalisiari beste kritika batzu egin zaizkio. Lacan-ek hitzaren bidez inkontzientea azter, ezagut eta zuzen (?) daitekeela dio, hitzak eta inkontzienteak egitura berdina dutenez.

Psikomotrizitatearen arlotik makina ahots altxatu da hitza ez dela adierazpen modu bakarra, eta inkontzientea (azpikontzientea?) ulertzeko (adierazpenetik -zentzu zabal batean ulertuz- pasa egin beharko genuekeela) esanez.

Hau ez da akats praktiko bat bakarrik izan, psikoanalisiaren aurka agertu den teori gorputza baizik. André Lapierre-k eta Bernard Aucoutourier-ek bereziki bide hauetatik lan egin dute (11).

Ikurraren eta adierazpenaren arteko harremanak ulertzeko hitzari borroka irabazi behar diogu edo haiek dioten bezala:

"Mugimenduak plazerra ematen du berez... eta ikuspegi hau da, hain zuzen ere, Freud-en obrari falta zaiona"(12).

Psikomotrizitatearen ikuspegitik kritikak egiten dituztenek eta beste zenbaitek ere, ez dute ikurrak eta errefe-

rentearen arteko erlazioak ulertzeko psikoanalisiak balio ez duenik esaten, Hegel-en filosofiaren ikuspegiari jarraituz, - Freud eta bere teoretika gainditu egin behar dugula aitortzen ba dute ere. Bestela, hau da, Freud-en teoria gainditzen ez badugu, hiru atal hauetan argi ikusi den bezala, hiruki baten barruan, Edipoaren hirukian, alegia, harrapaturik geratuko ginateke eta ez genuke beraz, hermeneutika egiteko posibilitaterik izango.

LAU.-

Orduan, psikoanalisiaren hirukiaren ordez lauki bat proposa liteke edo lauki asko, hobe, sare bat osatzeko. Garoaren sustrai bat eraikitzeko zuhaitz baten ordez (13).

Ikurraz, sinboloaz... zeinuaz lana egiteko egitura sinple bat behar da, "gauza bera", erreferentea ez galtzearen.

Hemen errizoma modeloa agertzen zaigu eta Pablo Sastre-k (14) Kafka-ri buruz argitaratu zuen lantxoa begiratzea komeniko litzaiguke. Honela dio:

"Hitz batez, errizoma edo egitura mekaniko direlako horiez askotariko egiturak dira, inguratzen gaituzten egitura konplexu guztiak, alegia... errizoman, edozein puntu batek - okerra. Antigenealogia beraz: aldaketa, zabaldura, konkista, harrapaketa, eta abar gertatzen dira; argazki, irudi, kalkoa-

ren kontrakoa; mugagabeki desaraiki, lotu, alda daitekeen mapa" (15).

Deleuze eta Guattari-ren nahiaren bidez edo Foucault -en boterearen bidez sinboloa eta errealitatea aldendu egiten dira, bakoitzak bere aldetik jarraituz.

Ez daukagu, klasiko epistemengan bezala, antz kriteriorik. Errealitatearen sakoneko egitura ezagutzeko, XIX. mendekoek zioten azterketa molderik ere ez daukagu. Hauxe da daukaguna: itzultze kontziente bat hizkuntzara baina errepresentaziorik gabeko hizkuntza batetara, subjetibitatetik, sujetoarengandik, isuritzen den, iragaten den hitzaren bilakaera batetara.

Horrela hermeneutika berezi batetara heltzen gara, eta hor, ulerkuntza da ikerketa edo ulerketa egiten duena, eta gainera, ulerkuntza hori, berari itzultzen zaio. Errizoma hori (laukitxo sarea) geure hermeneutika tresna bezala, ulerkuntz-gailu bezala, ihezbidez josita agertzen zaigu, gauza beraren mundua eta gura hitzaren bilakaera erlazionatzeko.

Desterritorializatu eta birterritorializatu, (Deleuze eta Guattari-ren kontzeptuak) uler daitezke dialektika horren barnean.

BOST.-

Honek arraro samarra badirudi ere, Foucault-en (Hi-

tzak eta Gauzak obran bereziki) eta edonoren ikuspegitik gaurko filosofiaren krisia nabaria da.

Nahiz eta psikoanalisian, marxismoan, etikan eta abarretan kontzeptu moeta batzuk erabiltzeko ohitura izan,kontzeptu horiek aldatu egin behar dira, eta beste zientzietan ere bai. Esanahiak eta egiturak nahitaez aldakorrak dira. Hona hemen Lapierre-k honi buruz esaten diguna:

"Duela denbora asko esperimental zientziek koerente datekeenari ezetz esan diote, eta fisikak, halaz ere, une batzuetan argiaren teoria korpuskularra eta teori bibratoria erabiltzen ditu nahiz eta kontraesankorrak direla jakin. Zientzi teoriak errealitate ezezagun batetan kokatutako sistemak dira, bilakaera errealitateren ondoan gero eta hurbilago egoteko, sistema horiek aldatuz, bilakatzen da" (16).

Eta zentzu berberean P.K. Fayerabend-ek(17), lehen erabiltzen zituzten kontzeptuen aurka borrokatzen, episteme guztiak, aurrera jo egin dutela, esanez Hegel-ek dioen bezala:

"minerbaren ontzak ilunabarretan egiten du hegan..."

Gauzak korapilatsuak iruditzen zaizkigunean, iluntasunean, jakintza agertzen zaigu.

SEI.-

Teori sistemak desgastatu egiten dira, noski. Entropiaren legearen azpian egiturak, errealitatea galduz, gero eta fijoagoak bihurtzen dira. Horrela, haustura batetara -

iristen da eta ordurarte balio izan duen sistema bat (teoria molde bat), errealitatearen handitasuna efikaziaz ikusteko, - txiki gelditzen da.

Errealitate deritzan hori, beti edozein teoria baino handiago da, teorietan eta errealitatearen munduan, entropiaren porzentaia ezberdina bait da.

Honela bada, errealitatea (gizartearen bizitza) desgastatu egiten da, eta behar berriak sortzen direnean lehenerabiltzenziren teori-sistemek, desgastaturik daudenez, ezin dituzte behar horiek bete.

Aintzinako Grezian, adibidez, etxe bat eraikitzerakoan eta itsasoan ibiltzerakoan, lurra planeta zuzena zela - eta eguzkia bere inguruan zebilela pentsatzen zen, eta egia - esan, kriterio baliagarriak ziren, nonbait, eta hipotesi horiekin egindako kalkuloak, itsasoz ibiltzeko eta eklipseak - ezagutzeko, egokiak ziren. Baina, halare, giza aldaketen bidez erroak nabarmenagoak egin ziren eta teori ikuspegia aldatu egin behar izan zuten. Hain zuzen ere, Kaliforniako San - Franzisko zubia egiterakoan, planetaren borobiltasuna kontutan eduki behar izan zuten Koperniko-ren teoria hartuz eta - Ptolomeo-ren kosmogonia baztertuz.

Garai bakoitzak zientziaren ikuspegi ezberdin bat - izan du momentuan nagusitzen zen zientziaren arabera.

XVII. mendean, adibidez, fisika; XVIII.garrenean Natur zientziak; XIX.ean, historia...Mende honetan, berriz, linguistika, psikoanalisia eta gizartelogia nahasten dira bata - besteari nagusitu gabe, eta normala da.

Errealitatearen eta teoriaren desgastapen porzentaia, gizakontsumo oso handia denez eta teori sistemek lehen zituzten kontraesanak izan gabe, nahastu egiten dira. Ondorioz, une honetan, ez dugu zientzia nagusirik. Ez daukagu - ikerketarako zientzia nagusirik.

Desgastapen-kontsumo gizarte honetan ez dira formak finkatzen direnak; mugimendua da, aldaketak baizik. Orduan - zer egin behar dugu sinboloekin, ikurrekin...? Interpretatu, ulertu, irakurri, edo sentitu bakarrik?

Zientziaren kontzeptuak erlazionatzeko sare zabal - bat behar da, eta jakin ere zientzien arteko mugak gero eta - ilunagoak direla eta interdisziplinaritatearen aldeko iri - tziak gero eta gehiago ari dira. Sare horrek, bestalde, aldaketaren mugimendu hori ulertu beharko luke.

Dialektika oso baten barnean berarengana bihurtu beharko litzatekeen hermeneutika egin beharko genuke.

ZAZPI.-

Beno... eta badirudi bukatzen ari garela. Zazpigarren espazio magiko hauen barnean mitikoki mintzatuko gara.

Cassirer-ek "gizasemea sinboloz osaturiko sare ba - ten barnean dagoela" esaten digunean, guk hor (sarean, alegia) agertzen diren erlazioak sasi-mitoak direla esan behar dugu ; eta XX.mende honetan, gauzen eta gizartearen arteko harrema - nak zientifikoak iruditzen bazaizkigu ere, mitoak izaten ja - rraitzen dira. Bestela nola sinetsi geure inguruan dauden - tresna guztien funtzionamenduaz . Hain zuzen ere, aparailuak ugaritzen doazen neurrian gure ezagutza bere egituraz eta fun tzionamenduaz murriztu egiten da. Guk giltza sartzerakoan adi bidez, edo botoi bat ikutzerakoan, ondorioetan sinisten dugu, hor barruan dauden erlazioak ezagutzen ez baditugu ere, mito gisa.

Baina mitoa erabiltzeak ez du esan nahi atzeratuak - gaudenik edota beste ikuspegirik lortu ezin dugunik. Hala - ere komenigarria izango litzateke mitoak gauzen munduarekiko duen erlazioa aberatsa dela gogoratzea.

Aristotele-k mito errealitatea ezagutzeko tresna be zala ulertzen zuen, literatura mailan bederen; B. Brecht-ek,- bere lagunei errealitateari buruz hitzegiterakoan, ipuia (fa- bula-mito) erabiltzea eskatzen zien beti, Ekialdeko filosofie tan baita ere, hori irakatsi zaigu betidanik.

Mitoa, alde batetik, errealitatearen agerpena da - eta bestetik errealitatea ikertzeko eta ulertzeko era bat.Guk hermeneutika egiteko erabili dugun sarea bezala.

Mitoa, doxaren eta epistemearen mugan kokatzen da eta denetaz baliatzen denez ez da erreza zer literatur edo - pentsakera moeta den jakitea. Hau da guk behar genuena.

Gure sentsibilitatea eta gure hautemateko erak guztiz sortzaile izan behar duela jakinez, mitoa bera da krea - zioa. Mito bat puskatzerakoan beste bat azaltzen da. Mitoa, azken finean, doktoreen teorietan eta herriaren artean aurkitzen dugu.

Sakristan-ek, Luckas-en "Asalto a la razón" delako aurkezpenean, eguneroko bizitzarako balio duen zerbait, Ideologia izan gabe (Ideologia, kontzientzia faltsu baten zen - tzuan) teoria zientifikoaren eta praxiaren artean kokatua dagoena behar dugu, esan zuen (18).

Hauxe da, Errizomarekin lortzeko guk behar genuen - erreferentzia, hermeneutika berri bat lortzeko.

Hermeneutika (semantika bezala ulerturik alegia), - aspaldi erori zitzaigun egiazko kriterioak zituela sinisteagatik. Psikologian, pedagogian, literaturan edo soziologian, - praktikan azken finean, errealitatearen une ezberdinak bereizteko artearen irudimena eta zientziaren sistema elkartu beharko genituzke.

Teoria eta Praktikan, beraz, sistema zientifikoen - eta errealitatearen desgastea ikusiz, erizpide aldakorrak dituen interpretazio forma berri baten beharra nabaritzen da.

Lantxo honek forma hori izan nahi luke.

ERREAL.-

Erreala, errealitatea,... espreski ulertzeko, alda - tzeko, baina inoiz harrapatu, finkatu ez duguna, beste gauza - bat dela jakinez, filosofiaren sistemak kritikatu egin behar - izan ditugu.

Eta erreala (errealitatearen zentzuan, noski) beste bat bada ere geure harremanak berarekin (izadi eta gizarte bezala ulerturik) botere nahiaren bitartez bideratzen dira (De - leuze, Guattari eta Foucault erlazionatuz) eta Frantziako filosofoekin batera esango genuke: Botereak bueltarik gabeko antolakunde printzipio bezala eraikitzen du erreala. Boterea da,- beraz, munduaren mugagabeko ekuazioa, errealitatearen ispilua baina inoiz ez errealitatea bera.

Horrela bada, boterearen nahia errealitatean dago, - argiaren izpiak gauzetan dauden bezalaxe. Boterea errealita - tean urtzen da eta errealitatearekin desgastatu, kontsumitu - egiten da desagertu gabe, aldiz, errealitate osoan nahasturik dago.

Botere hau (errealitate larri hau alegia) aztertzeko episteme klasikoak ez du balio eta are getxiago XIX. mendeko - epistemeak. Zientziaren arkeologiak botere nahiaren bidea ezagutzeko, eta, azkenik, errealitatea eta hermeneutika berri bat ulertzeko ikuspegia ematen digu.

Betiko zientzia eta errealitate zahar hau izan da - erreal kontzeptua eta zientzi berriaren mitoa margotzeko, ge - hiago desgastatu egin duguna.

Mitoa ezian da, beraz, egin duguna, eta giza desgastapena lotzen badiogu horri errezago ulertuko dugu filosofia - ren krisia.

Hortaz, guk egin behar duguna zera da, betiko eske - mak eta kontzeptuak baztertu, ekipaia gutxi eraman, bidaia bat egiten ari garenez gero. Eta bidaia honetan boterea desegitera eta errealitatearen beste mito bat lortzera goaz...

"Beraz, lagunok Hor, Estadoa bukatzen den
lekuan ez al dituzu ostadarra eta supergi
zonaren zubiak ikusten....?"

Horrela mintzatu zen Zaratrusta (19)

FITO RODRIGUEZ BORNAETXEA

DONOSTIA

O H A R R A K

(1).- QUOGG kenduta, izenburuan dagoelako, erabiliko ditudan greziarretik hartutako hitz guztiak, euskaraz berri ida - tziak jarriko ditut arrazoi batengatik: nire helburua hitzaldia ematea zelako.

(2).- Jean Boudrillard. Olvidar a Foucault. Ed. Pre-Textos. Valencia 1978, 27 orrian.

(3).- Michel Foucault. Nietzsche, Freud, Marx. Ed. Península. Barcelona 1970.

(4).- Eugenio Trías. Teoría de las ideologías. Ed. Península. Barcelona 1970.

(5).- Nietzsche, Freud, Marx.... Op. cit. 42 orrial dean.

(6).- Claudio Sergio Ingerflom. "El padre severo - persevera". El Viejo Topo 57. Junio 1981.

(7).- Begiratu berriro Nietzsche, Freud, Marx.op.cit

(8).- Herbert Marcuse, Erich From eta Jean Laplanche. La vejez del psicoanálisis. Ed. Proceso. Buenos Aires 1971.42 or.

(9).- Gerard Mendel, La rebelión contra el padre. Ed. Península. Barcelona 1975.

(10).- Gilles Deleuze eta Claire Parnet, Diálogos. Ed. Pre-Textos. Valencia 1978.

(11).- A. Lapierre eta B. Aucouturier, Simbología del movimiento. Ed. Científico-médica. Barcelona 1977.

A. Lapierre eta B. Aucouturier, El cuerpo y el inconsciente. Ed. Científico-médica. Barcelona 1980.

(12).- Simbología del movimiento, op. cit. 44 orrialdean.

(13).- G. Deleuze eta F. Guattari, Rizoma. Ed. Pre-Textos. Valencia 1977.

(14).- Pablo Sastre, Kafka -literatura txiki baten alde. Deleuze eta Guattari-ren ikuspegiak". Susa 4. Donostia 1980.

(15).- "Kafka..." op. cit. 5. orrialdean.

(16).- Simbología del movimiento, op. cit. II orrialdean.

(17).- P.K. Feyeraben, Contra el método, Ed. Ariel. Barcelona 1977.

(18).- Gilo Dorfles, Símbolo, comunicación y consumo. Ed. Imen. Barcelona 1967. Alexander Cirici-ren hitzaurrean 23 or.

(19).- Federico Nietzsche, Así habló Zaratrusta. Ed. Agular. Buenos Aires 1974. 268 orrialdea.

PERTSONA ZIENTZIEN

JAIOTZA ETA HERIOTZA

Michel Foucault-en Les mots et les choses

Egile: APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin

antropologo eta irakasle. 1978

A U R K I B I D E A

1.- Nondik nora . . . . . 140 or.

2.- Posibilitatearen baldintza historikoa edo jakin tza desberdinen jarleku epistemologikoa, Errenazimendutik gureganarte . . . . . 141 or.

1.1. Gonbaraketa aldia . . . . . 143 or.
1.2. Errepresentaketa aldia . . . . . 144 or.
1.3. Posibilitate aldia . . . . . 146 or.
1.4. Ondore . . . . . 147 or.

3.- Giza zientziek Ratio europarrean edukiko luketen tokia . . . . . 152 or.

4.- Etorkizuna, egileak berak arteikusiko lukeen bezala . . . . . 159 or.

5.- Nire kritika . . . . . 163 or.

Bibliografia . . . . . 167 or.

1.- NONDIK NORA

Les Mots et les Choses (Une Archéologie des Sciences Humaines) liburua astiro eta luzaro irakurri ondoren, eta bere zenbait pasarte, egilearen zehaztasun gehiagoren premiagatik batzutan, eta bestatzutan nire esperientzia gehiagoren premiagatik, ulergaitzak gertatu zaizkidala aitortuaz, nire asmoa zer izan den agertuko dut: Foucault Michel-ek "L'Archéologie des sciences humaines" delakoa mugatzen saiatu izan denean erabilitako zenbait galdera, gurutzelkarketen bidez taxutuaz, aztertzekoa.

Nire pentsaketaren izenburuak, hain zuzen, Foucault-ek delako lanean agertu duen pentsamendua ondoko hiru parrafo hauetan bildu nahi izan du:

1.- Zientziaren (edozein? Bloch-en posibilitate kalkuluan, bai baina, Bloch-ek berak dioen bezala, "gauzetan" edo "joandako ekintzaren posibilitatean", inondik inora ere ez. Ikus Bloch M. in "Mêtier d'Historien", 60 or.) posibilitatearen baldintza historikoa, "ratio" europarra, "ia etengabeko" mugimendu batek "Errenazimendutik gureganarte" bultzatu duena, eta berorren arkeologiak segidazko aldiak, baina bata besteareng andik garbiro bereziak, agertu dituena (Foucault in "Les mots et les choses", 13-14 or.)

2.- "Ratio" europarraren barnean giza zientziek edukiko luketen lekua.

3.- Pertsonaren edo giza zientzien etorkizun posiblea, Foucault-ek susmatuko lukeen modura.

2.- POSIBILITATEAREN BALDINTZA HISTORIKOA EDO JAKINTZA DESBERDINEN JARLEKU EPISTEMOLOGIKOA, ERRENAZIMENDUTIK GUREGANARTE.

Bera osotzen eta mugatzen duten oinarrietan jartzen da jakintza guztia. Kultura batetan ezin dira bizikidetu jakintza bezala eraikitzeko posibilitate bati edo askori lotutako jakintza desberdinak. Jakintza guztiak barneren batetik zehar igaroko lirateke, bertatik bakar bakarrik hartuko luketelarik jakintza estatutu mugatu bat. Beraz, Foucault-entzat badago lehen mugimendu bat, jakintza estatutu mugatuaren jabeketarena; delako mugimendua, ordea, ondorengo beste mugimendutatik igaroaz bakarrik agertuko litzateke. Eta mugimenduok ia posible den edo iadanik den jakintzaren bilakaeratik letozke.

Foucault-ek jakintza bakoitzarentzat aipatutako dikotomiak aise markatzen du gure autorentzat ondoko bi galderotan egongo litzatekeen aldea: 1.a, era desberdinaz ezagutzerik bai ote legoke?; 2.a, kasu bakoitzean nola ezagutzen da?

Hogeigarren mendean egon arren, filosofoa gizakintza pilo handiaren gainetik jartzen da. Horixe da, behintzat, Merleau-Ponty eta Jean Paul Sastre ospetsuen ondorengotzat emana izan denak buruzbelarriz egin nahi izan duena.

Argi eta garbi legoke gure begiradak, aldi bakoitzean, jakintzaren (hots, jakintza horren bilakaeraren) eta bere posibilitatearen baldintza historikoaren bitarteko atezubia gaindi-tu beharko lukeela. Hau eginke lukeen artean, jakintza berri-rik ez legoke.

Gainera, Foucault-ek dioenez, ontzat eman beharko li-tzateke zera: garai (eta leku) jakin batetan emandako jakintza posibilitatearen baldintza historikoa barneratua ez litzatekeen bitartean, sakontzearren, "inguratzearren" eta, honenbestez, bazterreratzearren, ezinezkoa gertatuko litzatekeela jakintza posibilitatearen baldintza historiko berri bateruntz, pauso be-rriaz, jotzea. "Kultura batean, dio Foucault-ek, eta jakineko une batean, episteme bat besterik ez dago sekula, jakintza guz-tien posibilitate baldintzak mugatzen dituena" (in Les mots et les choses, 179 or.).

Garai eta kultura mugatu batetako jakintza desberdin guztiak bustitzen dituen epistemearen oinarrizko presentzia de-terminatzailea argi eta garbi dago Foucault-entzat, eta gure-tzat ere halaxe dela esan behar omen dugu. Horren froga azke-nengo lau mendeetan Europa mendebaldean gertatu dena geure be-giz ikustea aski omen dugu. Halere, denbora luzez ez omen ga-ra konturatu XVIII. mendetik XIX. mende bitarte horretan posi-bilitateen sistema masiboki aldatu dela, ez arrazoimenak aurre-rakuntzarik egin duelako, dio Foucault-ek, baizik eta horrek gauzen izakeraz eta hedapenaz jakintzari eskeintzen dion orena ere, barren barrendik aldatua izan delako (in Les mots et les choses, 14 or.).

Horrela bada, baldin Errenazimendutik gureganarte osotu diren jakintza desberdinak aztertzen baditugu, hiru aldi bereiz ahal izango dugu. Aldi bakoitzak bere berea duen epistemea edukiko luke. Episteme bakoitzak, bere lekua; berdin,bere inguruketa. Episteme bat eta beste baten arteko zerikusi bakarra, denboran zehar bata bestearen ondoan agertzea litzateke.

1.1. Gonbaraketa Aldia

Errenazimendukoa litzateke. Gonbaraketa aldian jakintza oso "analogiaz" osotuko zen. Gonbaraketarako jakintza lau operazio edo "figura nagusitan" oinarritzen da: 1.a."convenientia", izaki guztien artean "hauzotasuna" ezartzean datza; 2.a.- "aemulatio", ez dagoenaren distira da, baina bere presentzia, hala edo hala, ez da baztertzen erabat; 3.a.-"analogia" beronen bidez continuum eta anitzkortasunaren batasuna osotzen dira; 4.a.- "sinpatia", antzekotasunaren formen jokuaren bidez gauza guztiak nahastuko lituzkeena. Horregatik bere ekintza bere biziaren menpeko gelditu izan da, antipatiaren menpeko.

Azkenik, gonbaraketaren epistemearentzat lehendik zeuden baino urrutiago gelditu dira gauzak, lehen ziren baino independienteagoak. Inguratutzeko dagoen modu bakarra, gauzek daramaten "izenpetzea" da. Beraz, Errenazimendu garaian ezagutzeak iritzitzea esan nahi du. Jakintza hau, ondorioetan, arlote da, "pletorismoz" edo gainbetetasunaz eta Aintzinaren eta bere idatzien (bere jakintzaren, hain zuzen) "dastamenez" betetik dago.

Errenazimenduaren epistemea, alegia, gauzak ikutu ordez gainegaldatuko lituzkeen jakintza du. Ezagutzeko nahiko litzateke gauzei gainbegirada bat ematea. Bestalde, Foucault-ek azpimarkatzen duenez, beste modu batera ezin zitekeen izan ere, jakintza posibilitatearen baldintza oro ezagutzearen eta ezagutze objetuaren arteko sinpletasunaz agertzen bait zen. Garai honetan, gaineratzen du egileak, izpiritu objetiborik ez zen, ez eta ere ezagupen positiborik.

1.2. Errepresentaketa Aldia

Ondoren, XVII. mendetik hasi eta XVIII. mendearen azkenerarte, errepresentazioaren aldia litzateke. Velazquez-en "Las Meninas" margoan, Foucault-ek dioenez, aldiaren adibide plastiko eder bat edukiko genuke.

Pertsonaia (berdin objetuak edo gauzak), zeini begira daude ikusleak, pertsonaia (erregebikotea) diot, "Las Meninas" margoan egon da. Begirada sakonaz hurbilduko litzakeen batengan ere errege bikoteari buruzko zalantzarik ez litzateke desagertuko, zeinen presentziak margoan ezin ukatuko izanik ere, bere ulerpen zuzenari, oraindik ere, nahitaez aldegingo bait lioke.

Egileak dioenez, errepresentazioaren epistemean ere, izakian gauza bera agertzen da, baina izaki hau ez dago behar bezala desestalita, agertuta, barrukotuta, hitz batez, "inguratuta".

Episteme horrek bizierazitako, osotutako, oinarritutako hiru jakintza agertzen dira, sortzen dira errepresentazio garaian: 1.a.- hizkuntzak; 2.a.- izaki bizidunen historia; 3.a.- aberastasunen analisia.

Lehen, Foucault-ek gonbaraketa aldian edukitako "arlotedunko" jakintza multzoan lau operazio edo "figura nagusi" bereizten zituen modura, orain ere, errepresentazio aldirako, jakintza klasikorako beste lau alderdi bereizten ditu, delako jakintza klasikoak objetibitateari, oraindik ere, heltzen ez diolarik. Zeintzu? 1.a.- "preposizioa"; 2.a.- "artikulapena" 3.a.- "izendapena"; 4.a.- "deribaketa".

"Gramatika orokorraren" (hiru jakintza klasikoetariko bat) lau alderdi hauek Buffon eta Linneo-n klasifikapenera eta Fisiokraten eta utilitaristen trukaketa edo kanbiora berdin hadatzen dira, Episteme klasikoa izpirituaren ekintza orora zabaltzen baita. Episteme hau ezinezko da "ezikustea", hortarako, hori desegingo lukeen episteme berri bat beharko bait litzateke, delako episteme berria bera ere giza izpirituak une eta leku berberera ("kulturala") zuzendutako ekintza ororen gainera isuriko litzatekeelarik.

Argi eta garbi ohartzen gara hiru jakintza hauek ("hitzegin", "sailkatu" eta "trukatu", HST), bata bestearekin posibilitatearen baldintza historiko bat, eta bera denentzat, besterik ez dutela, hau da, errepresentazioaren epistemea. Eta besterik ezin zitekeen egon ere, garai klasikoko jakintsu gehie-

nentzat, behintzat.

1.3. Posibilitate Aldia

Honela bada, hirugarren garaira helduko ginateke, XVIII. mendearen azkenaldetik hasi eta gureganarte hedatuko litzatekeelarik.

Oraindik ere, aurreko garaiko hiru jakintzak. Baina gauzen ulerpen berrian amaituko dira.

Pertsonaia (erregebikotea), erdi azaldua, erdi kanpoan "Las Meninas" margoan, objetibitateari dagokion episteme berriaren lekuan azken batez eta erabat agertuko litzateke. Oraingoz, Velazquez-en margoa kendu egingo litzateke, erregebikotearen presentzia zuzena ipiniz bere ordez. Bere paleta eta bere pintzelak lurrera jausten utziko lituzke Velazquez-ek "errege andrajaunaren" aurrean belaunikatzera joateko.

Aldi hontan hitzen, errepresentapenaren gainetik jarriko lirateke gauzak. Hizkuntzei bagagozkie, hizkuntza guztientzat fenomeno bakarra eta determinatzaile den horrek, hizkerak, zertzen du objetoa. Hizkuntzalaritzaren jaiotza da. Hizkuntza hitz bezala, dokumentu bezala ez da gehiago esistitzen (Foucault-ek ulertzen duen erako literaturaren etorrerarte), hots multzo bat bilakatzen da hizkuntza, pertsonak egina, hori bai , baina eginaz gero hor dagoena pertsona hiztunarengadikat dagoena, hotsak inoren menpeko ez bait dira, beren izakera

gordearen, barnekoaren, ezkontzientearen menpeko baizik. Pertsonak egiten du hizkuntza, eta honek agintzen dizkionetara bere hizketa moldatua dago, bere bilakaera, hizkuntza bakoitzean, arauzorrotzen arabera antolatutako hots sistemak kondizionatua da. Posibilitate aldian gauzak hitzen (hots kateak) gainetik jarriko ziratekeen.

Gauzak hitzekiko aldendu egingo ziratekeen. Bizidun izakiak, beren barnekotasun handiagoagatik eta hitzekiko (hau da, errepresentapenekiko) hartutako distantzia handiagoagatik bizi berberan bilakatzen dira, bere arau eta bilakaera eta guzti. Eta pertsona, behin eta berriro, bizitzak esandakoan oraindik ere aurkitzen da. Pertsona ere bizitzaren zati bat da, esagupeneko objetoaren zati bat, eta ezagutzen denatik at gehiago ez da aurkitzen.

Gauzak ia nonahi sortzen dira. Posibilitatearen leku epistemologiko berrian sendotzen da aberastasunen analisia, bertan agertzen direlarik gauzak, ezagupenaren objetoa bera, ikusgarriaren ezinikusgarripean (hots, errepresentapenaren objeto berberan). Pertsonak berak, bai horixe, egiten du aberatasuna, ekoizpenen balorea. Ondoren bakarrik, ordea, gizalanaren egiteak edo produkzio ekintzaren arauak, aberastasunen egitearenak ezagutuko ditu.

1.4.- Ondore

Ikasi duenean lekuan bere burua jartzen duen bitartean, pertsonak inoiz ez du lortuko objetoaren ezagupena, alde

rantziz, ordea, lehen zegoen baino urrutirago joango da delako ezagupenetik, bere errepresentapen horien bidez. Hauxe litzateke Foucault Michel-ek defendatutako tesia "ratio europarraren" hiru aldiei buruz egindako azalpenean.

Ikusten ez dena ikus daitekeelako, aipatutako objetoa ezagupen objetiboaren hatzamarrez hel daitekeelako, lehen lehen, dio Foucault-ek, "oinarrizko trebetasun" hau, hau da, "objetibitatearen" episteme hau, harrapatu behar da. Zer da hori, ordea? Gauzen izakia sentitzea, ez agertzen zaigunagatik horrela agertaratzen digunagatik baizik. Zeren pertsonarik ez litzateke garai horretaraino helduko delako "oinarrizko trebetasun" hortatik barne igaro gabe. Hauxe litzateke Foucault Michel-en tesia.

Har dezagun objetibitate epistemea lekuko. "Ratio europarran" sor zedin episteme hau, "giza naturaren kontzeptua bera eta erabiltzeko era" (Foucault in Les mots et les choses, 320 or.) guztiz alde batera utzi beharko ziratekeen, eta gero zuzen zuzenean arduratu "posibilitate guztien oinarri bezala pertsonaren izakia aztertzeko premiaz" (idem, 356 or.). Bigarren esaldian nire pentsaketaren bigarren paragrafoari burua ikusten diot, hots, ezagupeneko objeto berberetzat eta ez gehiago ezagutzen duen subjetotzat eta jakintza positiboen posibilitatetzat ematen den pertsona, hau zer bilakatzen da epistemean?

Lehentxeago Foucault-en lehen tesitzat eman dudana, orain neuk ere ontzat ematen dudala diot: ezagutu nahi denaren lekuan jartzen den bitartean pertsona, honek ez du sekula santan bereganatuko izendatutako objetoaren ezagupenik. Gauzak alde aldean egoten jarraituko dute. Bigarren tesiari buruz, ordea, galdera bat edo beste sortzen zait: I.a., oinarrizko trebetasun" horrek edo "objetibitate epistemeak" jakintza objetibo guztiak posible egin araziko lituzke, baina nola demostratu hura dela lehenen eta bere atzetik beste hauek? Izan ere, alderik, bitarterik egon al daiteke denboran, jardunbide zientifiko bat aztertzerakoan? Buffon-ek eta Linneo-k nola lortu zuten izaki bizidunen klasifikapena zutikatzea, lehenik errepresentapenetik ateratzen den trebetasunaz jabetuz ala txandatuz, ustegabearen edo jakinalaren gurpilezko bilakaeraren pean, bai trebetasun delokoaz bai izaki bizidunen azterketa zuzenaz? Jakintza klasikoen edo gaurkoen (Foucault-en hirukotearen) objetoa,nire eritzirako, bi gauzen pean aurkitzen da: jakintza berriak batzen doazten neurrian osoten den izpirituaren trebetasun berri batetan, eta, gainera, gertakari gordinetan. Nola zertzen dira horiek? Egun batez, batek gehiegi nola ez dakiela, fenomeno berri batez konturatzen da, dokumentu berriekin oztopozo egiten du, ezaguna zaion gauza bati arretaz begiratzen dio, abar eta abar. Hala eta guztiz ere, badirudi garai bakoitzak edo toki bakoitzak delako trebetasunaren lanketari nahiz datu berrien azterketa sakonari garrantzi gehiago ematen diola. Nik ederki ulertzen dut izpirituarentzat pozgarriagoa dela arrazionalatasunaren zaletasun mugagabe bat bultzatzen jardutea, baina, maiz, gure izpirituak buruaz jotzen ditu, horma bezala,

oraindik arazo konpongaitz direnak. Veyne Paul, Collège de France entzutetsuan sarrera gisa irakurri zuen ikaskaian, "Aldeen gaizerrenda" izenekoan, gure aldiak historia beraren materialitatearen ondoan historia ekintza burutzerakoan izpirituaren beharrari eman behar liokeen garrantziaz mintzatu zen. Lehentasuna litzateke hori, Veyne-k ulertzen duen arabera: "Ikusketaren beharrarekin konpara daitekeen adimenaren neketan ibiltzea, kontzeptualizatea, oraindik ere ez dira erreflesu ezagunak" (in L'Inventaire Des Différences, 25. or.). Bai; Halere esan al daiteke non amaitzen diren olatuak eta non hasten hondartza? "Izakiaren betetasun klasikoa isiltzen den leku berean amaitzen da XIX. mendeko jakintzaren objetoa" (Foucault in Les mots et les choses, 220 or.). Erabat eta izkina guztietan amaitzen al da? Buffon-en eta Linneo-ren klasifikapena ez al da gehiago aintzakotzat hartzen posibilitate aldiko biologian? Ondokoa erabat baiezta al daiteke?: "Smith eta Ricardo-ren arteko aldea hontantxe datza: lehenengoarentzat, lana, ogibide egunen arabera analiza daitekeelako, beste merkagai guztien (beronen beharrezko hornigaiak berak ere bertan sartuz) patroi orokor egin liteke; bigarrenarentzat, lan kantitateak gauzaren balorea finkatzen uzten du, lehenengoz eta funtsez, lana produkzio ekite bezala "balore ororen iturria" delako "(Foucault in Les mots et les choses, 226 or.). "Lehenengoz eta funtsez" pertsonen "lana", produkzio ekite bezala "balore ororen iturritzat" eman al liteke? Gertakari gordinek, horretan, "lanak" hainbat parterik ez al daukate? E.b., XVIII. mendean, Ameriketako Iparraldeko kolonietako landatokiek galanki on egiten die Inglaterrako komertzioari. Zartako ederra hartzen du Inglaterrak, honekiko independiente edo aska-

tasundun bilakatzen denean Ameriketako Iparraldea. Inglaterra ko ekonomiari muturreko handia ematen dio gertakari gordin honek. Berdin, XIX. mendean, Bizkaiko mehatz zuloetan jasotako burni inportazioan oinarritzen du, neurri handi batetan, bere aurrerapen industriala Inglaterrak. Gertakari gordina da. Aurkikuntzak ere, lehentxeago edo geroxeago ekonomiazko aurrerapenaren mesederako erabiliak, gertakari gordinak dira, neurri handi batetan. Hitz batez esanda, egia da, Ricardo-k dion bezala, pertsonen lanak aberastasunak egiten dituela, halere esan behar da lana burutzen den tokian baita ere badagoela gertakari gordinen bat, bien arteko harremana arrazionalizatzea batzutan gaitz bada ere. Egia da, baita ere, Foucault-ek dion bezala, ezagupen era berri bat ekartzen duela berarekin izpirituaren trebetasun berri batek, halere esan behar da trebetasun berri bat jaiotzen den tokian baita ere gertakari gordinen bat egon ohi dela, bien arteko harremana aldi hortako pertsonen izpirituarentzat eta, batzutan, geroagokoentzat ere berdin, beti ikusgarri ez baldin bada ere.

Nire bigarren galdera. Jakintza berrien sorrera zein den agertzen digu Foucault-ek. Ez digu agertzen, ordea, nola jaiotzen edo ematen den "oinarrizko trebetasun" edo episteme hori. "Aldi" bateko "oinarrizko trebetasun" horretatik urrengorainoko bidea nola burutu? Episteme zaharraren eta episteme berriaren artean hausketa egon dela esaten digu Foucault-ek. Bai, berarekin bat nator, baina "trebetasun berriaren" hasera rik, bilakaerarik, episteme beriaren genetikarik ez digu agertzen, erakusten. Nire pentsakeraren hasera haseratik esan -

dut XX. mendean filosofo bezala ari dela Foucault, beste era batera esan da, ezagutzeko posibilitatearen galdera eta jakintza bakoitzak ezagutza erabiltzeko duen era bereizten dituela. Bere begiradaren oinarrizko portaera bezala, lehenengo galdera bigarrengoaren gainetik ez ote legoke Foucault-engan? Baldin baietz bada, ondoreek hala al diote? Erantzun galderari.

3.- GIZA ZIENTZIEK RATIO EUROPARREAN EDUKIKO LUKETEN TOKIA

Ara, azkenik, nire pentsakeraren erdi erdian jarrita. Hau da, XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasera bitartean objetibitate epistemean oinarritutako beste jakintzen multzoan zein toki ote lukete giza zientziek (edo pertsonaren zientziek lehenengo adierazpena eskuarki erabil ohi duelarik Foucault-ek).

Egileak dioenez, zientzien edo objeto zientifikodunen artean giza zientziak sailkatu aurretik, ohartarazi beharko litzateke "gertakari gordin bat, hau da, giza izakiak esistituaz gizartean bizi direnetik, orain lehen aldiz pertsona, bakarrik edo taldean, jakintza objetu bilakatu dela". Eta datu hau, historikoki egun jakingarri eta izendagarri, nondik agertuko litzateke? Ez, noski, "aburuzko fenomeno bateko" menderritik, "jakintza mailakotik" guztiz, baizik (Foucault in Les mots et les choses, 356 or.)

Hots, behin eta berriro ohartu behar gara zeraz: gure egilearentzat giza zientzien jaiotza, beste zientzia objeti boena bezala, barrenki eta zorrozki loturik dagoela jakintza

oro osotzeko posibilitatearen baldintza historikoari.

Berritzul gaitezen jakintzen tiedrora (HST: Hitzegin, Sailkatu eta Trukatu, errepresentapen aldikoa; LBH: Lana, Bizia eta Hizkera, objetibitate aldikoa). Jakintzen triedroa (LBH), mende biren zehar arreta guztiz errepresentapenaren objetoa, mugatu nahirik, bila ibiliz gero, lortu, burutu zenean, lehen esistitzen ez zen epistime berri bati esker posible izan zen. Episteme berria, zer zen? "Matesiaren" erabilpen berri bat, agian? Errepresentapenaren hobekuntza? Ba, ez¡ erantzuten digu Foucault-ek. Izaki bizidunak "Taxeonomiaren" ikuspegitik ezik (ikusgarriaren mailakoa, beti ere) direnak izan arazten dienetik eta beste era batera izan ezin arazten dienetik, hots, biziarenetik hartzea posible egin zuena ez zen izan matesis unibertsalaren luzapena edo beste ikusmuga batetik etorritako matesirik. Hori, dio Foucault-ek, gogapenezko gogapenaren zati bat baino besterik ez zen. Zer, beraz? Episteme berria, ez gehiago¡, ez gutxiago¡

Zientzien triedrozko epistemearen "arkeologiatik" abiaturik, oraintsu Foucault-ek "gertakari gordin gordina" deitzen zuenetik ulertu ahal izango dugu LBH.

Hitz batez, mende bi haien bitarteko pertsonak, izaki bizidunak, aberastasunak eta hizkuntzak (HST) errepresentatu beharrean, errepresentapen oro algoratzen du eta bere gogapen gogartasuaren ahalegin berriz (berau ere gordina?), filosofia eta matesi berriei eskuak emanik, objetoa "zulatzen du",

bere ikusezintasunean ikusiz. Hori, bizia, lana eta hizkuntza da alde batetik, eta bestetik "gogapenezina" (Foucault in Les mots et les choses, 333-339 or. Ikus: "Le Cogito et L'Impensé"). "Bestea, senidezkoa eta bixkia, berarengandik jaioa ez da", hots, pertsonarengandik, "ez eta berberetik, alboan eta denbora berean baizik, izatasun berriarekin, nahitaezko bikoiztasun batetan. Hondartza argigabe hori..." Hitzegiten duen, bizi den eta lan egiten duen pertsonaren "mugatasuna" da hori, baina pertsona hori ez da gehiago hitzegiten, bizitzen eta lan egiten duenaren nagusi. Horrela bada, mende bi haien pertsona abiapuntu edo "posibilitate ororen oinarri" eta, "a fortiori, pertsonaren ezagutza oro baimentzen duenean" bilakatuko da.

Beraz, episteme modernoaren mendelurra nola agertzen da, Foucault-en arabera? Zein leku lukete bertan giza zientziek?.

Foucault-ek "jakintzen triedro hau" honela aipatzen du: 1., Matematika eta fisika edo "zientzia formalak"; 2., Biziaren, produkzioaren eta hizkeraren zientzia "enpirikoak"; eta 3., "Pentsaketa filosofikoa".

"Jakintzen triedro" honekiko non gelditzen dira giza zientziak, hots, psikoanalisia, soziologia, eta kulturaren, mitoen eta literaturaren historia? Hauek guztiok jakintzon "zirrizkutik" zehar sartuko lirateke Foucault-entzat (Foucault in Les mots et les choses, 358 or.).

Eta non agertuko lirateke historia, etnologia? Hauek jakintzen historiarekin batera, "gure jakintzan leku berezi bat daukatenak" izango lirateke.

Pertsona objetoren alderdi matematikagarria ez litzateke izango giza zientzien etorrera estrinatuko lukeena. Ezta "Condorcet", ez eta ere probabilitate kalkulapenaren bidez pertsona objetoa ulertu nahi duten gaurko haleginak. Bestalde "matesiaren atzerakaldiak" utziko zuen pertsona jakintza objeto bilakatzen.

Giza zientzien lana hitzegiten duen, lan egiten duen eta bizi den pertsona izango litzateke. Egia da hori, dio Foucault-ek. Baina ez leukate lantzat pertsona hitzegiterakoan, lan egiterakoan eta bizitzerakoan. Heuren lana bere izaki barnenetik agertzera ematen den baina lanaren, bizitzaren eta hizkeraren pean oraindik ere izkutaturik gelditzen den pertsona hori litzateke. Zein maila litzateke hori? Maila arkeologikoa litzateke hori, dio Foucault-ek.

Egileak dioenez, bizitzaren, lanaren eta hizkeraren jakintzekin elkartzeko arriskuan gaude, jakintza hauek pertsonaz daukaten errepresentapenarekin bakarrik gelditzeko arriskuan.

Nola lortu pertsonaren zientzien multzoa eseriko litzatekeen lekua? Jakintza "enpirikoak" zulatuz bakarrik izango litzateke hori. Leku zulatu horretan agertuko litzateke pertsona objetoaren izakia. "Horregatik giza zientzien egite-

koa ez da eduki baten helburua (giza izakia den objeto berezi hori, alegia); ezaugarri guztiz formal bat da, batipat, giza izakia, (osoki ekonomilarientzat eta hizkuntzalarientzat, edo partzialki biologolarientzat), objetotzat duten zientziekiko badela, hori bai berbikunketa jarreran, delako berbikunketa heurentzat a fortiori balioko daitekeelarik" (Foucault in Les mots et les choses, 365 or.). Beste pasarte batetan egileak "mugatasunaren analitika" deitzen dio horri. Hain zuzen, lerro hauek (zeintzu? ba, aldi berean jakintza batzu agertzen eta bestatzu izkutazen dituen inkontzientea, eta pertsonaren mugatasuna, hots, oinarritzen dituen zientzietatik zer etortzen zaion ez dakien pertsonaren mugatasuna, "mugagabetasunaren mugatasuna" alegia) elkarguruzatzen diren unean agertuko litzateke giza zientzien lekua, posibilitatearen baldintza historikoa.

Honela, Foucault-ek dioenez, argi eta garbi legoke giza zientziek jakintza enpirikoren modeloen "transferra" burutu dutela. Transferrak ikusezinera garama, giza zientzietako errepresentapen guztien oinarri den zerera: "inkontzientaren herrialdera", bertan egongo litzatekeelarik "gogapezina". Goldstein, Mauss eta Dumézil). Transferraren aurretik "dinastiak" edo aldiak izango ziren, zeinetan jakintza enpiriko bakoitza honelaxe litzteke: 1., biologiarena (Spengler); 2., egitearena edo produkzioarena (izenik ez digu, berriro ere, aipatzen. Chomsky-rena aipatu nuke).

Esandakotik, eta laburpen gisa, bi ondore aterako lirateke: 1., zientzi enpiriko modernoen jaiokeran ikusitako giza zientziek ez dutela jakin zientzia haiek gizonaz burutu du-

ten errepresentapena "alboratzen"; 2., "inkontzientearen" etorrerarekin (honen maisu ukaezina Freud litzatekeelarik gure egilearentzat) giza zientzien "posibilitateren baldintzarako" bideak zabal zabalik gelditzen direla.

Beraz, giza zientziak, maila arkeologikoan, episteme berria osotzen den atezubian agertzen dira, eta pertsona objeto bezala hartu duten jakintza hauen errepresentapeneraino (laster mende bi) besterik ez dira heldu aldi berean.

Hau esanik, hirugarren paragrafoaren aurrean gaude: giza zientzien etorkizuna, Foucault-ek dion arabera.

Baina lehenseago eta 2. paragrafo hau uzteko, honi buruzko zenbait galdera egitera behartua nago:

1.a. Esan al daiteke, Foucault-ek berak dion bezala, "gertakari gordin gordina" zientzia "enpirikoen" sorrerakoan lehen aldiz eman dela? Nik uste dut egilea kontraesan batetan jausten dela, edo eta bestela egun honi garrantzi gehiegi ematen diola. Kontraesana, zeren berak dio baita ere historia "gizonaren zientzia guztietatik lehenen dela, eta beren ama"; eta "giza oroitzapena bezain zaharra dela". Gehiegikeria, zeren "gertakari gordin gordina" baieztatzen du. Zer da zeharki gertatzen dena? Nik orain diodan erantzunak hirugarren paragrafora garamatza: pertsonaren zientzien etorkizunera. Hauxe besterik ez da bera: zalantzagarritasuna; Izan ere, gure garaiko arazo nagusia zera da: nola iritxi pertsonaren zientzien objetoa osotzera, aurrez bide beretik egin dena ahaztu gabe (Tuzi-

dides, Pascal, Renan, R. Simon, Mabillon, XIX. mendeko eskola alemaniarra, Fustexl de Coulanges:...)? (Honetarako ikus Bloch M.-ren Métier d'historien).

2.a. Ez al da kontraesan bat, alde batetik esatea jakintza bakoitzari bere epistemea dagokiola eta bestetik pertsona zientzien errepresentapena burutu duten jakintza enpirikoen sorrerako leku berberean giza zientzien jaiotza, maila arkeologikoan, eman izan dela esatea? Ala eta, bestela, eta orain ere hirugarren paragrafoan sartzen gara, nola agertzen dugu giza zientzien episteme berria, objetibitatearen epistemea "itxi" eta amaitu baino lehen. Hortaz jardungo naiz berehalaxe.

3.a. Aldi modernoko "jakintzen triedroaren" formularen arabera, "pentsaketa filosofikoak" episteme berriei (objetibitatearena, hain zuzen) sorrera emango lieke eta zientzi "formalek" korapilatuko lituzkete "triedroaren" beste aurpegi biak. Nola adierazi jerarkia hau? Adibidez ondorengo hauetan: Descartes-engan, matematikalari eta filosofo, aldi berean;Kant-engan, Newton-en fisika ongi ere ezagutzen duena eta, gainera filosofo dena; Hume-rengan eta Locke-rengan, ikerketalariak eta, berdin, filosofoak; Hegel-engan, Aintzinatik hasi eta beraganarteko historiaren ezagupen harrigarria zeukena eta, baita ere, filosofo zena; Nietzsche-rengan, Foucault-ek berak geniotzat jotzen duena, Aintzina ongi ezagutzen zuena, giza portaera zorrozki ikustatu zuena, eta, hau ere, filosofo zena? Eta abar. Nola, ordea?.

4.- ETORKIZUNA; EGILEAK BERAK ARTEIKUSIKO LUKEEN BEZALA

Foucault-ek giza zientziez mamitu duen pentsamendua da nik orain agertuko dudana hirugarren eta azken paragrafoan.

Bigarrengo paragrafoan ia ia ez ditut aipatu ere egin Foucault-ek, grina handiz gainera, azaltzen dituen jakintza batzu. Neuk ere, ordea, egileak berak bezala, azkenaldean erabiliko ditu, orain arte alboraturik egon balira modura, esandakoarekin zerikusi garrantzitsurik edukiko ez balute bezala.

Jakintza horiek historia, psikoanalisia, etnologia eta hizkuntzalaritza lirateke, denek giza zientzietan parte daukatenak.

Historia, "gizonaren zientzia guztietatik lehenengoa eta berauen ama" balitz bezala, eta"giza oroimena bezain zaharra ere" (Foucault in Les mots et les choses, 378 or.). "Begiruena diodala esan nahi dudan jakintsu handi batengan, Louis Robert-egan, ikusi ahal izan dut, lanaz adierazita, munduaren oroimen osoa zela historia", dio Veyne Paul-ek (in Comment on écrit l'histoire, 37 or.). Veyne-tzat historia dena bera ote da Foucault-entzat? Honek "ama" deitzen dio historiari, hark berriz, "ahizpa".

Psikoanalisia, "inkontzientearen berbaldia kontzientziaren bidez ematen saiatzen da... errepresentapenaren eta mugatasunaren erlazioak ematen diren oinarrizko lurraldearen zu-

zenbideruntz hurbiltzen datza" (Foucault in Les mots et les choses, 385 or.).

Etnologia, "historian" errotuta dago, hots, historia gabeko edo inkontzientezko ezkontzientean kokatzen da.

Foucault-entzat, etnologia eta psikoanalisia, XIX. mende haseran, bere mugatasunengatik, gizarte "enpirikoak" oinarrituko lituzkeenak pertsonaren kanpoaldera zuzenduak, "kontrazientzia" bezala har litezke (in Les mots et les choses, 391 or.).

Foucault-en arabera ulerturik giza zientzien tirabira deitzen diot nik horri.

Zientzi "enpirikoen" etorrerarekin giza zientziak ere, maila arkeologikoan, agertuko ziratekeen. Zientzi "enpirikoen" etorrera, gogora dezagun berriro, episteme modernoaren fruitua izan zen, delako epistemeak errepresentapen klasikoaren ("Las Meninas") ordez errepresentapen objetoa (erregebikotea) hartzen duenekoa.

Foucault-en logika besterik ez da episteme berri batek gizona ezagupenezko objetutzat hartzen duen jakintza bat posible egingo lukeela esatea. "Ratio europarrak" ederki agertuko bait zigukeen, aldi desberdinen bidez, "oinarrizko trebetasun" berri batek aldienatezubia gainditzen zuela.

Zalantzarik gabe agertzen zaigu galderen galdera. Zein? Giza zientziak posible egingo lituzkeen episteme hori zer da? Galdera honekin, beste hiru aldietako apistemeak ere berdin berdin ikutzen ditugu. Beraz, episteme berriaz adura - tzea, aurrekoetaz ere arduratzea da. Holanik, galdera bikoiz- tu egiten da: 1.a. Giza zientzien epistemea zer da?; 2.a. Fou- cault-en epistemea zer da?

Agian, hauxe da Foucault-ek adierazitakoa: berak bai no lehenago Hoderlin-ek, Hegel-ek, Feuerbach-ek eta Marx-ek, hauek denek agertu zuten segurtasun berbera, hots, heurekin (eta orain Foucault-ekin esan beharko litzateke) pentsamendu bat, eta behar bada kultura bat, amaitzen zela, beste bat hur- bilduz (Foucault in Les mots et les choses , 398 or.) Bide ba tez ohar bat bideratu nahi nuke: Foucault-ek aipatu dizkigun lau jakintsuak, denak alemaniarrak direla. Soluziobide eskato ligiko baten egarritan dagoela dirudi Foucault-ek. Baina eska tologiak, pentsalariak bere lanen eta bizitzaren ikusmugan an- tzemango lukeen pentsamenduaren amaiera ez ote luke adieraziko batipat?

Non agertzen da Foucault-en erantzuna? Nik azter - tzen dudan lanean Foucault ek leku asko egiten dio jakintza - ren eta ezpentsatuaren zeinuen gaiari (9. atalburua: "Pertsona eta bere bikoitzak"). Nietzsche-z honelaxe mintzatu da Fou - cault: "Bizitzaren edo lanaren lekuan bere objetua edo modelu kontzeptuarra, edo bere zoru erreala eta funtsezkoa izan zite- keen gauzaren bat bila zebilela (gogoeta filosofikoa) hizkeraz

erdizka baino ez jardutean, gogoeta filosofikoak bere lanari aurrejarri zezaizkiokeen oztopoak alboratzea zen bere agitekoa; adibidez, nahi zuena zera zen, alienatzen dituzten eduki isilkarietatik hitzak askatzea, edo eta hizkera bigundu eta barnetik ulermenaren espezializazioak gaindituz gero isurkin bilakatu bizitzaren mugimendua eta bere iraupena. XIX. mendearen azkenaldian, bakar bakarrik, hizkera, zuzen zuzenean eta bere kabuz, sartzen da pentsamenduaren arloan. XX. menderako ere, esan genezake, baldin eta Nietzsche filologoa -eta hortantxe ere jakintsu zen, anitz zekien, liburu onak idazten zituen denak baino lehen hizkerari buruzko gogoeta erradikaletara hurbildu ez bazen bere zeregin filosofikoan" (In Les mots et les choses, 316 or.) Nietzsche bera ere alemaniarra zen, erdi historiagile, poeta eta filosofo. Foucault-ek aitortzen digunez Nietzsche-k lehenen (Freud, Mallarmé...) arteikusi zuen pertsonaren mugatasuna, hau da, "pertsonaren heriotza". Balego filosofoak esaten duen "amaigabeko itzulera", beronen bidez "esistentziaren helburuaren maisuak" behin betirako bukatuko lirateke. Honenbestez, poeta, historiagile, filosofo, guzti hauek hizkeraren analitikaz murgildurik, helduko litzateke. Foucault-ek dioenez, "hizkera zer den aipatzen duen itaunera", hots, pertsonarengana (pertsona osoarengana?). (In Les mots et les choses, 397 or.).

Non gabiltza, ordea, gu? Haizeak eramaten dituen hitzen antzakoak ez al dira esamen hauek?

Foucault-ek honela erantzuten du: "esamen hauek ez dira horrelakoak, ezta pentsatu ere, gehienez ere erantzun ezin

zaien itaunak (zeren) agertzen zaizkigun leku berberean utzi behar dira, kontuan izanik itaunok azaltzeko posibilitateak, besterik gabe, geroko pentsamendu batetarako ateak irekita uzten dituela" (In Les mots et les choses, 397-398 or.). "Leku berberean utzi behar", giza zientzien azterketa luze honen ondorio bezala zihurtasun hau al da Foucault-ek ematen diguna? Delako zihurtasuna "ratio europarraren" historiaren azterketa luze baten ondorio dela agertu zaigula ahaztu gabe gero.

5.- NIRE KRITIKA

Hirugarren paragrafoa burutu ondoren, ondoko kritika egitera behartuta nago.

1. Foucault-ek hiru alditan (lehenengo bietan batipat, hirugarrengoan baino nabarmenago), eta aldi bakoitzean idazlanen ikerketa sakonean oinarritzen du bere analisia, maneiatu dituen berrien iturburuk ondo zaintzen ditu. Historiagintzan asko urratuta dago Foucault. Nire eritzirako egilearen alde positiboena horixe litzateke, aldi bakoitzean jakintza bakoitzarako eman diren funtsezko idazlanei buruz gogoeta handi handiak lortu baititu. HST eta LHB jakintzei buruzko gogoeta historikoa egin du historiagile eta filosofo frantziar honek. Laguntzik izan ote du?

2. Gizonaren zientzien jaiotzako eguna emateraino helduko litzateke Foucault, nahiz egun hori bezain garrantzitsu liratekeen bestatzuk gehiegi xamar zokoratu.

Itzalean laga ditu (zergatik, ordea?, garai horretako idazlanak ikustatu ez dituelarik) probabilitate kalkuluaren lehen ahaleginak. Edozein jakintza berri episteme berriaren ondorio delako berarentzat? Bestalde, Foucault-ek burutzen duen tesia, "ratio europarra"-ren iragana aztertzeko emana, horixe bera da.

Nik uste dut, Pascal-ekin eta honen jokuei buruzko gogoetekin astiro astiro agertzen hasten den giza zeintzien egunsentiari begiramen gehiago zor zaiola.

Baita ere uste dut gogoetaren abiadura gehixeago gelditu beharko litzatekeela datu konkretuen azterketa eta bere arteko harremanen zerikusia arintzeko.

3. Foucault-en epistemea orain oso ezaguna zaigu. Nik uste dut baita ere Foucault-ek agertzen digun baino nekezago, askotzaz ere nekezago, dela epistemearen eta jarleku epistemologikoan bilakatutako jakintza multzoaren arteko lerroa izendatzea. Frantziarrel erabili ohi duten esakera bat apropos datorkit hontarako: "L'appétit vient en mangeant". Horrenbesteraino ez, baina hortatik zerbait baino gehiago bai.

Izan ere, Bopp, Cuvier eta Ricardo, beste batzuren artean, Foucault-ek zehazki aipatzen baditu ere, beharko litzatekeen hainbat aipatu gabe uzten dituen jakintsuak eta pentsalariak dira. Hau da, filosofoaren funtzioak ez lieke, inolaz ere, eragozpenik jarri behar jakintsuei beren aurkikuntzez go-

goeta sakonak burutzeko. Honela askotzaz errazago izango litzateke, e.b., mugatzea episteme berri baten jaiotza eta bertatik letozkeen jakintzen oinarriketa. Horrexegatik nion, gorago, zeinen neketsua den gogoeta filosofikoaren eta jakintza konkretu baten eragieraren artean lerroa non dagoen izendatzea. Biak elkar lagundu behar dira, sekula batak bestea azpiratu gabe. "Ratio europarreko" filosofoen jarrera ez al da izan horrelakoxea? Eta, berdin, jakintsuena? Halere, bai horixe, berezitzen dira nahiz bata nahiz bestea. Nola, ordea?.

4. Liburuaren laugarren partera heltzen denean, aldi klasikotik aldi modernora dagoen atezubiak arduratzerakoan alegia, Foucault-ek analisia metodoz aldatzen du. Ordurarteko bere gogoeta, naturalista-biologoen, gramatikalari-hizkuntzalarien eta ekonomilarien idazlanetan oinarritzen zuen. Hemendik aurrera, ordea, batzuenetara ia oso osorik mugatzen da (Mallarmé, Artaud, poetak; Nietzsche, Kant, filosofoak; Marx, ekonomilari-soziologo; Freud. psikoanalista; ...) Gehiago ez dago jakintsuen idazlan zuzen zuzenekoen azterketarik. Pertsonaren zientzietako idazlanen ikasketa sakon eta gogartsu bat ez ote litzateke hasi beharko?. Are, delako ikasketa sakon eta gogartsu hori ez al dago ia hasita? Gogora dezagun lerro izendatzea; Ezin dut ulertu zergatik Foucault-ek ez lukeen giza zientziei buruz gogoeta egiterakoan erabiliko liburuaren aurreko partean hain harrigarriki erabili duen metodo bera. Zergatik?

5. Foucault-en epistemearen tesia iraganari buruzko da, batipat: hiru aldien historia gogartsuari buruzkoa, ale

gia.

Baina datorrena, hein batetan oraina, aztertzerakoan topea jotzen du. Zer dela eta? "Egite gordinen" premiagatik ote?.....

Apalategi Begiristain

Joxe Martin (1978)

BIBLIOGRAFIA

BLOCH, M.

Métier d'historien

FOUCAULT, Michel

Les mots et les choses - Une archéologie des sciences humaines, Paris: Gallimard.

VEYNE, Paul

L'inventaire des différences

Comment ont écrit l'histoire